# 2019ko TXOSTENA



gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea
society and contemporary culture

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

Bilbao





# AURKIBIDEA


**4 AZKUNA ZENTROA - ALHÓNDIGA BILBAOREN AURKEZPENA**

5 Zuzendariaren gutuna
6 Nor garen
8 Infografikoa
12 Gure aktiboak
18 Balioak eta printzipioak

**20 6 PROGRAMAZIO-ILDO**

22 Arte garaikidea
40 Zinema eta ikus-entzunezkoak
46 Arte biziak
56 Gizartea
64 Kultura digitalak
70 Literatura

**76 ZEHARKAKO 2 ARLO**

76 Hezkuntza eta bitartekaritza
77 Gure publikoak

**78 6 ZERBITZU**

80 Mediateka BBK
81 Argitalpenak
84 artxiboAZ
85 dendAZ. This is basque design
87 Ekitaldiak, guneen alokairua
91 Ostalaritza
94 Zinemak
97 Jarduera Fisikoaren Zentroa

**102 4 PROIEKTU ESTRATEGIKO**

102 Entzun
103 Mediatekaren proiektu berria BBK
104 Lantegia. Ideien laboratoegia
106 Hobekuntza positiboko planak

**107 URTEKO KONTUAK**

**108 AZKUNA ZENTROKO TALDEA ETA ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**










## ZUZENDARIAREN GUTUNA

2019, Programa Proiektuaren lehen urtea.

2019. urtea izan da 2019-2023 Programa Proiektuaren abiapuntua, gure etorkizunerako ibilbide-orria, 25 lan-ildo baino gehiago biltzen dituena. Horren bidez, Azkuna Zentroa etapa berri batean sartu da, gizartearen eta kultura garaikidearen arteko topaleku gisa.

Oso urte ona izan da, eta nabarmen hazi dira jarduerak eta publikoa. Urte honetan, zeharkako programazio baterantz egin dugu bilakaera, programazioak hizkuntza artistikoak eta diziplinak zeharkatzen baititu, horiek gurutzatzen eta agerian jartzen baititu; eta, era berean, berdinak eta desberdinak lotzen ditu; praktika artistikotik prestakuntza eta heziketa ematen ditu; arrazak, sexuak, hizkuntzak, geopolitika eta identitatekoa zeharkatzen ditu, forma guztietan; kontzientziak eta gorputzak eragiten ditu; mugak eta topikoak zeharkatzen ditu... Hori guztia artisten eta kultura-arloko agenteen botere katalizatzailearen bidez, horiek ideien lurralde berriak eta irudien, formen eta denboren paradigmak lotzen baitituzte.

Jarraian, egindako proiektu guztiak xehetasunez kontsulta daitezke, baina garrantzitsutzat jotzen dut lehenengo urte honetan espazioak zabaltzeko eta ikusarazteko hartu dugun lana, etorkizuneko proiektuak baitira. Horixe da Lantegiaren kasua, gure ideia-laborategi berria. Jarduera Osagarrien Zentroa proiektu artistikoak ekoitzi eta irudikatzeko habitat bihurtu dugu, eta horrek sustatzen du publikoaren komunitateek hiriko kultura-ekoizpenean parte hartzea. DendAZ. This Basque Design gure denda berriarekin, leiho bat ireki genion diseinuaren esperientziari eta publikoen komunitateen eta sorkuntza-lan eta eskulangintzaren arteko topaketari.

2019an Mediatekaren eraldaketa hasi genuen, XXI. mendeko liburutegi bihurtzeko. Sorkuntza artistikorako, ikaskuntzarako eta esperimentaziorako gune berri bat, non pertsonek kultura praktika, prozesu eta esperientzia gisa bizi ahal izango duten.

2019an hasitako prozesuaren zati gisa, hazten jarraitu nahi dugu, baina, batez ere, gure publiko-komunitate guztien esperientziak hobetu nahi ditugu.

Memoria honen bidez, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak bateratzeari ekin nahi diogu, etorkizunean Zentro honetako jardueren ikuspegi orokorra izateko.

Fernando Pérez.
Azkuna Zentroko zuzendaria

# NOR GAREN

## GURE EGINKIZUNA

Gure eginkizuna da loturak sortzea pertsonen eta kulturaren artean, ingurunean eragiteko, eta gizarte kritiko, sortzaile eta askotarikoagoa eraikitzen laguntzeko.

Kultura garaikidea praktika gisa, prozesu gisa, artisten, agente eta komunitate artistikoen bidez eta programazio-eredu hibridoekin esperientzietarako espazio gisa bizitzeko lekua da.

Hainbat balio lantzen ditugu: jasangarritasuna, ekonomiari eta energia-eraginkortasunari dagokienez; espaziorako eta programaziorako irisgarritasun unibertsala; eta berdintasuna, pertsona guztientzako gunea.

## GURE IKUSPEGIA

Azkuna Zentroa espazio publiko askotarikoa eta gizarte eta kultura garaikidean erreferentea izatea, hala hemen nola nazioartean. Lurraldea eta biztanleak eraldatzeko epizentroa izatea.



try {
catch (FacebookApiExcep
acebook.com webde












## PROGRAMAZIOA AZKUNA ZENTROAREN ERDIAN DAGO, KUDEAKETA-EREDU BAKARRA ERAIKITZEKO.

**6 programazio-ildo,** elkarrekin hizketan, eta programazio hedatua sortzen, hainbat eremu, diziplina, espazio eta garaitan.

**43.000 m2 erabilgarri** eraikin osotik hedatzen den programazio baterako, ohiko espazioei balio berria emateaz gain, toki berrietara iristeko.

**Lantegia. Ideien Laborategia proiektu berria** da Azkuna Zentroak proiektu artistikoak ekoizteko eta ikustarazteko duen espazio berria, eta parte-hartzea, sorkuntza, berrikuntza, jakintza, irisgarritasuna eta dibertsitatea sustatzen dituena.

**Mediateka BBK proiektu berria** sorkuntza artistikorako, ikaskuntzarako eta esperimentaziorako gunea da, proaktibitatea bultzatzeko prestatutako bilduma bibliografikoaz eta kultura-programazioaz hornitua.

## ESPAZIO KONPLIZEAK, AZ ESPERIENTZIA INDARTZEN DUTEN ZERBITZU OSAGARRIAK.

# PROGRAMAZIOA







“GIZARTEA ETA KULTURA GARAIKIDEA LOTZEA”

## GURE AKTIBOAK/ EKARPENAK

Gure 9 urteko bizitzan zehar, hiriko proposamen kulturala zabaldu dugu, arte garaikidea, kultura eta jakintza eskuratzen lagundu baitugu. Gizarteak kultura garaikidearekin duen harremana berrikusi dugu, eta programazioa eta esperientziarako eta pentsamendurako espazioak aktibatu. Zentroak 5 aktibotan egiten duen ekarpena neurtzen dugu:



### 01. GIZARTEA



### 02. ARTEA ETA KULTURA



### 03. HIRIA

### 04. HARREMANAK



### 05. EKONOMIA





# 01. GIZARTEA

## ZER

Gizarte kritikoagoa, sortzaileagoa eta askotarikoagoa eraikitzen laguntzen dugu, programazioaren bidez eta publikoen komunitateen arteko lotura errazten duten espazioen bidez.

## NOLA

Esperientziak eta eztabaida publikoa eskaintzen ditugu gure gizartearentzat funtsezkoak diren arloetan, eta publikoen komunitateen jakin-mina sustatzen dugu, jakintza kritikoa sortzeko eta artearen eta artisten bidez gizartea eraldatzeko.

## ZENBAT

**3,6 M**
bisita Azkuna Zentrora 2019an

**9.939**
sarrera/egunean

**253**
parte-hartzaile /egunean jardueretan

**18.443**
neska-mutil parte-hartzaile

**5.175**
Az txartela jaulkita

# 02. ARTEA ETA KULTURA



## ZER

Lankidetzako komunitate profesionalak sortu nahi ditu, kultura eta sorkuntzako industrien sektorearen harrobia izan daitezen, hain zuzen, alderik sortzaileena.

## NOLA

Kontaktu, ideia-truke, prozesu eta proposamen artistikoen bidez kultura garaikidea ekoizteko espazio bat eratuz. Eta prestakuntzako proposamenak garatuz, jakintza garaikidea sustatzeko eta azaltzen ari diren profesionalei laguntza emateko.

**Lantegia. Ideien laboratotegia.** Arte, Kultura eta Kultura eta Sormen Industrien (ICC) proiektu berrien sormen- eta lankidetza-gune gisa.

## ZENBAT

**356**
Az-k programatutako jarduera

**386**
artista

**111**
hitzaldi + tailer + bilera

**17**
erakusketa + instalazio

**7**
egonaldi artistiko

**54**
ikuskizun zuzenean



# 03. HIRIA

## ZER

Bilbo kulturaren eta jakintzaren hiri gisa kokatzen laguntzen dugu, 2030eko Agendaren garapen jasangarriaren helburuekin bat etorriz. Kultura irekia eta integratzailea sustatzeko Euskadik duen estrategiaren parte gara, nazioartean presentzia handiagoa lortu nahi duena, sorkuntza artistikoa eta euskal kultura- eta sorkuntza-industriak bultzatuz.

## NOLA

Sarean lan eginez lehen mailako espazio eta proiektu garaikideekin, eta jarduera instituzional bizia garatuz, munduko hainbat tokitako bienal, azoka eta kultura garaikideko zentroetako arduradunekin elkartzeko, nazioarteko harremanak zabaltzeko xedez. Zentroak hirian duen eraginari buruzko azterlan bat eginez.

## ZENBAT

**55.080**
jarraitzaile aktibo sare sozialetan

**74%**
rentzat, Azkuna Zentroa herritarren eta kulturaren arteko zubia da.

**Lautik hiruk**
bisitatu dute Zentroa azken urtean (Bizkaiko populazioa baloratzeko berriki egindako azterlan baten arabera)

**11**
nazioarteko instituzio

**24**
prentsaurreko

**114**
elkarrizketa hedabideetan

# 04. HARREMANAK



## NOLA ZER

Tokiko eta nazioarteko kontaktuak eta harremanak garatzen laguntzen dugu, Alhóndiga hedatuaren kontzeptuarekin, berrikuntza, nazioartekotzea eta finantza-konpromisoa eskaintzen baitigu.

4 mailatako lokailuak gara: programazio-zentroen sarea, artisten sarea, babesleen eta laguntzaileen sarea eta hornitzaileen sarea.

## ZENBAT

**35**
kultura-programa eta entitatea sarean

**130**
enpresak espazioak alokatzen dituzte

**5**
babesle

**16**
erakunde laguntzaile / institutu / unibertsitate

**13**
media partner



# 05. EKONOMIA

## ZER

Azkuna Zentroa eragile aktiboa da Bilbo nazioartekotzeko eta gure inguruko kultura-sarearen bidez tokiko ekonomia bultzatzeko.

## NOLA

Zentroaren autofinantzaketa maximizatzeko lan egiten dugu, babesleen eta erakunde laguntzaileen ekarpenaren bidez, bai eta gizartearentzat interesgarriak diren zerbitzuen bidez ere.

## ZENBAT

**10,5M**
aurrekontu globala 2019an

**3,5M**
sarrera zerbitzuak egiten 2019an

**425K**
diru-laguntzak eta hirugarrenen babesak

**38%**
autofinantziazioa 2019an

**200K**
instalazio berrietako inbertsioa

# PRINTZIPIOAK ETA BALIOAK

## Kultura-jarduera

Azkuna Zentroa- Alhóndiga Bilbaok sei ildotan egituratutako programazioa proposatzen du: Arte garaikidea, Zuzeneko arteak, Zinema eta Ikus-entzunezkoak, Gizartea, Kultura digitalak eta Literatura. Horiek guztiak etengabeko iraultza batean, programazio hedatua eta malgua sortuz: erakusketak arte plastikoak gainditzen ditu, antzezpenak eszena gainditzen du, pantailak arte bisualak gainditzen ditu, liburuak literatura zeharkatzen du. Jarduera etengabe hobetzen sakontzeko interesarekin.

Azkuna Zentroak kultura-programazio aktiboaren eredu bat eskaintzen du, kultura garaikidea praktika gisa, prozesu gisa, esperientzietarako leku gisa bizitzeko espazioetan, erakusketen, esku-hartze artistikoen, tailerren, hitzaldien, sinposioen, egoitza artistikoen, zinema- eta bideo-sorkuntzako zikloen, kontzertuen, musika esperimentalaren, dantza garaikidearen, eszenaren eta abarren bidez.

## Parte-hartzea eta dinamismoa

Hori guztia narratiba berriak erabiliz, programazioan lan eginez, proposamenak hainbat formatutan balioetsiz eta aberastuz, kultura-eredu horren katalizatzaile eta motor gisa diharduten kultura-eragileen, gizarte-eragileen eta artisten bidez, publikoen komunitateen parte-hartze aktiboa bultzatzeko.

Gainera, leku dinamikoa da sorkuntzari laguntzeko, eta tresnarik onenak ditu bera sustatzeko.

## Gizartearekiko konpromisoa

Zentroa kultura garaikidean sartzeko plataforma bat da, gizartean eragiteko. Erantzukizun horrekin, programazio-ildoak berariaz lantzen dira ikuspegi kritiko, feminista eta askotariko batetik eta berdintasun soziala eta euskarazko programazioa sustatzeko interesarekin.

## Instituzioen eta enpresen lankidetza

Azkuna Zentroa Alhóndiga Bilbaorekin kultura garaikidea zabaltzeko ardura partekatzen duten instituzio, erakunde, talde eta enpresekin lankidetzan aritzeko irmoki irekitzea.

Hau da, borondateak elkartzea eta baliabide publikoak jasangarritasunaren aldeko babes pribatuarekin eta kultura-programaren proiekzioarekin uztartzea.

## Lurraldetasuna

Azkuna Zentroa eragile aktiboa da euskal kultura nazioartekotzeko eta gure inguruko kultura-sarearen bidez tokiko ekonomia bultzatzeko.

Sorkuntza garaikideko egonaldien programak hurbileko sormen-sarea lotzen du homologagarriak diren nazioarteko kultura-inguruneekin, trukeak, harremanak eta lankidetza iraunkorrak eta elkarrekikoak bilatzeko.

Gaur egun, praktika artistikoetako, dantza garaikideko eta musika esperimentaleko egonaldiak ditugu, eta aurten bertan, programa zabalduko dugu nazioarteko komiki-egonaldi batekin. Kasu guztietan, harreman profesional jarraikiak ehuntzen dituzten prozesu artistikoak elkartzea da helburua.

Horretarako, sarean lan egiten dugu gaur egungo lehen mailako espazioekin eta proiektuekin, hala nola Rotterdameko Dansateliers Dantza Garaikideko Zentroarekin, Habanako Carlos Garaikoa Estudioarekin, Frantziako Angoulême irudiaren eta komikiaren hiriarekin, eta Kanadako Quebeceko Literaturaren Etxearekin.





# 6 PROGRAMAZIO-ILDO

## GIZARTEA ETA KULTURA GARAIKIDEA

Zentroko programazioa Kultura garaikidea sei programazio-ildotan lantzen dugu -Arte garaikidea, Zuzeneko arteak , Zinema eta ikus-entzunezkoak, Kultura digitalak, Literatura eta Gizartea -, eta elkarrekin hizketan jartzen ditugu eredu hibridoen, programazio hedatuen eta “ko”, “multi”, “trans”, “inter” eta antzeko formatuen bidez, aukera ematen baitigute gaur egungoaren egunerokotasuna lortzeko.

Zeharkako programazioa lantzen dugu, hizkuntza artistikoak eta diziplinak zeharkatzen dituena; berdinak eta desberdinak lotzen dituena; praktika artistikoaren bidez prestatu eta hezi egiten duena; arraza, sexua, hizkuntza, geopolitika eta identitate forma guztiak zeharkatzen dituena; kontzientzia eta gorputzetan eragiten duena; eta mugak eta topikoak zeharkatzen dituena...

Arreta berezia egiten diegu euskarazko egungo sorkuntzari eta berdintasunari, eta bitartekaritza eta hezkuntza erabiltzen ditugu, jakintza kritikoa sortzeko, eta artearen eta artisten bidez gizartea eraldatzeko.

### Arte garaikidea:

Egonaldi artistikoak, sinposioak, sorkuntzako laborategiak, erakusketak... egiten ditugu, arte plastikoen eta bisualen, ikerkuntzaren, pentsamenduaren, kuratoretzaren eta forma berrien arlo hedatuan.

### Zinema eta ikus-entzunezkoak:

Modu zabalean heltzen diegu zinemari eta ikus-entzunezkoei, zinema klasiko eta garaikideko programazio egonkorrekin, estreinaldiekin, jaialdiekin, gaikako zikloekin eta esperimentalagoak diren ikus-entzunezko narratiben programekin.

### Arte biziak:

'Zuzeneko arteak' dira edozein motatako lan eszenikoak edo eszenifikazioak erakustera eta/edo haien praktika eta ikerketara bideratuta dauden arte guztiak. Programazio egonkorra lantzen dugu sorkuntza-arloko adituekin, dantza, performancea, forma berriak, soinua eta musika esperimentala bateratuz.

### Gizartea:

Elkarrizketa etengabea eta bi norabidetakoa dugu, gure errealitateaz ikertzen eta sakontzen duten programen, eztabaiden, sinposioen eta proiektuen bidez. Gogoeta, kritika, diseinu eta komunikazio-arloko profesionalekin.

### Kultura digitalak:

Kultura digitalarekin harremana duen programazio-ildo hau formulatzeko, online programazioa jorratzen dugu bideo-jokoarekin eta joera berriekin.

### Literatura:

Bultzatzen dugu irakurketaren, idazketaren eta ahozko transmisioaren, eleberri grafikoaren eta komikiaren ikerketa, eztabaida eta zabalkundea, azken batean, hitza bere hedapen osoan eta beste adierazpen artistiko batzuekin harremanetan.

# 01.

# ARTE GARAIKIDEA



**17**
erakusketa eta instalazio

**108**
tailer, topaketa, hitzaldia eta beste jarduera

**76.206**
parte hartzaile arte garaikideko programan

**102**
artista

**44**
nazioarteko laguntzaile

**165**
Azkuna Zentroan programatutako jarduera



Arte plastikoen eta arte bisualen, ikerketaren, pentsamenduaren, kuratoretzaren, kritikaren, forma berrien eta abarren eremu hedatuaz ari gara. Bertako eta nazioarteko artistekin, kuratoreekin eta/edo kritikako espezialistekin lan egiten dugu, hala hasi berriekin nola ospetsuekin. Egonaldi artistikoak, erakusketak, tailerrak, programak, sinposioak, sorkuntzako laborategiak, argitalpenak eta bestelakoak garatzen ditugu.

2019an erakusketak eta instalazio artistikoak aurkeztu ditugu, egonaldi artistikoekin jarraitu dugu, eta sorkuntza artistikoko programak bultzatu ditugu. Zeharkakoagoak diren programazio-ildoak sortu ditugu, eta Azkuna Zentroko gune berriak konkistatu ditugu, arte bisual garaikideak eskaintzeko: Arrikibarko fatxada, Mediateka BBK, terraza, Jarduera Fisikoaren Zentroa, Atariko informazio-puntua eta Lantegiko BAT espazio berria.

# ERAKUSKETAK

Erakusketen eta arte bisualen programazioan, erregistro garaikidearen barruan Zentroko espazioak erabil ditzaketen artista, obra eta komisario hautatuak daude sartuta.

2019ko programazioan, zubi berriak ireki dira Zentro osoa kultura garaikidearen bidez lotzeko. Hainbat artistaren proposamenak leku eta diziplina desberdinetatik doaz. Gainera, ateak ireki dizkiegu haien ideia- eta sorkuntza-prozesuei.

2019an, formatu handiko hiru erakusketa antolatu ditugu, eta haietako bi Lantegia. Ideia-laborategiko BAT gunean. Koprodukzioan parte hartu dugu CGACrekin eta lankidetzan aritu gara Karlsruhe-ko Arte eta Media ZKM Zentroarekin.

## Homeless

2017ko Arte Plastikoen Sari Nazionala eskuratu zuen Angela de la Cruzen atzera begirako erakusketa, Carolina Grauk komisarioaren eskutik aurkeztua. Erakusketak ibilbide bat egiten du artistak 1996. eta 2018. urteen artean egindako lanetatik, eta zenbait lotura egiten ditu hainbat garaitakoak diren eta gehienetan atzera begirako erakusketetan jarri ez diren artelanekin. De la Cruzek mintzaira berezia garatu du, eta, horri esker, haren koadroek kalitate eskulturala dute, pinturaren eta eskulturaren arteko mugak ezabatuta baitaude; bata zein bestea erabiltzen du, adierazi nahi duenaren eta obra bakoitzak duen beharraren arabera. Hark esan duenez, «pinturaren mintzaira darabilen eskultura bat da, eta alderantziz. Pintura eta eskultura da».

## Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa.

Iván de la Nuez komisario duen erakusketa honetan 13 artistak parte hartu dute; liburu bat esan nahi du, agerian eta denbora errealean gertatzen diren hamahiru istoriorekin. Testua testura, hitza irudi, idazketa display eta ahozko erakusketa erakusketa bisual bihurtzeko prozesu kolektibo bat da. Batez ere artisten arteko topaketa da, gaur egun liburua inoiz baino biziago dagoela uste duten artisten topaketa.

Hala, Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa erakusketan, ulertzen da arteak gai izan behar duela Irudiaren Aro hau azaltzeko hitzak biltzeko, itotzen gaituen jario bisualari aurre eginez.

Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa aldi berean da erakusketa bat, arteak eskaintzen duen aukera narratiboari buruzko gogoeta bat eta, orobat, abentura hori kokatzeko espazio komun baten eraikuntza. Liburuen liburu bat da; begien bistako kontakizun bat, denbora errealean.

Kurt Caviezel, Cristina de Middel, Gonzalo Elvira, Oier Etxeberria, Kiko Faxas, Joan Fontcuberta, Verónica Gerber Bicecci, Alicia Kopf, Glenda León, Valérie Mréjen, Guillem Nadal, Mabi Revuelta, Xabier Salaberria dira erakusketa honetan parte hartu duten artistak, eta narratiba artearen munduan jarri dutenak.

## Open Codes. We are data.

18 artistaren erakusketa-proiektua, Blanca Giménez, Jaime de los Ríos, Fernando Pérez eta Rakel Esparza dituena komisario. Hausnarketa bat bizitoki dugun munduari buruz, kodeek sortu eta gobernatutako munduaz. Open Codes sorkuntzako topaketak egiteko espazio esperimental modura hartzen da, kode informatikoak ulertzeko jakintzaren eta ikuspegi artistikoen sorrera toki berean garatzeko. Ahalegin bat da gaur egungo errealitateekin eragin-trukea izateko, eta etorkizuneko garapen-ildoak eta ikuspegiak erakusteko, horrela, gure mundua hobeto ulertu ahal izateko: datu-eremu bilakatutako mundu bat baita. Bizi garen mundua ez dute soilik gauzek, hitzek eta irudiek sortzen, gidatzen eta kontrolatzen, batez ere, datuek egiten baitute. Interfaze elektroniko ugari ditugu 24 orduz, asteko 7 egunetan, hala nola telefono adimendunak, ordenagailuak, telebistak eta datu-pantailak.

Erakusketa-proiektu honek erakusketa-aretoko hormak zeharkatzen ditu, eta Atarian (infopuntua), Eguzkiaren pantailan, Mediatekan eta Jarduera Fisikoaren Zentroan proposatzen ditu piezak. Gainera, programa publiko zabala ere badu, 12 jarduera nagusirekin eta 28 gehiagorekin Open Space-n. Espazioa zabalik dago kolektiboek, artistek, enpresek... parte hartzeko, eta erakusketaren edukiarekin lotutako jarduera guztiak biltzen ditu.

Peter Weibelen ideia bat eta artista hauen erakusketa-piezak: Adam Słowik, Christian Lölkes & Peter Weibel, Refik Anadol, Bernd Lintermann & Nikolaus Völzow, BNAG (Oliver-Selim Boualam & Lukas Marstaller), Claire L. Evans, Emma Charles, James Bridle, Julien Prévieux, Karin Sander, Rafael Lozano-Hemmer, UBERMORGEN (lizvlx & Hans Bernhard), Varvara & Mar, Arrieta / Vázquez

# HOMELESS



## Komisariotza eta artistak
Komisarioa: Carolina Grau

Artista: Angela de la Cruz

## Iraupena
20 egun 2019an

## Elkarlanean
Coproducción CGAC

## Audientzia
2.230
37 bisita gidatua
134 ikasle



# INOIZ EZ ERREALA / BETI EGIAZKOA



## Komisariotza eta artistak

Komisarioa: Iván de la Nuez.

Artista: Kurt Caviezel, Cristina de Middel, Gonzalo Elvira, Oier Etxeberria, Kiko Faxas, Joan Fontcuberta, Verónica Gerber Bicecci, Alicia Kopf, Glenda León, Valérie Mréjen, Guillem Nadal, Mabi Revuelta, Xabier Salaberria

## Iraupena

180 egun

## Loturak

Gutun Zuria - Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiarekin

## Parte-hartzaile

23.984
297 bisita gidatua
1.542 ikasle

# OPEN CODES. WE ARE DATA

## Komisariotza eta artistak

Komisarioa: Blanca Giménez, Fernando Pérez, Rakel Esparza y Jaime de los Ríos.

Artistak: Refik Anadol; James Bridle; Butternutten Ag: Oliver-Selim Boualam & Lukas Marstaller; Emma Charles; Claire L. Evans; Bernd Lintermann, Nikolaus Völzow; Rafa Lozano Hemmer; Julien Prévieux; Karin Sander; Adam Slowik, Christian Lölkes, Peter Weibel; Ubermorgen; Varvara & Mar; Weareqq: Usue Arrieta & Vicente Vázquez

## Elkarlanean

ZKM
Center for Art and Media
Colección Beep
Dinof.

## Audientzia.

11.424
258 bisita gidatua
1.223 ikasle

## Iraupena

70 egun 2019an

## Erakusketarekin zerikusia duten jardueren xehetasunak

OPEN SPACE: Open Space erakusketa-aretoan dagoen espazio ireki bat da, eta kode irekiaren gaiari lotutako jarduera desberdinak antolatzeko diseinatua, hala nola, tailerrak, hitzaldiak, mahai-inguruak, biltzarrak eta bestelako ikuskizun publikoak egiteko. Espazio



honen bereizgarria da edozeinek eman diezaiokeela forma edukiari: erakusketak azpiegitura jarriko du; ikusleek, berriz, ideiez beteko dute. Espazio esperimentala, bizia eta irekia ikusleentzat.

EMAKUMEA, TEKNOLOGIAN AITZINDARI Hitzaldia. Varvara & Mar kolektibo artistikoak

UBERMORGEN, AKTIBISMO DIGITALA Hitzaldia. Ubermorgen kolektiboa

OPEN CODES. WE ARE DATA. Mahai-ingurua. Varvara & Mar, Usue Arrieta, Jaime de los Rios eta Blanca Gimenez, Roberta Bosco moderatzailearen eskutik

BILBAO ARGAZKI

KHIPU-A: LEHEN EHUN-ORDENAGAILUA Tailerra

ZINEMATEKA: ZINEMA IREKIA. ETORKIZUN BERRIA ASMATUZ. Zinema zikloa. Playtime Audiovisuales-ek komisariatua (Natalia Piñuel eta Enrique Piñuel)

KNOWLEDGE EXCHANGE FORUM. Mahai-ingurua

TUNIPANEA: 'POLYBRAFON' Instalazioa

LABORATORIO KLEM: 'PULSE'

HARITU. KULTURA DIGITAL ETA TEKNOLOGIAKO LABORATEGIA Tailerra. EDE - Suspergintza Fundazioak eta Azkuna Zentroa.



# ERAKUSKETA-PROIEKTUAK LANTEGIA
## IDEIEN LABORATEGIA

**Komisario Berriak.**
2016. urtean euskal testuinguruan komisariotzaren praktika garatu eta alor horretan profesional berriak sendotu zitezen bultzatzeko xedez sortutako deialdi publikoa da. Eusko Jaurlaritzaren programa honek erakusketa-pieza izan zuen Zentroan, 6 jarduera zituen programa publiko batekin batera. 2019an arreta berezia eman zaio komisarioaren lanaren dimentsio historikoari eta narratiboari.

**Benetako gaua**
Erakusketa hau Lester Álvarez eta José Ramón Ais artista egoiliarrek Habanako Carlos Garaicoa estudioko 'Artista x Artista' programarekin batera egindako 2018ko Praktika Artistikoen Egonaldian garatutako proiektuen emaitza da. Erakusketa-proiektua, zinema, literatura-edizioa, pintura, argazki-collagea, paisaia-diseinua eta azterketa sozialak eta politikoak biltzen dituzten diziplinen gurutzaketa.

# KOMISARIO BERRIAK

### Komisariotza eta artistak
Komisarioak: Garazi Ansa, Marc Badal y Laura Vallés
Artistak: Inmaculada Salinas, Maider Zilbeti y Sonia Fernández Pan

### Iraupena
57 egun

### Elkarlanean
Eusko Jaurlaritza. Artium Tabakalera

### Parte-hartzaile
869

### Erakusketarekin zerikusia duten jardueren xehetasunak
LANDA-LITERATURARI BURUZKO IRAKURKETA-SAIO INFORMALA. Topaketa. Marc Badal

INSALUBRE CINÉMATHÈQUE KONPAINIAREN ITZALEN ANTZERKIKO IKUSKIZUN BERRIAREN ESTREINALDIA. Antzerkia. Marc Badal

'DESERROTZEAREN BALDINTZAK (VICENTE AMEZTOY-TIK SAIAKERAK)' PROIEKTUAREN AURKEZPENA. Hitzaldia. Marc Badal

BILBOTIK SAJAZARRARA (ERRIOXARA) ANTOLATUTAKO 'IN-KURTSIOA'. Ibilaldia. Marc Badal






MANIFIESTO CONTRA LA SILLA. Performancea. Laura Vallés eta Inmaculada Salinas

LAURA VALLÉS VÍLCHEZ, MAIDER ZILBETI ETA SONIA FERNÁNDEZ PANEKIN. Mahai-ingurua. Maider Zilbeti, Sonia Fernández eta Laura Vallés.

# LA VERDADERA NOCHE

## Komisariotza eta artistak
Artistas: Lester Álvarez y José Ramón Ais.

## Iraupena
60 egun

## Loturak
Egonaldi artistikoa.
Etxepare
Banc Sabadell Fundazioa
Artista x artista

## Parte-hartzaile
323

## Erakusketarekin zerikusia duten jardueren xehetasunak

Erakusketa eta sorkuntzako prozesuei buruzko tailerra, Lester Álvarez eta José Ramón Ais artistekin



# INSTALAZIOAK ETA ESKU-HARTZEAK

12 instalazio/esku-hartze artistiko site specific, Zentroko Terrazarako, 13 artistak/kolektibok eraikinaren Fatxadarako, Atarirako eta Eguzkiaren pantailarako berariaz asmatuak.

## Fatxada proiektua

Diseinua, ilustrazioa eta komikia. Arriquibar plazako fatxada nagusia interbentzio artistikoak egiteko toki bat da orain, publizitateari kendutako espazio bat. Fatxada. Komikia, ilustrazioa, diseinu eta arte publikoaren proiektuaren bidez, arte eta sorkuntzako hizkuntza desberdinak erakusten ditugu, eta hiriko bizitzan eta hiriko biztanleen egunerokotasunean txertatu. Artistek olana itxurako hiru pieza sortzen dituzte, eta Arriquibar aldeko fatxadan jartzen dira ikusgai, eraikinaren ipar-mendebaldeko pareta eraldatuz, irudiak zabaltzeko eta, beraz, imajinarioak sortzeko euskarri bilakatuz.
Bi hilean behin aldatzen den banakako esku-hartze hori Zentroan bertan zabaltzen da, eta eraikineko beste euskarri batzuk hartzen ditu, hala nola Eguzkiaren pantaila, eta bide ematen du artisten eta publikoen arteko topaketak izateko, eztabaidarako eta sorkuntzarako gune berriak sortzeko tailerren bidez. Parte hartzen duten artisten lanari laguntza emanez osatzen da programa, haien piezen errepliken eta beste lan batzuk dendAZ. This Basque Design-en, Azkuna Zentroko dendan eskuragarri baitaude.

## Identidata (U R ART)

Identidata instalazioa Azkuna Zentroak eta hiri-berrikuntzako Urbanbat bulegoak sortutako proiektua da. Identitateari buruzko hausnarketa planteatzen duen instalazioa, Zentroaren Atarirako adhoc sortutako pieza. Proiektuak datuak bistaratzeko gailu gisa funtzionatzen du, eta hausnarketa planteatzen du globalizazio etengabean identitateak eraikitzeko zenbait faktorek duten zereginari buruz. Herritarren parte-hartzea bultzatzen duen joko plastikoa da, eta 13.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute. Bestalde, Eguzkiaren pantailan, Diego Díaz eta Clara Boj artistek instalazioko datuak interpretatzen dituzte Identitate kuantikoan, Eguzkiaren pantailan egindako esku-hartze artistikoan. Haien proposamenean, identitatearen azterketaz egiten dute hausnarketa, gainezarpen kuantikoaren ikuspegitik; horren arabera, identitatea aldi berean izan daiteke bere adiera guzietan, baina, definitzen saiatzerakoan, izan dezakeen konfigurazioetako bat baizik ez zaigu agertzen.
smARTplaces kultura-lankidetzarako Europako programaren U R Art proiektuaren barruan sartuta dago; gaur egungo zortzi museok eta kultura-zentrok osatzen duten sarea da.

## Akelarre elektrikoa

Nestor Lizalde artistaren pieza, argi-instalazio bat da, artearen munduan baliabide berrien bidez sortutako aukerak aztertzen dituena, eta elkarrizketa sortzen duena esperimentazio teknologikoaren eta tradizio artistikoaren artean. 19.000 lagun baino gehiago igaro dira terrazatik, espazio horretarako propio sortutako instalazioaz gozatzera, eta, hala, terraza erakusketa-espazio berri bihurtu da, eraikinaren kanpoaldetik ere ikusteko modukoa.

## Flick bi.

Peter Weibel eta Matthias Gommel-en Flick bi instalazioak aukera ematen die ikusleei haien argazkia espazio errealean ikusteko eta, gainera, erretratuan hartutakoa espazio birtualean egoteko. Espazio birtual eta lekuz aldatu horrek sare sozialen izaera islatzen du. Selfien bidezko pertsonen autorrepresentazioa aldatzen hasi da pertsonek espazio publikoetan

izaten zuten jokaera. Gaur egun, nola-halako garrantzia duen edozein ekitaldik akuilatu egiten du parte-hartzaileek selfieak egin ditzaten, eta horiek berehala heda daitezke mundu osoan barrena. Pieza hau egokitu egin zen, Eguzkiaren pantailan ikusteko, Atarian jarritako fotomatoi batean ateratako argazki baten bidez. 2.800 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten argazki-album birtual horretan.

### Liderrei jarraitu

Isaac Cordal artistaren “Liderrei jarraitu” instalazioa Azkuna Zentroan dago. Hiri bateko bizilagunek osatzen dute instalazioa, bertako hondakinekin mimetizatuta. Antolatzailea Bilbao Art District da, Bilboko Udalak Bilbao Ekintzaren bidez bultzatutako ekimen publiko-pribatua.

# FATXADA PROIEKTUA

## Artistak

Aitor Sarabia, Higinia Garai, Naiara Goikoetxea, Leire Urbeltz, Susana Blasco, Ane Pikaza

## Iraupena

365 egun

## Loturak

dendAZ. This is Basque Design

## Erakusketarekin zerikusia duten jardueren xehetasunak

INAUSTEKO GARAIA. COLLAGE TAILERRA. Susana Blasco





# IDENTIDATA (U R ART)

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok eta hiri-berrikuntzako Urbanbat bulegoak ekoitzitako proiektua.

## Iraupena
86 egun

## Loturak
smARTplaces. ZKM, Etopia, Dortmund U, Van Abbe Museum, Liechtenstein Landenmuseum, Musée de Picardie

## Parte-hartzaile
13.000

## Instalazioarekin zerikusia duten jardueren xehetasunak

IDENTITATE KUANTIKOA
Clara Boj eta Diego Díaz artistek instalazioko datuak interpretatzen dituzte, Eguzkiaren Pantailan jarritako Identidad cuántica (Identitate kuantikoa) esku-hartze artistikoan. Haien proposamenean, identitatearen azterketaz egiten dute hausnarketa, gainezarpen kuantikoaren ikuspegitik; horren arabera, identitatea aldi berean izan daiteke bere adiera guzietan, baina, definitzen saiatzerakoan, izan dezakeen konfigurazioetako bat baizik ez zaigu agertzen.

U R ART JARDUNALDIA
Azkuna Zentroa, Dortmund U, ZKM, Etopia, Museo Picardie, Museo Liechtenstein, Van Abbe Museum






# AKELARRE ELEKTRIKOA

## Komisariotza eta artistak
Komisarioa: Jaime de los Ríos
Artista: Nestor Lizalde

## Iraupena
150 egun 2019an

## Parte-hartzaile
19.570



# FLICK -BI

## Komisariotza eta artistak
Artistak: Peter Weibel y Matthias Gommel

## Iraupena
38 egun

## Loturak
Gabonak arte. Esperientzia artistikoak haurrentzat eta familientzat. ZKM

## Parte-hartzaile
2.873

# LIDERREI JARRAITU

## Komisariotza eta artistak
Artista: Isaac Cordal

## Iraupena
15 egun

## Loturak
Bilbao Art District

# EGONALDI ARTISTIKOAK

Zuzeneko arteen eta erakusketa-arteen inguruko ikerketari, sorkuntzari eta ekoizpenari laguntzeko hainbat ekimen garatzen ditugu, artelanen ekoizpena sustatzeko, publikoen komunitateengana hurbilduz, dela egindako lanaren bidez, dela sormen-prozesuen bidez.

Egonaldi artistikoen programak baldintza egokiak eskaintzen dizkie sortzaileei, material eta espazio aldetik, Zentroak dituen programei eta ekintza-ildoei lotuta dauden sorkuntzako proiektuak garatzeko. Aldi berean, hurbileko sorkuntza-ehuna nazioarteko kultura-inguruneekin lotzen du, eta truke, erlazio eta lankidetza iraunkorrak eta elkarrekikoak bilatzen ditu. Eginkizun horretan, korrelazioa lortu nahi da, besteak beste, Rotterdameko Dansateliers Dantza Garaikidearen Zentroarekin eta Habanako Carlos Garaicoaren estudioarekin. Prozesu artistikoak trukatzeko sare horiek bide ematen dute jarraipena izan dezaketen lanbide-harremanak ehuntzeko.

2019an, Azkuna Zentroak 7 artista hartu ditu egonaldian, bai eta kulturarekin lotutako 5 pertsonak osatutako kolektibo egoiliarra ere.

## Dantzako egonaldia.

Azkuna Zentroak eta Dansateliers Rotterdamek Jaiotz Osa eta Sigrid Stigsdatter Mathiassen koreografoei esleitu diete dantza garaikideko egonaldia, bi zentroek batera eskaintzen dutena. Bi artisten bi piezen estreinaldiak batera izan behar zuen, 2020ko otsailean Rotterdameko "Moving Futures" nazioarteko dantza-jaialdian, eta, gero, Azkuna Zentroan.

## Praktika artistikoen egonaldia.

Kubako eta Euskadiko artisten trukea sustatzen du Zentroak, Habanako Carlos Garaicoaren estudioko 'Artista x Artista' programarekin lankidetzan, bi espazioetan ikerketa-aldi bat egiteko bidea emanez. Bi artistak -Tana Garridok eta Alina Aguila artista kubatarrak- hartu dute parte egonaldi horietan, eta, amaiera emateko, bien lanaren erakusketa izan da Azkuna Zentroan. Egonaldi horiek garatzeko, Banco Sabadell Fundazioaren laguntza izan dugu, artea eta kultura sustatzeko eta zabaltzeko duen programaren barruan, bai eta Etxepare Euskal Institutuaren laguntza ere, praktika artistikoen egonaldian, mundu osoan euskara eta euskal kultura babesteko duen eginkizunean.

## Kolektibo egoiliarra

2018az geroztik consonni da Azkuna Zentroko kolektibo egoiliarra; honako hauek osatzen dute: María Mur, Muns Brunet, María Macía, Dina Camorino, Iñaki Landa eta Arkaitz Olea. Irratia hartzen du ardatz, formula kritiko gisa, kultura-edukia taldeka sortzeko eta anplifikatzeko.

• consonnik irratsaioak egin ditu bi urtez, ikus-entzuleekin zuzenean, hainbat gai landu, eta era askotako profesionalak tartean sartuta. Show horiek bizirik iraungo dute gero, podcast gisa, kontsulta publikorako

• Deialdi publiko irekia: consonnik aurten 24 podcast aukeratu ditu deialdi publikoan, AZrekin consonnik duen irratiko programazioan sartzeko. Gonbidapenaren sorburua da begirada zabaltzeko eta programak beste ahots kritiko batzuei egiteko aukera eskaintzeko interesa. Hauek izan dira epaimahaiko kideak: Alberto de la Hoz, soinu-teknikaria, Itziar Ijalba, Azkuna Zentroko komunikazio-arduraduna; Montserrat Brunet, consonniko kidea; Jaime de los Ríos artista, eta Ane Zabala kazetaria. Aurkeztutako proposamen kopuruaren eta kalitatearen balorazio oso ona egin dute.

## Artista Az-kideak.

Azkuna Zentroak 'Artista Az-kideak' programa jarri du abian sormen artistikoa babesteko, ibilbide sendoa duten eta beren lanean lengoaia artistiko desberdinei buruzko begirada inspiratzailea erakusten duten artistak babesteko eta laguntzeko.

Gonbidapenen bidez eta bi urtez, artistei lagun egin nahi diegu beren ibilbidean. Inguruneko mapa kulturaleko erreferente aktiboak dira, eta zeregin hori indartu nahi diegu, komunitatearen arteko trukea erraztu kulturako eta gizarte-eragileekin, haien proiekzioa indartu beste sare batzuekin loturak sustatuz, eta prozesu horien eragina onartu, eta Zentroak haien egiteko moduen bidez ikasi. Parez pare ibiltzeko programa da.
2019ko urtarrilaz geroztik, Sra Polaroiska (Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe) eta Oscar Gómez Mata ditugu artista Az-kide:

- Sra Polaroiskaren ikus-entzunezko lana ekintza-arteari, sorkuntza eszenikoari eta koreografikoari buruzkoa da, eta, bereziki, erreferenteak sortzea eta genero-ikuspegitik ahalduntzea du ardatz. Aurten, “Ez dago adinik erritmoarentzat” instalazioa aurkeztu du, eta “Jakintsuen Kontseilua” zikloa ere proposatu digu. Sei topaketa egin dira, hainbat esparrutako profesionaletako adineko emakumeekin, hitzaren bidez ezagutza transmititzeko.
- Oscar Gómez Mata aktore, zuzendari, autore eta eszenografo denak “Deriben katalogoa” egin du aurten, Esperanza Lópezekin batera zuzenduta, eta “Makers”, berriz, Juan Lorienterekin batera.

### Sorkuntza artistikorako ateak zabaltzeko eguna:

Irailean, ateak zabaldu ditugu, Zentroko artista egoiliarren lantoki diren espazio horietan ikusleek aukera izan dezaten non eta zertan aritzen diren, haien sorkuntza-prozesuak nolakoak diren. Elkargune horretan, sortzaileek lantzen ari diren proiektuak aurkeztu, eta proposamen horiek sortzeko prozesuak partekatu ahal dituzte bisitariekin.

# EGONALDI ARTISTIKOAK

## Egonaldi

DANTZA GARAIKIDEKO EGONALDIA:
Artistak: Jaiotz Osa + Sigrid Stigsdatter Mathiassen.
Kristin De Groot.

PRAKTIKA ARTISTIKOEN EGONALDIA:
Artista: Tana Garrido y Alina Aguila.

KOLEKTIBO EGOILIARRA: consonni.
María Mur, Muns Brunet, María Macía, Dina Camorino, Iñaki Landa.
Alicia San Juan, Arrate Hidalgo, Tania Arriaga,
Diego Salgado, Elisa McCaulsand
6 Programa deialdi irekian aukeratuta: Voces que caminan. Gabriel Villota. Phoenix Ragazza. Jone Uriarte eta Lur Olaizola / Black surgery. Robar como un artista. Libe Belandia / T.R.A.U.M.A (Transiciones. Resistencias.
Utopías. Migraciones. Anormales). Sacchi – de Santo / Propiedad Intelectual en femenino y autogestión. Intangia, asociación para la defensa de los bienes intangibles / Contracömic. Borja Crespo

## Loturak

Banc Sabadell Fundazioa
Etxepare.

DANTZA GARAIKIDEKO EGONALDIA:
Dansatelier.

PRAKTIKA ARTISTIKOEN EGONALDIA:
Artista x Artista. Carlos Garaicoa.

## Iraupena

DANTZAKO EGONALDIA: 60 egun
PRAKTIKA ARTISTIKOEN EGONALDIA: 60 egun
KOLEKTIBO EGOILIARRA: 365 egun

# ARTISTA AZ-KIDEAK

## Artista az-kideak
OSCAR GÓMEZ MATA
SRA. POLAROISKA

## Programazioa
OSCAR GÓMEZ MATA L'ALAKRAN:
**Catálogo de DERIVAS.** Deriba esatean hiri- geografian pentsamenduak eta emozioak duten noraeza esan nahi da. Esperanza Lópezekin elkarlanean. 8 deriba
**Makers.** Juan Loriente aktorearekin batera lan egiten du bere ekoizpen berriaren sormen-prozesuan: Makers, argiari, denborari eta maitasunari buruzko obran.

SRA. POLAROISKA:
Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe.
**Ez dago adinik erritmorako.** Proposamen honen bidez, zalantzan jarri nahi da zenbait kanonen eraikuntza, aurreiritziz eta estereotipoz beterik dagoen imajinario soziala eta kulturala desmuntatzeko. Ez dago adinik erritmorako, beraz, goza dezagun une bakan batez, dantzatzeko plazer hutsez
**Emakume jakintsuen kontseilua.**
Elkarrizketen bidez, emakume helduek beren bizi- eta lanbide-esperientziak transmititzen eta partekatzen dizkigute, eta erreferente gisa agertzen dira. Jakinduria biltzeko eta partekatzeko proposamena. Dolores Juliano eta Amaia Lasa.

## Iraupena
365 egun



# SORMEN ARTISTIKORAKO ATE IREKIEN JARDUNALDIA

Azkuna Zentroan lan egiten duten artista guztiek beren egiteko moduak, helburuak eta abian dituzten ikerketak erakutsten dituzte. Topaketa horietan, sortzaile horiek erabiltzen dituzten arte-hizkuntzak ezagutzen ditugu. Era berean, zentrotik pasatzearen emaitza batzuk erakusten dizkigute.

## Parte-hartzaile
361

# TAILERRAK ETA HITZALDIAK

## Playtime laborategia
Mabi Revueltaren zuzendaritzapean ikastetxeei zuzendutako hezkuntza-programa da. PlayTime (Jolasaldia) hezkuntza-tresnen estutxea artistaren prototipo bat da, Revueltak artearen izaera aztertzen baitu, jakintza eta eraldaketarako esparru gisa.
Hiru jarduera proposatzen ditu programan: “Aukeren kaxa”, “Kontrapublizitateko jolasak” eta “Gogoaren puskak”, hiru artistaren -Ana Román, Helena González, David Hornbacken- hezkuntza-proposamen gisa gidoi komun batean oinarrituta egituratutako prozesuen sorta bat. 470 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte programan.

## Laagencia
Chapineron (Bogotá) artean eta hezkuntzan ikerketa eta prozesuak sustatzen dituen arte-proiektuen bulegoa da Laagentzia. Bere jardueraren bidez, praktika artistikoei buruzko eztabaida sustatzen du, bitartekaritza-formatuak, lankidetzako programa publikoak eta beste pertsona batzuekin egiteko moduak eta jakintzaren produkzioa proposatzeko. Tailerra eta hitzaldia izan ziren lehen saioan, kuratoretza pedagogikoa gaitzat hartuta, erakusketatik harago doazen ekintzen eta estrategien sistema konplexu baten bidez, auzitan jartzeko artearen eta kulturaren instituzioetan dauden botere-harreman guztiak.

## Komisariotzari buruzko sinposioa
Erakusketaren saioa (1977-2017) Bulegoa z/b eta Azkuna Zentroaren arteko lankidetza-proiektu bat da, eta 1977 eta 2017 hamarkaden artean egin ziren erakusketa zehatzak aztertzea du xede. 2019ko topaketan, 1987-1997 hamarkadako kasuak aztertu dira. Horretarako, nazioarteko topaketa batzuk izaten ari dira, bakoitza hamarkada batean ardaztuta. Azkuna Zentroa, Bulegoa z/b eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak osatutako nazioarteko deialdi batek aukera ematen du sinposioan parte hartuko duten komunikazioak hautatzeko.

Orain arte, bi topaketa izan dira: lehena, Atarikoaren formatuan, eta bigarrena, 1977. eta 1987. urteen arteko hamarkadari eskainia. 2019ko topaketa uztailaren 9an eta 10ean izango da, eta 1987-1997 hamarkadako kasuak aztertuko ditu.

2019ko topaketetan, parte hartzeko modalitate berria izango dugu, komunikazioen bidezkoa, eta, horretarako, nazioarteko deialdia egingo dugu, apirilaren 1etik ekainaren 3ra arte. Komunikazioak hautatuko dira, hautapen-batzordeak haien laburpenak zehatz berrikusi ondoren; eta Azkuna Zentroak, Bulegoa z/b ekimenak eta Euskal Herriko Unibertsitateak eratuko dute batzorde hori.

## Eremuak jardunaldiak
Artista eta komisario independenteen batzorde birakari batek-gaur egun, Aimar Arriola, Iñaki Imaz eta Maider López dira zuzendari- zuzendutako eta Eusko Jaurlaritzak finantzatutako programa honek, laugarren urtez jarraian, urteko jardunaldien edizio berria antolatu du, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaorekin batera; haien bidez, gaur egungo arteko gai garrantzitsuei buruzko hausnarketa eta eztabaida piztu nahi ditu, bai Euskal Herrian, bai esparru zabalago batean. eremuak-en helburu nagusia da artistentzako eta sortzaileentzako plataforma bat eskaintzea, eta arterako politika publikoei buruzko eztabaida- eta topaketa-giroa sustatzea.

# PLAYTIME LABORATEGIA

## Komisariotza eta artistak
KOMISARIOTZA ETA KOORDINATZAILEA: Mabi Revuelta, Arantza Pereda
ARTISTAK: Ana Román, Helena González, David Hornback

## Iraupena
24 tailer

## Loturak
smARTplaces, europa creativa

## Programazioa
‘PROBABILITATEEN KUTXA’ tailerrak egun, denboraldi edo atal bat -benetakoa edo irudikatua, norberarena edo beste batena- berreraikitzen edo eraikitzen du ‘enssamblage’ eta ‘collage’ teknikak erabiliz.

KONTRAPUBLIZITATEKO JOKOAK tailerrak publizitateko estrategiak pirateatzea, desmuntatzea eta iraultzea du xede. Artistak modu kritikoz aztertu nahi ditu iragarkietako irudiak, eta alderantzikatu, hausnarketa pizteko.

GOGO-ZATIAK Laborategi honen helburua da kameraren aurrean hiru minutuz sortzen den espazio eta denbora ‘tarte’ hori aztertzea




# LAAGENCIA

## Komisariotza eta artistak
Santiago Piñol, Diego García, Mariana Murcia, Sebastian Cruz

## Parte-hartzaile
32



# KOMISARIOTZAREN NAZIOARTEKO SINPOSIOA

### Komisariotza eta artistak

Bulegoa z/b

Hizkariak: Aimar Arriola, Catherine David, Corinne Diserens, Ines Schaber, Joaquín Vázquez, Rachel Weiss.



# EREMUAK JARDUNALDIAK

### Komisariotza eta artistak

Ana Laura Aláez, Bik Van der Pol, Fernando García-Dory, Hidrogenesse, Latitudes (Max Andrews eta Mariana Cánepa Luna), Yael Messer, Jon Otamendi, Sergio Prego, María Ptqk, Alfredo Puente (Fundación Cerezales Antonino eta Cinia), Borbála Soós, Julia Spínola, Natalia Valencia Arango, Idoia Zabaleta (Azala)

### Elkarlanean

Eusko Jaurlaritza

### Parte-hartzaile

398



# 02.

# ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

**419**
proiektatutako filmak

**71**
filmak JBAn

**19.155**
ikusleak

**6**
zinema-zikloak

**300**
jasotako bideo-sorkuntzako proiektuak BideOtik



Azkuna Zentroa hiriko zinemaren gunea da; bertan, gure programazioaz gain, Bilboko urteko zinemaldirik garrantzitsuenak biltzen dira: Zinebi, FANT, etab., baita Golem AlhóndigaBilbao zinemen programazioa ere.

Modu zabalean heltzen diegu zinemari eta ikus-entzunezkoei, zinema klasiko eta garaikideko programazio egonkorrekin, estreinaldiekin, jaialdiekin, gaikako zikloekin eta esperimentalagoak diren ikus-entzunezko narratiben programekin.

# ZINEMATEKA

Zinematekak hiru programazio-ildo eskaintzen ditu: batetik, errealitate garaikideari eta gure ingurunerik hurbileneko sortzaileei lotutako zinema, eta, bestetik, zinema klasikoko filmak.

### Zinemaren historiako 50 harribitxi.

2019. urtean, 'Zinemaren historiako 50 harribitxi' zikloa aurkeztuko dugu. Era horretan, azken bolada honetan izan den zinemarik onena zeharka berrikusiko dugu. Lehenengo lauhilekoan, Federico Fellini, Jean-Luc Godard edo Agnès Varda zuzendarien lana aztertu dugu, beren garaiko ikur bilakatu diren zenbat interpretatzaile ere bai, hala nola Marylin Monroe, Charles Chaplin, Carole Lombard eta Gene Kelly, eta zinemagintzako eginkizunik garrantzitsuenetako bat egiten duten gidoilariei erreparatuta.

43 film proiektatu dira 86 saiotan, eta 6.395 entzule etorri dira.

### "Zinema irekia. Etorkizun berria asmatzen" zikloa.

Aro post-digitalean dugun errealitateari buruzko zientzia fikzio, utopia eta distopiei buruzko zikloa, Playtime Audiovisualesek (Natalia Piñuel eta Enrique Piñuelek) komisariatutako "Open Codes. We are data" erakusketaren esparruan sartua.

Hamar film eta 14 saiotan antolatutako ziklo honetan aurkeztu diren lanetako zuzendari gehienak emakumeak dira, emakumeak bistaratzea beharrezkoa delako, eta argi eta garbi dugulako: 'the future is female'. Gaiak lantzen dituzten filmak dira, zinema-saiakera eta aktibismo politikoa barnean hartuta. Arte garaikidearen parametroen barruan kokatuta dago, diziplina desberdinak era hibridatuko jarioan txertatzen ditu, formalki arriskatzen du eta proposamen bakoitza, azken batean, ikusleak berak osatzen du.

### Irudikatutako hiria zikloa, Oskar Alegria.

Zortzi film luzek eta bi film dokumental laburrek osatzen dute zikloa, 16 saiotan antolatuta; haietan, hiri-mapak aurkituko ditugu, egunerokoak eta ezezagunak, eta laguntza emango digute beste hiri bat eratzeko, norberarena, bizileku izan nahi genukeena edo izan nahi ez genukeena. Helburua da, dokumental garaikidea erabiliz, hausnarketa filmikoa planteatzea gizakiaren asmakuntzarik handienetako bati buruz: Greziako polisaz. Izan ere, 2050ean mundu osoko hiru biztanletatik bi halako batean biziko dela uste da.

«Eta programan paradoxa eta jokoa erabiliko ditugu, irudikatuko dugun hirian israeldar ile-apaindegi baten hondoan kanadar farmazia bat egongo baita, eta Habana erdian sortutako zuhaitz batetik Parisko hilerri batera joango baikara oinez: Père-Lachaise-ra».

## Programazioa

ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI
IRUDIKATUTAKO HIRIA' ZIKLOA
ZINEMA IREKIA. ETORKIZUN BERRIA ASMATUZ

## Egileak – Zuzendariak - Artistak

ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI Q1: Federico Fellini, Agnés Varda, John Ford, Friedrich Wilhelm Murnau, Jean Luc Godard, Larisa Shepitko, Ida Lupino, Leni Riefenstahl, Howard Hawks, Carol Reed, Alain Resnais, Josef von Sternberg, Arthur Penn, Jim Jarmusch, Luchino, Visconti, Michelangelo Antonioni, Charlie Chaplin, John Huston, Ingmar Bergman, Robert Bresson, Stanely Donen, Gene Kelly.

ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI Q2: Billy Wilder, Clyde Bruckman, Buster Keaton, Wim Wenders, Edwin Justus Mayer, Robert Aldrich, Max Ophüls, Alfred Hitchcock, Ingmar Bergman, Erns Lubitsch, Michelangelo Antonioni, Elia Kazan.

ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI Q3: Elia Kazan, Roman Polanski, Jean Renoir, Akira Kurosawa.

ZINEMAREN HISTORIAKO 50 HARRIBITXI Q4: Billy Wilder, Pier Paolo Pasolini, Alain Resnais, George Cukor, Kenji Mizoguchi, Jacques Demy, Carl Theodor Dreyer.

IRUDIKATUTAKO HIRIA' ZIKLOA: Comisario: Oskar Alegria. Director@s: Heddy Honigman, Myriam Ayçaguer, Iris Zaki, Antoine Bourges, Yulene Olaizola, Maya Goded, Roya Eshraghi, Claire Simon, Gianfranco Rossi

ZINEMA IREKIA. ETORKIZUN BERRIA ASMATUZ: Chris Marker,Regina de Miguel, Shu Lea Cheang, Isa Willinger, Momu & No Es, John Coney, The Otolith Group, Arwen Curry, Bertrand Mandico, María Ruido, ennifer Baichwal, Nicholas de Pencier y Edward Burtynsky, Lucile Hadzihalilovic.

## Film

64

## Parte-hartzaile

2.983 ikusle

# B I D E O T I K .

BideOtik programak formatu berri batekin eboluzionatu du aurten, deialdi publiko baten bidez, bestelako ikus-entzunezko narratiba berriak bilatzen laguntzeko. Ikus-entzunezko lexikoa erregistratzen eta irudikatzen duten bestelako moldeek baino izaera esperimentalagoa eta bereizgarriagoa duten sorkuntza-lanak hartu nahi ditu barne. Horregatik, hautaketan, 2017tik aurrera garatu eta errealaren zinemara bideratutako piezak aukeratu dira, ikuspegi estetiko batetik eta ikus-entzunezko praktika garaikidetik sortuak, esperientzia pertsonalekin, biografiekin eta bizitzako historiekin zerikusia duten gaiak jorratzen dituztenak. Feminismotik, dibertsitatetik eta gizartetik hurbil dauden narrazio berriak hartu dira aintzat, bai eta Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren eginkizunarekin eta estrategia kulturalarekin bat egiten dutenak ere.

300 proiektu baino gehiago aurkeztu dira, eta horietatik 14 aukeratu dira 2020an proiektatzeko. Lanen aukeraketa BIdeOtik-en ohiko formatuan egin zen: ikus-entzunezko sorkuntza eta gizartea lotzeko espazio batean, non egile bakoitzak bere pieza aurkezten duen eta publikoarekin partekatzen dituen bere proiektua egiteko prozesuak.




# Z I N E M A D O K U M E N T A L A

“Gorputzaren memoria: Formak Espazio-Denboran” dokumentalean, Roberto Menéndezek bidaia bat egitea proposatzen digu Espainiako dantza garaikidean zehar, Dantzako Sari Nazionala irabazitako bost dantzariren eskutik: Daniel Abreu, Chevi Muraday (Losdedae), Jon Maya Sein (Kukai Dantza), Sol Picó eta Carmen Werner (Provisional Danza).

## Programazioa
La memoria del Cuerpo: Formas del Espacio - Tiempo

## Egilea
Roberto Menéndez

## Saio
2

## Parte-hartzaile
260
25 ikasle

# JAIALDIAK

Azkuna Zentroa-Alhondiga Bilbao hiriko zinema-jaialdien epizentro bilakatzen da, urtero 9 jaialdi egiten baitira bertan:

### FANT - Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren

25. edizioan, Azkuna Zentroa-Alhondiga Bilbaorekin lankidetzan, PREFANT ospakizunaren esparruan, Zinema fantastiko esperimentaletik bideo-jokoetara topaketa antolatu zen, The Mask of Atlantis bideo-jokoaren sortzaile Mikel Calvo eta Jorge Núñezekin.

### Zinebi

Bilboko Udalak antolatutako Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren 61. edizioak lanean jarraitu zuen, bost kontinenteetako zuzendari gazteen sormena eta talentua bultzatzen, formatu horretako hautaketa baten bidez, eta aurten ere mundu osotik iritsitako kalitate handiko ehun lan baino gehiago erakutsi zizkien Bilboko ikusleei.

### Zinemakumeak Gara!

Emakumeek zuzendutako Zinema Erakustaldiaren 24. edizioak, gaikako programa aurkezten du, film laburrak, film luzeak, hitzaldiak eta mahai-inguruak eskainita. Aurten, emakumeen ahalduntzeari buruzko mahai-ingurua egingo da, Isabel Otxoa, Itziar Gandarias eta Susana Carramiñanarekin.

### Zinegoak: Bilboko Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Gaylesbitrans Jaialdiaren

16. edizioak generoaren adierazpenean eragina izan nahi zuen kartela aurkeztu zuen. 'Zuk izan nahi duzuna, nahi duzunez eta nahi duzun tokian izateko boterea. Zaren moduan erakusteko eta adierazteko boterea'.

### 'Zinemagileen artean' ekimenak, Kultura Communication y Desarrollo KCD GGKEren Emakumezkoek egindako Zinema Karabanak

Gerrari buruzko 5 film aurkeztu ditu aurten, Kataluniatik, Egiptotik, Esloveniatik, Madagaskarretik eta Suitzatik hurbildutako zuzendarien eskutik.

### Mendi film jaialdiak

Mendiko zinemarik onena erakutsi du, protagonistek, zuzendariek eta ekoizleek aurkeztuta. Bilbo mendiko zinemaren nazioarteko erreferentzia bihurtu da berriz , eta aukera eman du Atal Ofizialaren glamourrez eta haren inguruan sortutako jarduerez gozatzeko.

### Donostiako Zinemaldiaren 67. edizioa

Zinemaldiaren 67. edizioan lehen aldiz emandako zazpi pelikula izan dira Bilbon ikusgai, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren eskutik. Programa hau zinema eta ikus-entzunezkoen arloan sartzen da, eta aintzat hartzen ditu hala dimentsio historikoa -Zinematekaren bidez-, nola ikus-entzunezkoen ekoizpen garaikidea eta nazioartekoa.

### Film Sozialak

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak eta KCD ONGD-k ahalegina egiten dute jaialdia gune ekitatiboa izateko eta emakumezko zinemagileek egindako lana agerian jartzeko. Jaialdiaren edizio honetan, lehiaketako lanen % 49an emakumeak dira zuzendaria edo baterako zuzendaria.

### Zinexit

Elkarbizitzarako zinema-erakustaldia. Giza eskubideen gaiari lotuta urteko nazioarteko dokumentalik garrantzitsuenetariko hiru; "Awlad - Hesiak Gainditu" euskal ekoizpenaren erabateko estreinaldia; eta Alfred Hitchcock-en "Faltsu Erruduna" film klasikoaren proiekzioa dira ZINEXITen, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Zinema eta Giza Eskubideen Erakustaldiaren hamargarren edizioaren programaren muina.





## Jaialdiak

DONOSTIA ZINEMALDIA AZKUNA ZENTROAN
FANT. CINE FANTÁSTICO
ENTRE CINEASTAS. CARAVANA DE CINE REALIZADA POR MUJERES
ZINEXIT. MUESTRA DE CINE PARA LA CONVIVENCIA
FILM SOZIALAK
ZINEMAKUMEAK GARA!
ZINEBI EXPRES
ZINEBI
MENDIFILM FESTIVAL
ZINEGOAK

## Egileak – Zuzendariak - Artistak

DONOSTIA ZINEMALDIA AZKUNA ZENTROAN
+ MAHAI-INGURU Jose Mari Goenaga, Jon Garaño, Aitor Arregi, José Luis Torres Leiva, Hinde Boujemaa, Bong Joon-ho, Ken Loach, Delphine Lehericey, François Girard

ZINEMAKUMEAK GARA!
+ MAHAI-INGURU Lila Avilés, Isabel Otxoa, Itziar Gandarias, Susana Carramiñana

## Filmak

DONOSTIA ZINEMALDIA AZKUNA ZENTROAN: 7
FANT. CINE FANTÁSTICO: 70
ENTRE CINEASTAS. CARAVANA DE CINE REALIZADA POR MUJERES: 65
ZINEXIT. MUESTRA DE CINE PARA LA CONVIVENCIA: 8
FILM SOZIALAK: 61
ZINEMAKUMEAK GARA!: 1
ZINEBI EXPRES: 1
ZINEBI: 92
MENDIFILM FESTIVAL: 28
ZINEGOAK: 22

## Parte-hartzaile

12.135 ikusle

# 03.

# ARTE BIZIAK



**10.997**
parte-hartzaile

**68**
ekitaldi

**47%**
familiako eta eskolako publikoa

**79%**
berezko programazioa

**172**
artista



'Zuzeneko arteak' dira edozein motatako lan eszenikoak edo eszenifikazioak erakustera eta/edo haien praktika eta ikerketara bideratuta dauden arte guztiak. Programazio egonkorra lantzen dugu, sorkuntza-arloko adituekin, dantza, performancea, forma berriak, soinua eta musika esperimentala bateratuz.

# ESZENA

Eszenan, Arte Eszenikoak beren osotasunean sartzen ditugu: Antzerkia, dantza, performanceak, Azkuna Zentroko instalazio guztiak hartzen dituzten agertoki guztiak erabiliz.

Gure ustez, arte eszenikoen "dantza" diziplinan gorputza da agertokiko elementu nagusia, dela bere koreografian edo espazioan duen kokapenagatik, dela kokapen plastiko edo performatiboagatik. Arte eszenikoen barruko "performance" diziplinan, ekintza artistiko 'biziaren' dimentsio plastikoa nagusitzen da eszenan.

Dantza, hitza, musika eta bideoa biltzen dituen diziplina anitzeko lan eszenikoa sustatzeko lan egiten dugu.

2019an ikuskizun ugari programatu dira; besteak beste, hauek dira adierazgarrienak:

### "The Big Game"

37 interpreterekin eszenan, eta Dantzertiko (Euskadiko Arte Dramatikoaren eta Dantzaren Goi Mailako Eskolako) ikasle-talde batekin, Lokke /Olatz de Andrések dantza-ikuskizun hau aurkezten digu, ikasleentzako emanaldi berezi batekin. 390 bisitari eta 80 ikasle izan dira ikuskizun honetan.

### Matarile konpainiako 'Last Call/Stage'

Ana Vallésen zuzendaritzapean; 10 artista izan ziren dantzako, antzerkiko, performanceko profesionalei eta "gorputza borrokara" botatzen duten artista guztiei zuzendutako esku-hartze eszenikorako deialdi honetan.

### "Besteen heriotzak"

Lanaren bidez, Moon Produkzioak-ek bestelako esperientzia bat proposatzen du, antzerkia bizitzeko eta sentitzeko beste era bat. Eszenaratzea irratia, antzerkia eta zinematografia uztartzen dituen proiektu bat da, 7 artistaren partaidetza duena.

### Kanpai 'Sayonara Baby'

Natalia de Miguelena eta Jorge Jauregui Alluerena den eta Bilbao Eszenak koproduzitu duen Kanpa konpainiaren "Sayonara Baby", koreografikoki eta dramaturgian, absurdoaren antzerkia, estetika postmodernoa eta intentsitate handiko hizkera duten eragin zinematografikoak ditu inspirazio.

### BLUR #1 eta Pseudo-chameleon

Ibon Salvador eta Joseph Simon artistek Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon eta Dansateliers Rotterdam-en izandako dantza garaikideko egonaldian egindako lana aurkeztu dute.

### Núria Guiu 'Likes'

Nuria Guiu dantzari eta koreografoaren Likes-ek Youtubeko bi gertakari herrikoiren azterketa du abiaburu. Ikuspegi sozio-antropologiko batetik, artistak ikusleak aztertzen ditu, gure gizarte digitaletan like batek duen balio sozialaren inguruko diskurtsoa eraikiz.

### Stéphane Gladyszewskiren Corps Noir

Lanak gorputza eszenaratzen du, hainbat ehunduraz, soinu-materiaz, irudiz eta ahotsez osatutako osagarrien eta objektuen zoramen batean, eta beste hainbat identitate-metaforarekin, zeinak gainean ezartzeko, tartean sartzeko edo bateratzeko aukera ematen duen azken teknologiaren bitartez helarazi diren.

### Itsas hondoaren azpian, Dragoi bat

Pablo Esbert Lilienfeld eta Federico Vladimir Strate Pezdirc-en konposizioa. Agertoki berria igerilekurako, igeriketa sinkronizatuko konposizio koreografiko hau dantzaren, kirolaren eta zientzia-fikzioaren erdibidean baita. 1.300 bisitarik baino gehiagok partekatu ahal izan zuten esperientzia.

### Matarile Teatro 'Daimon y la jodida lógica.

Matarile Teatrok udazkeneko eszena-denboraldia ireki du 'Daimon eta logika latza' lanarekin, Ana Vallés zuzendaritza artistikoarekin eta deialdi publikoen bidez hautatutako 11 artistarekin.

### Tartean Teatroa 'Ghero'

Euskara protagonista duela, lan honek erakusten digu hizkuntza txiki batenganako harridura eta miresmena, mende luzez iraun baitu iragarpen guztien kontra.

### La Tristura ‘Future Lovers’

La Tristura konpainia eszenikoaren Future Lovers lanak gogoeta egiten du gazteriaren, ametsen eta bete gabeko itxaropenen inguruan.

### Aimar Pérez Galí ‘The Touching Community’.

Hiesaren aurkako borrokaren nazioarteko eguna omentzeko, AZ-k The Touching Community aurkeztu du, Aimar Pérez Galí koreografoaren pieza, dantzaren eta hies/GIBaren arteko harremanari buruzkoa.

### Suddenly III, Jaiotz Osa eta Xabier Mujikarena

Jaiotz Osa artista AZkideak tailer hau egin du, azaltzen ari den kolektibo baten funtzionamenduaz eta dinamikaz jakiteko interesa duten lagun guztiei sormen-metodologia hurbiltzeko asmoz; horretarako, dantza garaikideko saio praktiko bat egin du, mugimendua lantzeko.

Berezko programazioez gain, Azkuna Zentroak beste erakunde batzuekin lankidetzan aritu nahi du, espazioak eskainiz eta ordezkaritzak publiko-komunitate guztietara hurbilduz. Besteak beste, lankidetza hauek nabarmentzen ditugu:

### Xake Produkzioak-en “Lur”

Bilboko Zinegoak-en aurkeztu da, Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Gaylesbitrans Jaialdiaren 16. edizioan, eta trans pertsonen bizipenak aztertu ditu, familiei zuzendutako lan honetan.

### Loraldia jaialdia

Musika, hitza, zinema eta antzerkia darabiltzaten jarduerak eta ikuskizunak, euskarazko sorkuntza artistiko garaikidea ezagutzeko eta hartaz gozatzeko. Ekimen honen bidez, bat egiten dugu duela bost urtetik hona euskarazko kultura-ekoizpena sustatzeko eta hedatzeko Bilbon egiten den jaialdiarekin.

### Nazioarteko Dantza Jaialdia, Dantzaldia 2019

La Fundición aretoarekin antolatutako jaialdi honen barruan, Olivier Duboisen ‘My body of coming forth by day’ ikuskizuna izan da Azkuna Zentroan.

### Thorus Arts. Ferran Carvajalek eta Trevor Carlsonek

‘Not a moment too soon’ antzezlana aurkeztu dute; diziplina anitzeko lana da, eta dantza, testua, musika eta bideoa bateratzen ditu. Merce Cunningham koreografoaren eta Trevor Carlson zuzendari exekutiboaren arteko bizi-esperientzia kontatzen du.

### Bilbon eskolatik antzerkia

Bilboko Udalak, Mitusu Elkartearekin lankidetzan, arte eszenikoak hezkuntzarako tresna gisa erabiltzearen aldeko apustua egiten du, eta ikastaro honetan jarraipena ematen dio bide horri, ‘Bilbon Eskolatik Antzerkira’ programaren bidez.

### Arriaga Antzokia

Arriaga antzokiaren Mendi-Mendiyan operaren zuzeneko emanaldia.



# ESZENAKO JARDUEREN XEHETASUNAK

| PROGRAMA | EGILE / ARTISTA/ PERFORMER | AUDIENTZIA | BABESLETZA | DIZIPLINA |
|---|---|---|---|---|
| **'The Big Game'** | **Lokke /Olatz de Andrés** + 36dantzari | 390<br>80 ikasle | Dantzerti | Dantza+ ikasleentzako emanaldi berezia<br>SOLD OUT |
| **'Last Call/Stage'** | **Matarile** teatro, zuzendaria Ana Vallés + 10 artista | | | Deialdia / Antzerkia |
| **'Las muertes de los otros'** | **Moon Produkzioak** + 2 aktore | 80 | | Antzerkia<br>SOLD OUT |
| **'Sayonara Baby'** | **Kanpai**. Natalia de Miguel & Jorge Jauregui Allue + Niko Hafkenscheid | 72 | Co produkzioa Bilbao Eszena | Dantza/ performancea |
| **'Blur #1 & Pseudo-chamaleon'** | **Ibon Salvador & Joseph Simon** | 48 | Banc Sabadell, Etxepare, Dans Atelier | Dantza<br>SOLD OUT |
| **'Likes'** | **Nuria Guiu** | 44<br>52 ikasle | | Dantza |
| **'Corps noir'** | **Stéphane Gladyszewski** | 35 | | Dantza |
| **'Bajo el lecho marino un dragón'** | **Pablo Esbert Lilienfeld y Federico Vladimir Strate Pezdirc** + Carolina Pino y Andrea Fernández Botelho | 1.380 | | Dantza /Performancea<br>SOLD OUT |
| **'Daimon y la jodida lógica'** | **Matarile Teatro +** 13 artista | 180 | | Antzerkia |
| **'Ghero'** | **Tartean Teatroa** | 93 | | Antzerkia |
| **'Future Lovers'** | **La Tristura** | 169 | | Antzerkia |
| **'The Touching Community'** | **Aimar Pérez Galí** | 36 | | Dantza |
| **'Suddenly III'** | OSA + MUJIKA | 56<br>21 escolares | | Tailerra + Dantza |
| **'Lur'** | **Xake Produkzioak** +4 aktore | 203 | Zinegoak | Antzerkia |
| **LORALDIA** | | | Loraldia | Antzerkia /Musika/ Zinema |
| **'Zapatila gorridun mutikoa'** | **Ados Teatroa** | 1.175 escolares | MITUSU | Antzerkia |
| **'Not a moment too soon'** | **Thorus Arts. Ferran Carvajal y Trevor Carlson** | 187 | Dantzaldia | Dantza |
| **FONOGRAFIA** | **Ixiar Rozas** | 10 | Dantzan bilaka | Tailerra |
| **'My body of coming forth by day'** | **Olivier Dubois** | 101 | Dantzaldia | Dantza |
| **Bilbon eskolatik antzerkia** | Onírica Mecánica y Mons Dansa | 3.120 escolares | MITUSU | Antzerkia<br><br>SOLD OUT |
| **Mendi - Mendiyan** | José María Usandizaga y Calixto Bieito | 340 | Arriaga | Opera<br>SOLD OUT |
| **Coreoversaciones** | Thiago Granato | 20 | Dantzan bilaka | Tailerra |

# MUSIKA ESPERIMENTALA ETA SOINU-ARTEA

Musika diziplinaren barruan, Azkuna Zentroak bultzada eman nahi die musikalak edo melodikoak nahitaez izan ez arren musikarekin eta soinuarekin zerikusia duten esperientzia artistikoei.

Oier Iruretagoiena, Enrike Hurtado eta Mikel García soinu-artistekin lankidetza osatuta, urtean zehar programa bat aurkeztu da musika esperimentalaren eta soinuaren inguruan, HOTSETAN, horretan interesa duten artista, irakasle, nerabe eta beste publiko-komunitate batzuentzat.

Aurten, hainbat artistek musika esperimentaleko programazio interesgarria egin dute:

## Cellule D'intervention Metamkine

Barruan, Christophe Auger eta Xavier Quérel zinemagileek eta Jérôme Noetinger musikariak irudiaren eta soinuaren arteko harremana ikertzen dute. Horiekin batera, Garazi Gorostiagak musika elektronikoa, ordenagailuak eta sintetizadoreak eskaintzen ditu.

## Taku Sugimotok, Félicie Bazelairek eta Leo Dupleixek

Azken lana aurkeztu dute. Nazioarteko musikari horiekin batera, Andrea Berbois biolin-jole gipuzkoarrak eta Garazi Navas akordeoi-joleak ere parte hartu zuten.

## DIY (do it yourself)

Ordenagailu bidezko musika esperimentalari buruzko tailerra, Pure Datarekin, Enrike Hurtadok emana. Lantegi honetan, Pure Dataren hastapenak erakusten dira, soinua, musika eta ikus-entzunezkoak egiteko gure tresnak sortzen ikasteko.

## Julia Eckhardt + Asmus Tietchens

Asmus Tietchens musikari alemaniarrak, gaur egun musika elektroakustikoaren figurarik garrantzitsu eta errespetatuenetako bat denak, bere azken lanak aurkezten ditu, konposizioaren eta inprobisazio garaikidearen arloetan lan egiten duen Julia Eckhardt biolinistarekin batera.

## Pierre Berthet eta Rie Nakajima

Pierre Berthet (Belgika) eta Rie Nakajima (Japonia) dira musika esperimentaleko eta soinu-arteko Hotsetan programaren egonaldian parte hartzera gonbidatutako lehenengo artistak. Martxoaren 11tik 27ra bitartean, soinu-konposizio bat sortzen arituko dira, haien azkenaldiko sorkuntza-garaikideen ildo berean, oraindik orain musika esperimentalaren agertokian dagoenaren isla gisa.

## Miguel A. García & Ensemble

Musika elektroniko esperimentaleko erakusketa honetarako, tokiko hainbat artista eta musikarirekin aritu da elkarlanean, kontzertua baino lehen tailer batean lan egiteko.

## Jean-Luc Guionnet

Saxofoia, organoa, pianoa eta elektronika jotzen ditu, eta musikako proiektu askotan hartu du parte: taldeetan, hirukoteetan edo bakarka, kontzertuak edo soinu-instalazioak eginez.

## Alex Mcclean y Sarah Rasines.

Alex Mcclean eta Sarah Rasines artisten kontzertua, entzunaldia eta hitzaldia.

## Geoff Farina.

Secrets Stars edo Glorytellers Azkuna Zentrora - Alhóndiga Bilbaora iritsi da bere ahotsa eskaintzeko, gitarra zaharra lagun duela.

## La escucha Errante (Entzute alderraia)

Edizio honetako ardatz nagusia 'isolamendua' izanik, Performance, Live Electronics, Video eta Inprobisazio Elektronikoa ditu ardatz, kontzertuez, sinposioez, hitzaldiez gozatzeko, ideiak trukatzeko eta ikerketarako eta sormen-trukerako sareak ezartzeko.

## Pulse
Bidaia bat proposatzen du Big Datako ozeano handian, gure espazio-denbora tarteetan entzuten dugunaz elikatzen da. Espazio-datuen soinu-ikerketa erabiltzen du ez-leku batean kokatzeko.

## Polibrafón
Open Codes erakusketan sartutako soinu-instalazioa. Polybrafón neurri handiko musika-automata bat da, soinu-instalazio moduan eta, zenbait kasutan, zuzenean jotzeko instrumentu moduan ere funtzionatzeko diseinatua. Lau soinu-talde desberdin ditu, guztiak ere era akustikoan sortutakoak, sokei, latei eta metalezko hodiei soinua eragiten dieten hainbat mekanismo kolpatzaile, motore eta durundi egile elektromagnetikoren bidez.

Gainera, hiruhileko prestakuntza-esperientziak programatu dira, ikastetxeekin eta familiekin:

## Soinu-sorkuntzari eta inprobisazioari buruzko hiruhileko saio trinkoak
Ariketa praktikoak egingo ditugu taldeka, denbora errealean. Inprobisazio askea erabiliko dugu, ez helburu gisa ezinbestez; eta funtsezko garrantzia emango diogu entzuteari eta horren bidez egindako hausnarketari. Miguel A. Garcíak gidatuko ditu saioak, Enrike Hurtadoren eta Oier Iruretagoienaren laguntzaz.

## Tailer teoriko eta praktikoa
Oier Iruretagoienak emana, Jean-Luc Guionnet-en laguntzarekin. Modu ludiko eta atseginean, gaur egungo musika esperimentala eta soinu-artea hurbiltzen dizkie 14 eta 20 urte bitarteko gazte eta nerabeei, DBHko, arte-batxilergoko eta soinuarekin lotutako lanbide-heziketako moduluetako ikasleei.

## Gabonak Arte programaren barruan
Mendizabal aurkezten da haur eta familientzat; musika-tresnen eraikuntza eta soinu-espazializazioa ditu ezaugarri, eta, askotan, ezohiko formak hartzen ditu, hala nola film itsuak, mugimenduan dauden kontzertuak edo urpeko musika.






# MUSIKAREKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUEREN XEHETASUNAK

| PROGRAMA | ARTISTA | AUDIENTZIA | DIZIPLINA |
|---|---|---|---|
| Cellule D'intervention Metamkine+ Garazi Gorostiaga | zinemagileak: Christophe Auger y Xabier Quérel, Musikaria: Jérome Noetinger Artista: Garazi Gorostiaga | 36 | Musika/ Entzunaldi |
| Taku Sugimoto, Félicie Bazelaire y Leo Dupleix + Andrea Berbois y Garazi Navas | Taku Sugimoto, Félicie Bazelaire y Leo Dupleix + Andrea Berbois y Garazi Navas | 61 | Musika/ Entzunaldi |
| Pierre Berthet & Rie Nakajima | Egonaldi artistikoa | 71 | Hitzaldia / Kontzertua |
| Julia Eckhardt & Asmus Tietchens | 2 artista | 68 | Musika/ Entzunaldi |
| Miguel A. García & Ensemble | Miguel A. García | 45 | Musika/ Entzunaldi |
| Jean- Luc Guinnet y Lotus Eddé Khouri 'Reciprocal scores' | Jean- Luc Guinnet y Lotus Eddé Khouri Artista egoilarrak | 50 | Musika/ Performancea |
| C Alex McLean y Sarah Rasines | C Alex McLean y Sarah Rasines | 32 | Musika/ Entzunaldi |
| Geoff Farina | Geoff Farina | 28 | Musika |
| La escucha Errante | Klem, Laboratorio de música electrónica | 325 | Musika |
| Do it yourself. Música experimental por ordenador con Pure Data | Enrike Hurtado | 13 | Tailerra |
| Encuentros de creación sonora e improvisación | Miguel A. García | 18 | Topaketa |
| Talleres de introducción a la música experimental | Oier Iruretagoiena | 129 ikasle | Tailerra |
| Pulse | Laboratorio Klem | 24 | Musika/ Entzunaldi |
| Polibrafon | Tunipanea | 11 | Soinu Instalazioa |

# MUSIKA

Musika-programa urtean zehar, Azkuna Zentroko Atarian eta Auditorioan kontzertuak eginez. Helburuetako bat da Bilboko musika eskaintza osatzea eta hobetzea, proposamen berritzaile, pertsonal eta abangoardistekin, gaurkotasuna beste parametro batzuetatik lantzen, talentuaren eta arriskuaren aldeko apustua eginez.

2019an 5 kontzertu izan dira:

### Molly Nilsson
Berlinen bizi den artista suediarrak Night Schoolek argitaratu duen Twenty Twenty LP berriko kantuak aurkeztu ditu. Artista honek bere kantak konposatu, idatzi, ekoitzi eta nahasten ditu, gaur egungo pop sintetikoaren esparruan.

### Sun Arraw
Cameron Stallones aka Sun Araw artista kaliforniarrak, John Leland perkusionistarekin batera, oihartzun, sample, ahots eta gitarra hedakorreko noten esperientzia eskaintzen digu, elektronika, psikodelia, dub, funk eta reggae nahastuz.

### Unclose
Iskandar Rementeriak (ahotsa, gitarra, sintetizadoreak eta programazioak) eta David “Deibol” Rodriguezek (bateria akustikoak eta elektronikoak) osatutako bikote bilbotarra. Txufo Wilson (aka Empty Files) izaten dute lagun zuzenekoetan, teklatuak joz. Taldea osatzen dute José Lastrak, zuzeneko produktore eta teknikariak, eta Ainara Ipiñak, taldearen zati bisuala garatzen duenak (argazkia, bideoak, irudiak eta web diseinua).

### Linn da Quebrada
Artistak Pajubá LPa aurkeztu du Az-n. Letrak portugesez daude beti bezala, eta sexualitate falozentristaren kritika zorrotza dira, umore-ukitu batez eta taburik ez duen sexualitatez gainezka.

### Sole Parodyren musika-proiektua da Le Parody
Espainiako kantari eta musikagile honek pop iluna, folklorea eta elektronikoa bateratzen ditu bere kantuetan.

Musika-programazioaren barruan, beste erakunde batzuek antolatutako kontzertuak ere sartzen dira; hala, musika-eskaintza zabaldu, eta bisitariei Zuzeneko arteak osatzen dituzten musika-alternatibak eskaintzen zaizkie. Besteak beste, kontzertu hauek:

### Bilboko Musika Bandak
Bi kontzertu berezi eskaintzen ditu Kulturen Atarian, Borja Martínez Alegreren zuzendaritzapeko ‘topaketak’ dakartzaten errepertorioekin.

### BARRUAN Sybth pop
Tropikalismoa eta musika elektronikoa. Musika eta gastronomia berriak ezagutzeko ibilbide urbanoa.

### BIME
Taller Trakamatraka, Quiero ser DJ, Concierto Billy Boom Band.



# MUSIKAREKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUEREN XEHETASUNAK

| PROGRAMA | ARTISTA | AUDIENTZIA | DIZIPLINA |
|---|---|---|---|
| Molly Nilsson | Molly Nilsson | 200 | Musika/ Kontzertua SOLD OUT |
| Sun Araw | Sun Araw + John Leland | 75 | Musika/ Kontzertua |
| Unclose | Unclose (dúo) | 150 | Musika/ Kontzertua |
| Linn Da Quebrada | Linn Da Quebrada | 150 | Musika |
| Le Parody | Le Parody | 54 | Kontzertua |
| Bilboko Udal Musika Bandaren kontzertuak | | 825 | |
| BARRUAN Sybth pop, tropicalismo Musika elektronikoa | Soledad Vélez, Polynation (Stijn Hosman y Hessel Stuut) Bronquio, Ruiseñora (2), Los Voluble, Los Manises | 340 | Kontzertua |
| BIME | Taller Trakamatraka, Quiero ser DJ, Concierto Billy Boom Band | 400 público familiar | |
| Molly Nilsson | Molly Nilsson | 200 | Musika/ Kontzertua SOLD OUT |
| Sun Araw | Sun Araw + John Leland | 75 | Musika/ Kontzertua |
| Unclose | Unclose (dúo) | 150 | Musika/ Kontzertua |
| Linn Da Quebrada | Linn Da Quebrada | 150 | Musika |
| Le Parody | Le Parody | 54 | Kontzertua |
| Bilboko Udal Musika Bandaren kontzertuak | | 825 | |



# 04.
# GIZARTEA



**25.413**
bertaratu

**37**
jarduera

**65%**
berezko programazioa

**46**
artista

**24**
nazioarteko programa (smART places)

**%38**
familiako eta eskolako publikoa



Gizartea programazio-ildoan, harreman etengabea eta bi norabidetakoa dugu, gure errealitateaz ikertzen eta sakontzen duten programen, eztabaiden, sinposioen eta proiektuen bidez, gogoeta-, kritika-, diseinu- eta komunikazio-arloko profesionalekin.

Gizartean, publiko desberdinentzako programazio-ildoak garatzen ditugu, bokazio artistikoak pizteko eta kultura gizartera hurbiltzeko. Horra hor, esaterako, Gabonak Arte, haurrei eta familiei zuzendutako Gabonetako programa.

Europako smARTplaces programaren parte gara, eta horren bidez, eta Europako beste 8 zentroren laguntzarekin, lanean aritzen gara gure publiko-komunitateen esperientzia hobetzeko

# GABONAK ARTE.

## Gabonak Arte. Esperientzia artistikoak haurrentzat eta familientzat.

Gabonetan egiten den programa kultural, ludiko-hezitzailea da, eta esperientzia artistikoak proposatzen ditu haurrentzat eta familientzat, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren programazioarekin esperimentatzeko. Jarduerek sorkuntza garaikidea hurbiltzen dute egunero, eta, horrela, ikaskuntza normalizatzen dute, artearen eta artisten bidez. Esperientziek pentsamendua sustatzen dute, eta publikoen sormen-gaitasunak eta -trebetasunak garatzen dituzte, publikoak protagonista bihurtuz eta haien jakin-mina sustatuz.

Gabonak Arte esperientzia sortzaile eta ludiko horien protagonista izateko gonbita da, harritzeko, esperimentatzeko eta jakin-mina bultzatzeko, tailer, antzerki eta instalazioen bidez.

## TAILERRAK:

### Sra. Polaroiska tailerra.

Hainbat belaunalditako pertsonekin maitasunaren kontzeptuari buruz eta hartaz dugun heziketari buruz hausnartzeko laborategia. Genero musikala erreferentzia gisa hartuta, dantza, instalazioa, ahotsa, gorputza eta mugimendua zeharka lotzen dituzten hainbat narratiba ikertzen dituzte. Esperientzia-multzo bat garatu nahi da, gorputz batzuen eta besteen arteko harremanak eta haien arteko topaketak sorrarazteko.

### Lorategian.

Areto multisentsorial honetan espazio interaktiboak daude, berariaz diseinatuak zentzumenak pizteko eta esperientziak sortzeko, haurrei laguntza emateko hautematen dituzten sentsazioak esanahiz hornitzen. Argien, lurrinen, musikaren, soinuen eta ehunduren bidez... baretasunez, segurtasunez eta babesaz beteriko giroa birsortuko da, haurrei esploratzera eta jolastera gonbit egiteko.

### Hitz Raining, Mediateka BBK-ko tailerra.

Hitzek Atariko Argizuloa inbaditzen dute, eta Mediateka BBK-ren espazioan erabiltzen ez diren hitzak berreskuratu eta berriak sor daitezke, esaterako, hizkiekin eta hiztegiarekin praktikatzeko den Hitz jarioa jokoaren bidez. 3.000 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte programan.

### 43 ibilbiderantz.

Gorputz-hizkuntza plano asko barnean hartzen dituen adierazpidea da, eta dantza da gorputz-hizkuntzarik behinena. Gizakiaren parterik garrantzitsua da gorputza, gure gogoaren garraiobidea izateaz gain, inguruan duguna sentitzeko dugun bidea ere baita, komunikatzeko, eragin-trukea izateko eta bidaiatzeko darabilguna...
43 ibilbiderantz gorputzarekin egindako esperientzia eta bidaia bat da, lagunartean eta zentzumen guztiekin eginda. Kulturen Atariko espazio magikoa biziberritzeko beste modu bat.



## Paisajes lúdicos (Paisaia ludikoak) lanaren inguruko tailerra/ instalazioa

Laborategi honek Hutsaren etxeak birziklatutako eta egindako materialak erabiltzen ditu, eta Leticia Paschetta artistaren Paisajes lúdicos lana du ardatz. Zuzeneko musikaz lagundurik, hutsunea arakatzen du plano desberdinetan, material zuriak beren naturan landuz, esate baterako, igeltsua eta klariona.

Bat-batekotasuna eta esperimentazioa jorratzen dira, sormena eta talde-lana sustatzeko asmoz, eraikitzeko prozesuaren bidez, nork bere egiturak eraikiz, diseinatuz eta sortuz, era aske eta autonomoan. Tailer/instalazioak hutsunea aztertzen du, jarrera topologiko batetik, hau da, haren esentzia, egitura eta izateko arrazoia bilatuz, eta alderdi formal desberdinetatik hutsunea landuz: musikatik, bi dimentsioetatik eta hiru dimentsioetatik.

## Nail Dance.

Javier Vaquerorena. Tailer performatibo bat da, art-attack programa baten eta bio-dantza saio baten arteko bide-erdian kokatua. Tailerrak maritxu-itxura hartzeko era eta luma lantzen ditu, elkarren artean harremanean dauden bi aldetatik. Alde batetik, azazkalak eta fantasiako manikuraren artea dago. Bestetik, dantza, gorputzen adierazpide maneratsu gisa hartuta.

Tailer honen bidez, espazio bat eduki nahi da, guk geuk manikura inprobisatua sortu ahal izateko, era askotako materialak erabiliz, esaterako, paperak, zinta itsasgarria, azazkaletako laka, purpurina etab. Eta, gero, dantza kolektiboko saio batean murgildu, gure gorputzen adierazkortasunarekin jolasteko, batez ere eskuekin eta eskuek komunikatzeko duten gaitasunarekin. Tailerraren xedea da jolasteko sail bat sortzea, familiek (kontzeptu hedatu gisa hartuta) aukera izan dezaten harremanetan jartzeko, azaltzeko eta elkar ezagutzeko eta berrezagutzeko, eguneroko bizitzan ohikoak ez diren tokietatik.







## ANTZERKIA ETA PERFORMANCEA:

### Bapateko istorioak.

Hondartza instalazioan kokatzen da proiektua, denboran geldirik dagoen hondartza batean. Bi emakumek, Miss karusak eta Womanek, hondartza horretara sartzera gonbidatzen gaituzte, eta hitz egiten digute inguratzen gaituen landare- eta animalia-mundua ulertzeak eta miresteak duen garrantziaz. Instalazio honek Man de Camelle omentzen du, itsasorako, arterako eta naturarako bizi izan zen artista.

Proiektu hau Mama Creak Azkuna Zentroarentzat sortutako ekoizpen espezifikoa da.

### Full House.

Eléctrico 28 konpainiarena (Alina Stockinger, Sergi Estebanell, Jordi Solé, David Franch). Fabula moderno honek hiriko bizikidetza, desberdintasuna eta aurreiritziak gainditzeko modua lantzen ditu.

Testurik gabe, antzerki fisikoaz eta zuzeneko musikaz, ikuskizunak aterik ate bizi diren Koala, Dog eta Horse auzokoen istorioa azaltzen du. Hain daude lanpeturik beren buruarekin eta eguneroko gorabeherekin, non ez baitira ohartzen besteak alboan bizi direla. Egun batean, Tigerrek gainerako maizterrak gonbidatzen ditu jai batera, eta dena aldatzen hasi da. 1.000 pertsona inguru izan ziren lau emanaldietan.

### Pequeño Big Blue.

Proposamen plastiko honetan, keinua, dantza eta arte bisualak harremanetan jartzen dira, eta esperientzia pizgarria eskaintzen dute, txikienen eta haien laguntzaileen jolasteko grina akuilatzeko; bidean, denok ezagutuko ditugun emozio batzuk aurkituko dituzte.

Pequeño Big Blue handia eta urdina da. Handia, urdina eta oso kuxkuxeroa. Jakin-minak hainbat egoeratara eta tokitara eramaten du, eta gero ez daki horietatik nola atera. Zorionez, Ene du alboan, beti bera laguntzeko prest. Pequeño Big Bluek pixkanaka ikasi behar du bera bakarrik moldatzen.

### Lo mínimo, Jorge Dutor, Guillem Mont de Palol eta Cris Blancorekin.

Toki batean zaude, ez dakizu nolakoa den, eta ez dago aztarna askorik hori jakiteko: hiru oihal, apar goma eta makila batzuk. Txirrinaren hotsa. Laranja kolorekoa sartu da. Kontuz txakurrarekin. Emanaldiaren erdian, ikuskizunaren hasiera sabaitik erortzen da: begira hori. Aterako naiz. Txirrinaren hotsa. Badirudi kanpoan euria egiten duela. Kantatuko dugu kantua?
Gezur-joko bat, gutxieneko ekintzen, ustekabeko mini ikuskizunen jokoa. Lo Mínimo umoreak zeharkatutako harriduren espazio bat da, egunerokotasuna sublimatzeko prozesuko leku bat, txikia eta gutxienekoa.

### Safari.

La Baldulfa konpainiarena eta Ramón Molins eta Aitor Fernandino (Piñote) eta Karlos Nguema (Kalabazin) aktoreena. Leunki jorratzen du bullying-aren auzia, sabanako animaliak erabiliz horretarako.

Piñotek eta Kalabazinek sabanara jo dute, lehoia modu misteriotsuan desagertu dela jakin ondoren. Ikertzeko lanean, galdeketa egin diete jirafari, tximuari, elefanteari, krokodiloari...; eta, abentura betean daudela, lehoiarekin egiten dute topo, burumakur eta triste, orro egiten ere ez dakiela. Auzia argitzeko eta lehoiari laguntza emateko borondate sendoz, La Baldufako detektibe ausartek ahalegina egingo dute nahigabe horren arrazoiak zein ote diren jakiteko.





### Meri, Mari eta Lari.

Meri, Mari eta Lari ipuin eta kantuz osatutako antzezlana da. Ipuinak sexu eta genero aniztasunaz ari dira, familia eredu ezberdinez, beldurrak baztertzeaz eta, azken finean, askatasunaz. Ikuskizunak biltzen dituen abestiak Yogurinha Borovarenak dira, "Sentipenak askatu" diskoarekin ikusle gazteagoengana iritsi nahian argitaratutako kantak. Galder Perezek idatzitako eta Maria Urcelay aktoresarekin batera sortutako ikuskizun hau umeei zuzenduta dago, baina adin guztietako lagunentzat da aproposa. Oraindik ere, denok dugulako sentipenak askatzeko beharra eta gogoa.

### Crassh Babies.

Konpainiak (We tum tum. Bruno Estima eta Artur Carvalho) era berezian bateratzen ditu perkusioa, mugimendua eta komedia bisuala, dena baita aitzakia soinua sortzeko energia kutsakorrez. Sonoritate desberdinak erabiltzen ditu, ahotsa, pvc-zko hodiak edota eguneroko objektu arruntak, dena baita lagungarri txikienen zentzumenak pizteko, eta gurasoen eta seme-alaben artean une gogoangarriak sorrarazteko

## INSTALAZIOAK:

### Paisaia ludikoak, Zuriz jolastu, Leticia Paschettarena.

Artearen, diseinuaren eta jolasaren arteko mugak aztertzen ditu, espazioen bidez esperientziak sortuz eta gure pertzepzioei aurre eginez oroitzapen eder gisa iraunarazteko.

«Ehundurak, soinuak eta lurrinak sentitzea gorputza forma apartsuen artean hondoratzen den bitartean». Zuria trantsizio- eta eraldaketa-espazio bat da, figura eta hondoa urtzen dituena; espazio horretan, instalazioa egitate materialetik haratago doa, zentzu artistikoa haren barruan hedatzen den mugimendu aldakor eta zehaztugabetik sortzen da, eta paisaia, aukera-mundu, sentsazio eta askatasun-estimulu bihurtzen.

## BIBLIOGRAFIA-PUNTUA

Mediatekak egin duen irakurketa-gida honetan, bizi garen munduari buruzko begirada bat azaltzen dugu, klima-aldaketak arriskuan jartzen duen habitata baita.







# SMART PLACES PROIEKTU EUROPARRA

**smARTplaces** audientziak garatzeko Europako proiektu bat da. Azkuna Zentroak aktiboki parte hartzen du, kultura garaikidean eta ikerketan Europan erreferentzia diren 8 zentrorekin batera.

Lau urtean 4 milioi eurotik gorako aurrekontu globalarekin, Azkuna Zentroak 459.704 euroko partaidetza du, Europak batera finantzatuta.

smARTplaces proiektuan parte hartzen duten zentroek modu berriak bilatzen dituzte ikusleekin harremanak izateko, ez soilik zabaltzeko, beren zentroetara joaten diren pertsonen esperientzia hobetzeko ere bai. Zehazkiago, smARTplaces-ek bi helburu ditu:

Audientziak partekatzea dauden tresnak erabiliz.

Bitartekaritzaren eta hezkuntzaren arloko esperientziak trukatzea. Proiektuaren bidez, zentroetako bisitariak artistekin eragin-trukean aritzea lortu nahi da, jardueretan parte har dezaten dauden kanal berriek (sare sozialek, pantailek, teknologiak, etab.) ematen dituzten aukerak aprobetxatuz, kultura herritarrei hurbiltzeko, batez ere gazteenei.

smART places sarea zazpi kultura-erakundek eta zortzi herrialdetako bi unibertsitatek osatzen dute:

**Dortmunder U, Dortmund** (Alemania), proiektuaren burua.

**ZKM I Center for Art and Media, Karlsruhe** (Alemania)

**Musée de Picardie, Amiens** (Frantzia)

**ETOPIA – Arte eta Teknologia Zentroa**, Zaragoza

**Azkuna Zentroa**, Bilbo

**Van Abbemuseum**, Eindhoven (Herbehereak)

**Wiels**, Bruselas (Belgika)

**Birmingham Centre for Media and Cultural Research, Birmingham City University** (Erresuma Batua)

**Oulu University of Applied Sciences, Oulu** (Finlandia)

Ezin da ahaztu, AZren ikuspegitik, proiektuak bete-betean laguntzen diola bere nazioarteko estrategiari eta Hezkuntza eta Bitartekaritzan duen estrategiari. 2019an sarearen koordinazioko bi bilera presentzial egin dira (Steering Committee), Amiensen (ekainean) eta Bilbon (azaroan).

Azkuna Zentroan, smARTplaces programaren esparruan, ondoko jarduerak egin ziren; haietako asko dagokion ekarpen-arloan zehaztu dira, batez ere Kultura garaikidean eta Kultura digitalean. Beste batzuk Gizartearen arlo honetakoak dira batez ere, hala nola Konektatu, mapa interaktiboa eta gure AZ webgunea:

**3 PROIEKTU ESTRATEGIKO.**

**The work of art.** Online eztabaida (Kultura digitala)

**U R ART- Identidata.** Identitateari buruzko instalazioa
eta ekitaldi birtuala

**Conecta.** Nazioarteko 3 hitzaldi, eragileek dituzten ezagutzak partekatzeko, arlo birtualetik eta analogikotik audientziak erakartzeko tresnez edo proiektuez.

5 LANKIDETZA-PROIEKTU.

Art of skate. Egonaldia eta esku-hartzea Fatxada proiektuan (Kultura garaikidea)

Media façade. Eguzkiaren pantailarako pieza (Kultura digitala)

Bideo-jokoa. Mediateka BBK espazioa

Open Codes erakusketa. (Kultura garaikidea)

Urban blind date. (instagram @urbanblinddate bidezko trukea).

AZKUNA ZENTROAREN BARNE IZAERAKO 4 JARDUERA:

Web orria, informazioa ingelesez, Bilbora etortzen diren atzerritarrei interesatu ahal zaizkien gaiei buruz

Gutun Zuria. Jakinarazten diren jarduerak streaming bidez ingelesez emititzea (Literatura)

Gure webgunearen mapa interaktiboa 360°

Bitartekaritza. Komunikaziotik: Sare sozialetan eta bere storytelling-ean lan egitea, eta laguntza ematea erakusketetako bisita gidatuetan eta PlayTime proiektuan.

# AZKUNA ZENTROAN IZAN DIREN BESTE PROIEKTU BATZUK

Bilbao European Encounters 2019. Nazioarteko biltzarraren formatuan, Globernance-Europako Gobernantzaren Institutuak Europa osoko lehen mailako pertsonalitate akademikoak bildu ditu, demokraziaren eta haren erakundeen egungo erronkei buruz eztabaidatzeko. Aurten, Daniel Innerarity filosofoak bere ibilbide osoan egindako lana du ardatz, “Demokrazia Europan” lanean laburtua. HIZLARIAK: Debora Spini Kalypso Nicolaïdis, Francis Cheneval, Miguel P. Maduro, Jo Show, Pierre Rosanvallon, Philippe Van Parijs, Sofia Näsström, José Luis Martí, Erik Oddvar Eriksen, Ulrike Liebert, Nicola McEwen.

Gau zuria. Ekainaren 14ko eta 15eko gauetan, Sfera lana izango dugu ikusgai: argi eta soinu erreaktiboen instalazioa, hemisferio itxurakoa, ispiluen matrize batean islatuta.

Berbagunea. Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbao aurten ere Berbagunearen agertokia da: Bilboko euskaltegien sarearekin lankidetzan Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako topagunea, euskararen eguneroko erabilera sustatzen duena.

“Euskaraz hitz egitea, euskara partekatzea eta euskaraz” lemapean, Berbagunea espazio ireki gisa eratzen da. Bizkaiko gizarte-, ekonomia-, kirol- eta politika-arloko adin guztietako ehunka euskaldun berriek eta euskaldun zaharrek parte hartuko dute Kultura Atarian, egun osoan zehar, hizketan lasai aritzeko izango diren txanda hauetan.

basque FEST. Euskal kulturaren eta abangoardiaren jaialdia.
Kulturen Ataria izan da Aste Santuan izaten den basque FEST euskal kulturaren eta abangoardiaren jaialdiaren laugarren edizioaren agertokietako bat. Bilbotarrak eta Aste Santuan Bilbora etortzen diren bisitariak jaialdi honetaz gozatu ahal dira, artearen, kirolaren edo gastronomiaren bidez gure euskal kultura hiritar eta kosmopolitako tradizioa eta modernitatea nola uztartzen diren erakusten duen programazioarekin. Azkuna Zentroan aurten hamar ekitaldi izan dira, zuzeneko musikakoak eta haurrentzako jarduerak:
5 kontzertu: Errobiko Festibala + Kalakan, Niko Etxart, Enkarguz (Andoni Egaña eta Xabier Zabala), Audience, Oreka TX eta San Salvador.
Haurrentzako 3 antzerki ikuskizun: Enaren Kontuak, Circo-Teatro Prozak, Plaza Girotuz.

# 05. KULTURA DIGITALAK



**19**
jarduera

**14**
artista

**130**
parte-hartzaile

**31%**
publiko familiarra

**754**
programazio-egun



Kultura digitalarekin harremana duen programazio-ildo hau formulatzeko, online programazioa jorratzen dugu bideo-jokoarekin eta joera berriekin.
Adin gazteagoetan espezializatuta dauden hedabideetako profesionalekin eta publikoarekin lan egiten dugu, kultura digitalarekiko eta teknologiarekiko interesa pizten duten hezkuntza-proposamenen eta tailerren bidez.

# KULTURA DIGITALAK

Kultura digitalarekin harremana duen programazio-ildo hau formulatzeko, online programazioa jorratzen dugu bideo-jokoarekin eta joera berriekin.
Adin gazteagoetan espezializatuta dauden hedabideetako profesionalekin eta publikoarekin lan egiten dugu, kultura digitalarekiko eta teknologiarekiko interesa pizten duten hezkuntza-proposamenen eta tailerren bidez.

## HARITU. KULTURA DIGITALEKO ETA TEKNOLOGIAKO LABORATEGIA.

Bestalde, Kultura Digital eta Teknologiako laborategia toki egokia da hausnartzeko eta auzitan jartzeko zer-nolako eragina duen teknologiak gure egunerokoan. Herritarrek zabalik dituzte espazio honetako ateak; hurbiltzen diren guztiek izango dute aukera teknologiak probatzeko, esaterako, fabrikazio digitala, programazioa edo elektronika. Hauei zuzenduta dago:

Familiak: gunea irekirik dagoen egunetan, familiei proposatzen zaie proiektu erraz, dibertigarri eta hezigarriak elkarrekin egitea.

Egoera ahulagoan egoteagatik teknologiarik ez duten kolektiboak; kolektibo horien prestakuntza sustatzen da gizartera daitezen.

Gazteak eta emakumeak: fabrikazio digitaleko eta soinu elektronikoko teknologien hastapen-tailerrak.

Ikertzaileak, hezitzaileak eta herritarrak oro har: teknologiak nola eragiten digun modu kritikoan partekatzeko, alderatzeko eta hausnartzeko tokia dute.

## TAILERRAK

Teknologiaren eta fabrikazio digitalaren hastapenak
Sintetizatzen: soinu elektroniko eta pentsamendu konputazionalerako sarrera
Laborategiko teknologiaren hastapenak
Infrasonoras
Camp Tecnológico: Robotika, programazio eta diseinuko tailerrak

## CULTURE LAB, PROIEKTU ARTISTIKOEN KOMUNIKAZIO DIGITALA

Camp Tecnológicok teknologiari lotutako hainbat jarduera antolatzen ditu urtean barrena, 14 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta Kanpamendu, asteburuko klub edo ikastaroaren formatua hartuta, hezkuntzako proposamen hauek zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematikarekiko interesa pizten dute gazteengan.

## CULTURE LAB. PROIEKTU ARTISTIKOEN KOMUNIKAZIO DIGITALA

Honakoek ematen dute Laborategia: Abhay Adhikari, Sarah Gillett, Sharna Jackson, Ramya Rajaraman, Tom Higham eta Cori Moorek. Tailer eta jarduera batzuen bidez, aukera ematen da proiektu artistikoak ezagutarazteko jakintza digital berriak ikasteko; era berean, zenbait teknika eta tresna aztertzen dira, teknologia digitalaren bidez adierazpen-forma berriak garatzeko eta eraldatzeko.

Gainera, proiektu honek online egoitza bat zuen;Laborategiko parte-hartzaile guztien artean, hamar aukeratu ziren, Digital Identities taldearen 3 hilabeteko online egonaldian parte hartzeko. Programaren amaieran Knowledge Exchange Forum hitzaldia izan zen, eta hiru egoiliarrek beren proiektutan egindako lana bateratu zuten.

## JOKU PLAY

JokuPlay Azkuna Zentroak jokoari eskainitako espazioa da, joko tradizionalen eta teknologikoen bidez esperientziak partekatzekoa. JokuPlay Kultura Digitalaren programazioan sartuta dago, eta gailu mugikorrak, kontsolak eta ordenagailuak ditu, indarkeriazkoak edo sexistak ez diren jokoekin plataformetan jokatzeko. Horrez gain, bideo-jokoei buruzko bibliografia espezializatua dago eskuragarri, eta etxerako mailegurako diren bideo-jokoen bilduma zabal bat ere bai.

Bideo-jokoetan eta haien alderdi psikologikoan espezializatuta dauden adituek egin dute bideo-jokoen aukeraketa, eta Mediateka BBK-k gainbegiratu egin du. Postu bakoitzean jokoaren ezaugarriei buruzko informazioa eman, eta jokoa erabiltzeko gomendatutako adina adierazten da, PEGI sistemari jarraiki, hau da, Jokoei buruzko Informazio Erakunde Paneuroparrak finkatutako adinaren araberako sailkapen-sistema betez. Jarduera honi buruzko informazio gehiago Mediatekako Zerbitzuan.

## MEDIA FAÇADE ACADEMYKO ESKU-HARTZE ARTISTIKOAK

Media Façade Academy, smARTplaces europar proiektuaren barruan, egonaldi artistikoen programa bat da. Diziplina askotako profesionalek eta ikasleek beren burua prestatzen dute, tamaina handiko euskarri digitaletan jartzeko moduko pieza argitaragabeak sortu eta garatzeko, esate baterako, Azkuna Zentroko Eguzkiaren Pantaila, Etopia zentroko fatxada edo DoUko pantailetarako.

Hiru artistak pieza bat sortu dute ad hoc Eguzkiaren pantailarako:

**Noelia Marín**ek "Ohitura, habitatzea, bizi izatea" aurkeztu du; voyeur begirada aztertzen duen pieza honetan, Kulturen Atariaren inguruko espazioko bideo-laginek jaso ditu.

**Martín Etxauri**k "Kuboen basoa okertutako leihoan" izeneko proiektua proposatzen du, non hausnarketa egiten baitu pixelizazioaren izaeraz eta izadiaren pixelizazioaz, Eguzkiaren pantailak dituen ezaugarrietara eta espazioan duen presentziara egokituta, piezari hiru dimentsio emanez.

**Sergio Monje**k "Galderak ile-mozte berri baterako" esku-hartzearen egokitzapen bat aurkeztu du. Pieza Eguzkiaren Pantailarako sortu du ad hoc, eta etorkizuneko post-lanaz hausnartzen du: makinek gero eta gaitasun handiagoa dutenez ekoizteko, gizakien lana ordezkatzen dute, automatizatuz, eta, historian lehen aldiz, atea zabaltzen dute lanetik askatzeko aukera izateko.

## ONLINE HITZALDIAK. THE WORK OF ART

smARTplaces proiektuaren esparruan sortu eta Az-n diseinatutako 'The work of art. Live dialogues' elkarrizketen online programa bat da. Online programa honek 'Facebook live'-ko zortzi elkarrizketa ditu, eta arte-lanari eta -prozesuei buruzko gogoetak jasotzen ditu, zenbait partehartzaileren bidez. Aurten, aro digitaleko artea, enpresa eta generoa jorratuko ditu, hitzaldi hauekin:

"Craft, Enterprise and Gender in the Digital Age", Dr. Annette Naudin, Dr. Karen Patel eta Paul Long.

"Conecta. Centros de cultura contemporánea", Betisa Ojanguren, Santiago Latorre, Hester Hersonius.

"Cosmism", Melvin Moti, Steven ten Thije.

"Can't make it to the museum?", Cléa Coudsi, Aurelié Maguet.

## BESTELAKO JARDUERAK

Arte Garaikidearen arloan, arte digitaleko osagai duten jarduerak programatu dira, hala nola "Identitate kuantikoa" (Eguzkiaren pantaila), "Open Codes" erakusketa eta bere programa publiko guztia, edota Knowlege Exchange-ren hitzaldia/mahai-ingurua. Arte Garaikidean deskribatu diren jarduerak.











| PROGRAMA | | KOMISARIOTZA ETA ARTISTAK | LOTURAK | EGUN | DIZIPLINA | AUDIENTZIA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Haritu. Kultura digital eta teknologiako laborateg | Haritu | Oihane Zarate, Iratxe Menchaca, Lorea Argarate, Alberto Martínez, Jabi Luengo, Alfonso S. Uzábal eta Pablo Rey Mazón,Margarita Padilla, Diana Franco Eguren | EDE-Suspergintza Fundazioa | | | |
| | Teknologia eta fabrikazio digitalaren hastapenak | | | 30 | Tailerra | 36 |
| | Sintetizatuz: Soinu elektronikorako eta pentsamendu konputazionalerako sarrera | | | 60 | Tailerra | 12 |
| | Laborategiko teknologiaren hastapenak | | | 6 | Tailerra | 20 |
| | Infrasonoras | | | 2 | Tailerra | 12 |
| Joku play | joku play | | | 365 | Espazioa | Mediateka bbk |
| Talleres | Robotika Tailerra | | Camp Tecnológico | 60 | Tailerra | |
| | Zinema fantastiko esperimentaletik bideo-jokoetara | Mikel Calvo eta Jorge Núñez | Fant | 1 | Hitzaldia | |
| Culture lab | Proiektu artistikoen komunikazio digitala nola hobetu aztertzeko | Digital Identities. Abhay Adhikari, Sarah Gillett, Sharna Jackson, Ramya Rajaraman, Tom Higham and Cori Moore | | 30 | Tailerra | 10 |
| Media Façade Academy | Instalazio artistikoa | Jaime de los Ríos, Noelia Marín, Martín Etxauri eta Sergio Monje | SmARTplaces-Etopia | 12 | Instalazio artistikoa | |
| Conferencias on line The Work of Art | Craft, Enterprise and Gender in the Digital Age | Dr Annette Naudin<br>Dr Karen Patel and<br>Paul Long | SmARTplaces-Birmingham University | 1 | Hitzaldia | online |
| | Conecta. Centros de cultura contemporánea | Betisa Ojanguren, Santiago Latorre, Hester Hersonius | Centro Huarte, Etopia | 1 | Hitzaldia | online |
| | Cosmism | Melvin Moti , Steven ten Thije | SmARTplaces. Van abbe Museum | 1 | Hitzaldia | on line |
| | Can't make it to the museum? | Cléa Coudsi, Aurelié Maguet | SmARTplaces Musée Picardie | 1 | Hitzaldia | on line |
| Beste jardunaldiak | Identitate Kuantikoa | Clara Boj eta Diego Díaz | smARTplaces. Identidata. URART | 90 | Atrioko pantaillan egindako esku-hartze artistikoa | 13.000 |
| | Mesa redonda Knowledge Exchange Forum | Abhay Adhikari, Horman poster, Zirkozaurre, Not a Soho | | 1 | Hitzaldia | 30 |
| | Open codes. We are Data | | Open codes | 90 | Erakusketa | 11.424 |
| | Bilbao Maker Faire. | | Open codes | 3 | Jaialdia/ Tailerrak | 40 familia |



# 06.

# LITERATURA



**3.950**
entzule

**28%**
ikasle

**27**
Az-k programatutako jarduerak

**51**
egile eta artista

**5**
programa euskaraz




Hitzen bidez adieraztearen artea da literatura, gure iritziz, eta jardunean lantzen ditugu adierazpen idatzia eta ahozkoa. Bultzada ematen dugu irakurketa, idazketa, ahozko transmisioa, eleberri grafikoa, komikia... ikertzeko, horretaz eztabaidatzeko eta hedatzeko. Ibilbide desberdinak dituzten bertako eta nazioarteko profesionalekin egiten dugu programazioa.

Eztabaidak, aurkezpenak, erakusketak, tailerrak egiten ditugu, eta urtero egiten dugu Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia, Gutun Zuria.

# GUTUN ZURIA BILBOKO LETREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

**Gutun Zuria. Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia**
Azkuna Zentroan 2008. urtetik egiten den nazioarteko literatura-jaialdia da. Bilboko literatura-adierazpenen "erakuslerik nabarmenena" izan nahi du jaialdi horrek, eta beste puntu bat hiriaren proiekzioan. Erreferentea da literatura garaikidearekiko interesa dutenentzat. Urtero, ehunka lagunek hartzen dute parte Gutun Zuria jaialdian, desira eta itxaropenak haiekin partekatuko dituzten sortzaileak ezagutzeko.

Izenak adierazten duen bezala - gutun zuria, mihise zuria -, euskarri horren gainean marrazten dira ahots berriak, adierazpen berriak, eduki berriak, formatu berriak, "gutxiengo erraldoiak" eta "gehiengo txikiak" agerian jartzeko.

Literatura-topaketa hauek hitzaren "ospakizun" bat dira, bere dimentsio osoan (eskuz izkiriatua, digitalki idatzia, mintzatua, kontatua/ antzeztua, etab.), gure espazioan dauden publiko-komunitateekin belaunaldien arteko eta komunitateen arteko elkarrizketak bultzatzen dituzte, baita gure Zentroa kanpoan egotea eta ikusaraztea ere. Jaialdiaren formatu nagusia eta ardatza bertako, estatuko eta nazioarteko autoreen eta pentsalarien arteko literatura-topaketak dira, urtero definitzen den gai nagusi baten inguruan antolatuak. 2019ko Gutun Zuria jaialdiaren titulua da "Gaur gauean suak nire liburutegia erreko balu. Artea kontatzeko artea". Lehen zatiak Aldous Huxleyren saiakera du abiaburu, Huxleyk argudiatu baitzuen liburutegi bat erretzea alferrikako ekintza dela, liburuak berriz irakurri eta eduki ahal direlako. Bigarren zatiak, berriz, José Lezama Lima poetak ahozko arteari buruz idatzitako testu bat du aipagai.

Gutun Zuriak Alhóndiga Bilbaoko espazio osoa hartzen du: Auditoriotik Mediatekara, Atarira edo Lantegia. Ideien laborategia, goiz, arratsalde eta gaueko programazioarekin.

2019ko edizioan, hitzak liburuetako orrien muga gainditu, eta harremanetan jartzen da gainerako diziplina artistikoekin. Arteak dituen aukera narratiboak erakutsiko dizkiguten tailerrak, eta hitza eta musika bateratzen dituzten hitzaldiak eta errezitaldiak eginez, argitaletxeen elkargune gisa edo erakusketa bateko piezak erabiliz.

Jaialdiaren atariko eta luzapen gisa, martxoaren 14an, Azkuna Zentroak **Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa** inauguratu zuen, Zentroak berak ekoitzitako erakusketa.

**'consonni radio con Az'** kolektibo Az-kide egoiliarrak programa hau aurkeztu zuen:
'**Voces en el jardín**, especial Gutun Zuria', non jaialdiko protagonistek gogoetak partekatu eta iritziak trukatu baitzituzten.

**consonni** argitaletxeak argitaletxe independenteekin izandako topaketa koordinatu zuen, dauden arazoez, ezaugarriez, desberdintasunez eta desirez hitz egiteaz gain, guztiok erabiltzeko moduko estrategiak prestatzeko bide emateko.

**Euskadiko Idazleen Elkartea** mahai-inguru batean izan zen, 'Hay Festival of Literture and the Arts', 'Festival Eñe' eta 'Sonar' jaialdiekin batera, eta "Nola erakarri publiko berriak literatura-jaialdietara" gaiaz, eta musikara, arkitekturara, zinemara eta abarretara espazio berriak nola ireki eta literaturarekin nola uztartu eztabaidatu zuen.

**Euskadiko Idazleen Elkartea**, Hitz Beste topaketan, hainbat autorerekin elkartu zen, eta mahai gainean jarri zuen hitza erabiltzen duten edo hartaz baliatzen diren esamolde asko daudela. Hitzen eta artearen, filosofiaren, antzerkiaren eta adierazpen grafikoaren arteko lotura aztertuz, diziplina desberdinak alderatuz eta erlazionatuz.



Gutun Zuria, hau da, Hitzaldiak / Elkarrizketak / Topaketak / Mahai-inguruak

Inaugurazioa: Hitzaldia, Verónica Gerber Bicecci eta Iván de la Nuezen artekoa; irekiera-ekitaldirako pieza eszenikoa: Sisyphus Ascending. Lars Gregersen;

Maialen Lujanbio. Hitzaldia.

Cristina de Middel eta Joan Fontcuberta, Agustín Fernández Mallorekin. Mahai-ingurua: Buruz burukoa argazkilaritza-fikzioaren inguruan.

Harkaitz Cano eta Xabier Gantzarain. Elkarrizketa.

Carlos Fonseca, Juan Vico eta Valérie Mréjen, Julián Rodríguezekin. Mahai-ingurua: Artea kontatzeko artea.

Eric Dicharry, Beatriz Chivite eta Danele Sarriugarte, Beñat Sarasolarekin. Mahai-ingurua.

Bernado Atxaga eta Oskar Alegria. Elkarrizketa:

Christina Rosenvinge eta Chico y Chica. Topaketa:

Enrique Vila-Matas eta Alicia Kopf, Iñaki Estebanekin. Mahai-ingurua: Irudiak amildegia esploratzen.

Gutun Zuria, hau da, Sorkuntza literarioa / Edizio independentea / Tailerrak:

Hitzak suntsitzea ederra da. Verónica Gerber Bicecci. Tailerra.

Nola erakarri publiko berriak literatura-jaialdietara. Euskadiko Idazleen Elkartea. Topaketa:

Irudiak eta hitzak: beste ikuspegi bat duen tailerra. Bilbao FormArte. Tailerra.

Hitz Beste. Euskal Idazleen Elkartea. Topaketa:

Argitaletxe independenteen topaketa. consonni argitaletxea. Topaketa:

Gutun Zuri, hau da, Gizartea: Ikus-entzunezkoak/ Espazio dokumentala / Irratia / Areto literarioa / Erakusketaren bisita gidatuak

Gutun Zuria literatura-aretoa.

Dokumentazio-gunea.

Liburu-dendentzako eta salmentarako espazioa eta Anti liburu-denda, Binario liburu-denda, Louise Michel liburuak agerian jartzeko.

**Voces en el jardín.** Gutun Zuriako saio berezia. consonni radio con Az.

**Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa erakusketa.** Bisita gidatuak komisario eta artistekin.

# LITERATURAKO BESTE JARDUERA BATZUK

Literatura-programa egonkorrari ekiten zaio berriro, narratibaren, tailerren eta literaturaren eta artearen arteko elkarrizketen inguruko topaketekin, profesionalekin eta autoreekin. Gainera, komikiak eta beste ekimen batzuk azaldu dira, hala nola Fatxada proiektua tailerren formatuan, eleberri grafikoen egileekin topaketak eginez.

Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroaren **Mujeres, dones, mulleres, emakumeak** liburuaren aurkezpen-ekitaldia..

**Topaketa Fernando Iwasakirekin**, Latinoamerikako intelektual ezagunenetako batekin.

**Topaketa literarioa Seth marrazkilariarekin; Ipar Amerikako** komiki independenteko ezinbesteko egile honek Ventiladores Clyde aurkezten du Azkuna Zentroan, ziurrena, bere lanik garrantzitsuena dena, ia hogei urte eman baititu bera prestatzen. Hor, bere jakintza eta dotoretasun grafikoa erakusten du, aurreko mendeko hogeita hamarreko hamarkadako The New Yorker argitalpeneko ilustratzaileengandik jasoa.

**Topaketa literarioa James Ellroyrekin**, azken eleberriaren aurkezpena, Ekaitz hau (This storm). Bigarren aldiz bisitatu du Azkuna Zentroa AEBetako autoreak; lehen aldiz 2015ean izan zen Gutun Zurian parte hartzeko.

**Fanzine-tailerra Klari Morenorekin.** Fanzinea norberak editatutako argitalpena da, geure sorkuntza-lanak banatzeko tresna ezin hobea. Borja Cresporen laguntzaz Klari Morenok emandako tailer honetan hainbat gai jorratu dira: nola ekoitzi gure argitalpena, zein fanzine-mota dagoen, eta nola egin geurea baliabide handirik erabili gabe.

**'Inausteko garaia' Susana Blascorekin.** Lanean teknika horretara hurbiltzen da, esperimentaziotik, gogoetatik eta jolasetik abiatuta. Era askotako ariketak egiten dira, hipotesi desberdinak aintzat hartuta, eta bereziki azpimarratzen da ideiak eta kontzeptuak nola jorratu eta ilustratu baliabide hori erabiliz. Teknika errazenetatik urratzaileenetara, geometrian, Dadaismoan, mihiztaketan edo collage esperimentalean barrena joz. Hori guztia antzinako aldizkari eta argazki piloen artean.









# 2 ZEHARKAKO ARLO

## BITARTEKOTZA ETA PUBLIKOAK

**BITARTEKOTZA ETA HEZKUNTZA.**
Azkuna Zentroan – Alhóndiga Bilbaon, bitartekaritza gure eginkizunean hasten da. Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentro bat gara, publikoen komunitateen eta egungo kulturaren arteko bitartekari izan nahi dugu, loturak sortu nahi ditugu testuinguruan eragiteko eta gizarte sortzaileagoa, kritikoagoa eta askotarikoagoa eraikitzen laguntzeko.

Gure sei ildoen bidez, programazio hibrido, askotarikoa eta hedatua sortzen dugu, gaur egungoaren egunerokotasuna errazten duena, jakintza sortzeko eta gizartea artearen eta artisten bidez eraldatzeko bitarteko-lana egin eta hezten duena, horiek baitira aldaketaren benetako katalizatzaileak. Gure helburua da pertsonek harreman aktiboa izan

dezaten espazioarekin eta bertan gertatzen denarekin, eta hona hurbil daitezen hausnarketa, hizketa, eztabaida, ekintza... erabiliz. Arlo artistiko edo kultural hutsa gaindituz, eta artearen inguruko esperientzia berriei bide emanez.

Hezkuntza eta bitartekaritza tresna baliotsua dira publikoen kolektiboekin lan egiteko, kulturaren bidez ideiak, pentsamendua eta balioak sortzea sustatuz, eraldaketarako tresnak sortuz eta proposatuz. Lehentasuna eta protagonismoa du gure urteko programazioan eta, zalantzarik gabe, Zentroaren etorkizunean.

Zentroa pentsamendu kritikoa eragiteko eta errazteko gailu pedagogiko gisa ulertzen dugu, gizartea arte garaikidearekin duen erlazioan sentsibilizatzeko, eta publikoen komunitateen eta lan artistikoaren arteko komunikazio-kanal gisa.

2019. urte honetan, Zentrora egindako bisita gidatuei esker, gure publikoen komunitateei hurbildu ahal izan diegu gaur egungo arte-praktika, historia eta arkitektura, eraikinaren orainaldia eta hiriarekiko harremana. PlayTime eta antzeko programen bidez, ikasle-taldeek publizitate-estrategiak desmuntatu eta irauli dituzte iragarkietan esku hartuz, eta hausnartu eta kontakizunak eraiki dituzte collagearen bidez egindako ausazko hautatze-jokoekin. Hiru minutuz, erakusketa luzeko argazki batean geratu dira, beren buruaren, ideien eta pentsamenduaren jarioaz jabetzeko, beren nia berregituratu eta irudikatzeko.

Erakusketetan, Angela de la Cruzen piezen hauskortasunaren eta gogortasunaren bidez, errealitate sozial desberdinei buruz hausnartu dugu, mugak eta oztopoak birformulatuz. Inoiz ez erreala, beti egiazkoa erakusketan artearen aukera narratiboari buruzko hausnarketa egin dugu. Eta kode digitalek gure ingurunean, gure gizarte-, ekonomia- edo kultura-jardueran duten eraginari buruz hausnartu dugu Open Codes. We are Data-n.

Musika esperimentaleko gure programa guztiek, zinema- eta ikus-entzunezkoen zikloek, jarduera eszeniko batzuek eta tailer, hitzaldi, mahai-inguru eta abarrek bitartekaritza- eta hezkuntza-osagai bat dute, hitzaldiekin eta aurkezpenekin, publikoen komunitateei prozesuak hurbiltzeko, eta banakako proiektu bakoitzaren azpian dauden jarduera sozial, politiko eta ekonomikoez eztabaidatzeko.

## PUBLIKOAK.

2019an, % 40ko hazkunde esponentziala izan dugu Zentroko programazioan, asistentzian eta parte-hartzean. Nabarmentzekoa da uztaileko, abuztuko eta iraileko datua, igoera ikusgarria izan baitugu aurreko urteetan izan ez den udako programazioari esker. Emaitza onak ditugu, halaber, proiektu berrietan, hala nola Open Space-n, Open Codes. We are data erakusketan izan dugun lankidetza-gunean. Gainera, zuzeneko arteen programazioa handitu egin dugu, eta hori parte-hartzaileen kopuruan ere islatzen da; eta Zinematekak, gure programarik finkatuenetako bat denak, aurreko urtearekin alderatuz gero, igoera nabarmena izan du publiko aldetik.

Hazten jarraitu nahi dugu, noski, baina, batez ere, gure Zentroko erabiltzaileen esperientziak hobetu nahi ditugu. Horretarako, gune berri bat ireki dugu horma-artean jendeari arreta egiteko. Az Info erosoagoa, service style berriaren bidez modu proaktiboan eragin-trukea izateko, arreta-estilo berriarekin, garatzen ari garen publikoen komunitateen beharren arabera egina.

Gure helburua publiko horiek programazioan aktiboki parte har dezaten sustatzea da. Herritarrak kontuan hartu behar ditugu, salbuespenik egin gabe, eta irisgarritasuna lortzeko neurriak sustatu behar ditugu, kultura-arloko prozesuen garapenean txertatuta.

Hori da, adibidez, Lantegia. Ideia-laborategiaren helburuetako bat. Hiri-laborategia ere izango du, herritarrek hiriko kultura-ekoizpenean eta -esperimentazioan parte har dezaten bultzatzeko, parte-hartzearen, konektagarritasunaren, berrikuntzaren, dibertsitatearen eta esperimentazioaren bidez.



# 6 ZERBITZU

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, gainera, herritarrei eskaintzen dien zerbitzu-zorro bat du, Azkuna Zentroko programazioaren erabiltzaile gisa duten esperientzia osatzeko eta aberasteko, eta, gainera, dituen espazio guztien erabilera eta okupazioa maximizatzeko, kultura-programazioaren osagarri diren alternatibak eskainiz. Hona hemen zerbitzuak:

1. Mediateka BBK
2. Dendaz. This is basque design. Azkuna Zentroaren saltokia
3. Guneen alokairua
4. Ostalaritza
5. Zinemak
6. Jarduera Fisikoko Zentroa

# 01.

# MEDIATEKA BBK

**133.143**
mailegu

**1.378**
sarrera / eguneko

**493.361**
bisita

**72.000**
ordenagailu eta bideo-joko erabilera

**77.000**
ale hainbat formatutan
(inprimatuak, CDak, DVDak...)









Mediateka BBK literaturarako espazioa da; hitz idatziaren, irakurriaren, entzunaren gunea. Mediateka BBK-k bilduma bibliografikoa du, eta AZ Programa Proiektuko sei ildo estrategikoetan egituratuta dago: arte garaikidea, zuzeneko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, gizartea, kultura digitala eta literatura.

Urtero, ia milioi erdi lagun iristen dira urteko egun guztietan zabalik egoten den Mediateka BBK-ra. Ikasteko eta ikusle mota guztientzako jarduerak programatzeko egokitutako espazioak dauzka. Bildumaz eta Artxiboaz gain, bertako mailegu zerbitzua Udal Liburutegien Sareko garrantzitsuena da.

Mediatekak BBK-k eskura dauzka bilduma, argitalpen propioak eta artxiboa, euskarri fisikoan nahiz digitalean, honako helburu hauek lortzeko asmoz:

### Hitza eta literatura ardatz nagusi:

Mediatekan, hitza eta literatura jorratzen dira literatura adierazpide gisa, beste arte adierazpen batzuekin erlazionatuta, baita pertsonen arteko komunikazioaren eta interakzioaren oinarri gisa ere, eta komunitateak sortzen laguntzen du. Ildo horretan, honako jarduera, tailer eta egonaldi hauek biltzen dira: ilustrazioa, eleberri grafikoa eta komikia, ahozko poesia, irakurketa klubak, topaketak egileekin, eta abar; orobat, literatura arloan zehazten diren berariazko programazio eremuak.

### Komikia eta ilustrazioa:

2010ean inauguratu zenetik, Mediateka BBK-k komikiaren alde egin izan du apustu, komikia bere bildumaren ardatzetako bat bihurtuta. Gehien eskatzen den ataletako bat da, eta hainbat erabiltzaile komunitatek erabiltzen du. 7.000 komiki titulu inguru dituen funts bibliografikoaz gain, Mediateka BBK-k eleberri grafikoaren eta ilustrazioaren inguruko sorkuntza artistikorako gune berezi bat izango du.

### Kultura digitalak:

Apustu egiten dugu bai eduki digitalen alde (erreferentziazko lanak, prentsa, streaming-a, liburu elektronikoak, audioliburuak, podcastak, filmak eta dokumentalak), bai ELiburutegiko eta EFilm Euskadiko liburutegi digitaleko edukien alde ere.

### Hezkuntza eta bitartekaritza:

Bitartekaritza Mediateka BBK-n sartu orduko gauzatzen da lehenengo, eta zentro osoan zehar gero. Askotan ezezagunak eta konplexuak diren kontzeptu garaikideak interesa duen jendeari azaltzea eta hurbiltzea da horren helburua. Horretarako erreferentziako guneak dira bai harrera egiteko espazioa, bai Mediateka BBK-ko langileek erabiltzaile komunitateak artatzeko atondutako hainbat gune ere; erabat erabiltzaileei begira bideratutako arreta eta laguntza garatzen dute horietan.

2019an zehar gauzatutako ekimenen artean, aipatzekoa da Mediateka BBK-ko espazioen behatze kualitatiborako plana. Bere helburua: espazioen (habitatuak, habitatu gabeak, ezagutu daitezkeenak, ezagutu ezinak...) inguruko erabilerari, ohiturei eta portaerei buruzko 360º-ko ikuspegia lortzea, informazioa bertatik bertara erregistratuz eta erabilera kuantitatiboko erreferentziei (sarrera kopurua, maileguak, ekipamendu informatikoaren erreserbak...) izaera kualitatiboko beste batzuk batuta, Mediateka BBK berrian diseinatu beharreko espazioak, zerbitzuak eta programak diseinatzeko fase honetan lagunduko dutenak.

Mediateka BBK-ko guneetan egindako jarduera eta programetan 9.135 parte-hartzaile izan dira aurten, eta arreta berezia jarri zaie mota guztietako erabiltzaileentzat egokitutako edukiei:

Familientzat eta haurrentzat bereziki zuzendutako gune baten bitartez, **familia programazioan** 3.765 familia erabiltzaile eta 1.128 erabiltzaile haur eta gazte izan dira.

**Espazio inklusiboa**, eduki egokituen eskaintzaren bidez: irakurtzeko arazoak dituzten pertsonei egokitutako audioliburuak, trataera bereiziko testua eta audioa dituztenak.



## artxiboAZ

Programa Proiektuan jasota dagoen proiektuetako bat artxiboAZ izeneko Azkuna Zentroaren Artxiboa sortzea da.
Ezagutza artistiko garaikidea zabaltzeko eta babesteko tresna izateko sortua da, helburu nagusitzat hartuta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok kultura zentro gisa egin duen ibilbide osoan zehar garatu izan diren jarduera eta proposamen artistiko garaikideei buruzko informazioa eskura eskaintzea.

## ARGITALPENAK

2019an, Mediateka BBK-k bere gain hartu zituen zentroak egindako argitalpenak koordinatzearekin lotutako zereginak, eta bi argitalpen eta liburu-katalogo bat argitaratu zituen:

**Homeless**. Angela de la Cruz. Arg. hirueleduna euskara/espainiera/ingelesa.
**Todos los conciertos, todas las noches, todo vacío.** Ana Laura Alaez. hirueleduna euskara/espainiera/ingelesa.
**Nunca real / Siempre Verdadero**. Arg. hirueleduna euskara/espainiera/ingelesa.









## BILDUMA

2019ko abenduaren 31n, Mediateka BBK-ko funts bibliografikoan 77.338 ale zeuden (80.415, gordailukoak zenbatuta), batez ere dokumentu inprimatuak, baina baita soinu grabazioak eta bideoak ere. Azken horien artean, orain arte garrantzi berezia izan dute literaturak (fikzioa, komikia, eleberri grafikoa...), arteak, pentsamenduak, dibulgazio zientifikoak eta gaurkotasunak.

2019. urte osoan zehar, guztira 3.942 ale berri sartu dira Mediateka BBK-ren katalogoan, hau da, %5,09 inguruko igoera osatuta. Eskuratze bolumen handiena honako hauetan izan da: fikziozko literatura funtsa eta komikia, irudia eta soinua, arte adierazpideak eta adierazpenak, eta programazio proiektuak.

## Total colección por tipo de documento

**57.997**
Dokumentu

**9.374**
Soinu-grabazio musikal

**1.026**
Musikaz kanpoko soinu-grabazio

**8.190**
Bideo

**352**
Ordenagailu-fitxategi

**174**
Mapas

**229**
Bideo-joko

## ZERBITZUAK

Guztira, 133.143 mailegu egin dira, hau da, Bilboko Udal Liburutegien Sareko maileguen bolumen osoaren % 48 baino zertxobait gehiago. Horregatik da horren garrantzitsua Mediateka, hiriko liburutegi gune guztietako mailegu bolumen handieneko zentroa, Bidebarrietako liburutegiaren aurretik.
Mailegu elektronikoei dagokienez, gaur egun 19.569 titulu dauzkan E-liburutegia plataforman, erabiltzaileek irakurtzeko 2.823 ale deskargatu dituzte; horrek esan nahi du % 36ko igoera izan dela 2018an zehar eman zen zerbitzu berarekin alderatuta.

Erregistratutako 377 erabiltzaile berrien profil nagusia 41 eta 50 urte bitartekoa da.

E-film plataformari dagokionez (zinema, dokumentalak, kontzertuak, telesailak eta film laburrak online mailegatzeko plataforma), gaur egun 15.740 titulu ditu, eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sare osoan 9.619 deskarga egin dira, nahiz eta ez eskura izan liburutegi bakoitzaren datu espezifikoak.

Bulegotika zerbitzuari dagokionez, guztira 7.466 erabiltzaile desberdinek erabili dituzte ordenagailuak 2019an, eta 72.000 ordenagailu saio baino gehiago egin dira denbora tarte horretan. Zerbitzu horren okupazio indizea % 50 baino pixka bat txikiagoa da.
Erabiltzaileei zerbitzuak emateko, Mediateka BBK-n 29 langilerekin (3 teknikari, AZko 2 behargin, eta prozesu teknikoko eta erabiltzaileentzako arreta zerbitzuak ematen dituzten enpresetako 24 langile) osatutako taldea dago.
2016ko azaroaz geroztik, eta Az Play Bideo-joko independenteen Nazioarteko Jaialdiaren VI. edizioarekin batera, bideo-jokoen eta mahai-jokoen munduaren inguruko gune iraunkor bat jarri zen martxan Mediateka BBK-n: JOKU PLAY. 2019an, 2.000 pertsonak baino gehiagok erabili zuten zerbitzu hori, batez ere asteburuetan eta jaiegunetan.



## IKASKETA GELA

Ikasketa gela Mediatekari atxikitako gunea da, eta urteko 365 egunetan irekita dago, zentroaren ordutegi berean. WIFI konexio librea du, eta bertako 72 plazek okupazio indize oso altua izaten dute urte osoan zehar. Unibertsitateko ikasleak eta oposiziogileak dira bertan sarrien izaten diren erabiltzaileak.

## BBK ESPAZIOA

BBK Espazioa Mediateka BBK-k programatutako jarduerak egiteko gune bat da, hala nola hainbat Irakurketa Klub (horietako bat, ingelesez), BBK-k programatutako jarduerak, etab.

Espazio hori ikasteko edo taldean lan egiteko erreserba daiteke, eta 2019an zehar 9.135 pertsonak erabili zuten (gehienez 8 lagunek orduko), 3.151 orduz; gehien erabiltzen diren ordu-tarteak 16:00etatik 20:00etara bitartekoak eta asteburuetakoak dira.

## MEDIALAB1 ESPAZIOA

Zerbitzu hori 580 orduz egon da irekita urteko 145 egunean zehar (Aste Santuan, Gabonetan eta uztailetik irailera bitartean itxita egoten da, eskola-oporrekin batera, eta asteburuetan eta jaiegunetan ere bai), eta 2.091 erabilera izan ditu; zerbitzu horren erabiltzaile gehienak 14-16 urte bitarteko DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako gazteak dira (%

63,80 emakumeak). 2019ko erabilaldi kopuruak adierazten duenez, % 30etik gorako igoera izan da, espazio horren 2018ko erabilera datuekin alderatuta.

## ERABILTZAILEAK

2019. urtean, 493.361 sarrera izan ditu Mediateka BBK-k, eta, beste behin ere egiaztatu da espazioa sendotu egin dela Bilboko herritarren eta bilbotarrak ez direnen artean informazioa, ikaskuntza eta ezagutza eskuratzeko erreferente gisa, 2010eko urrian ireki zenez geroztik.
Asteko zerbitzu ordutegi osoak (74 ordu, ordutegi jarraituan banatuta, urteko 365 egunetan) zerbitzu publikoaren konpromisoa erakusten du.
Zerbitzua kontsumitzen dutenen artean, honako hauek daude gehienbat: emakume helduak, prentsa ataletako senior multzoa, asteburuetan familiak, ikasle gazteak, bulegotika zerbitzuak erabiltzen dituzten atzerritarrak eta eskola taldeak. Aniztasunerako, inklusiorako eta gure erabiltzaileak diren ‘gutxiengoen gehiengo’ horiek guztiak kudeatzeko aukera izateko espazioa da Mediateka BBK.







# 02.

# DENDAZ.THIS IS BASQUE DESIGN

**30**
artista-lankide

**Más de 500**
erreferentzia baino gehiago salgai

**50**
Ekoizpen propioko diseinu



Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok uztailean inauguratu du DendAZ. This is Basque Design plataforma diseinura irekitako leihoa. Gune publiko honetan artistek beren prozesuak eta praktikak ikusgai jarri ditzakete eta haien lanak, produktuak eta zerbitzuak daude.

DendAZ zerbitzu estrategikoa da Azkuna Zentroarentzat; izan ere, sormen-prozesuak eta konexioak sustatzen ditu publikoen komunitateen eta tokiko diseinatzaileen artean, eta kontzientzia sortzen du erosketa sortzaileaz, diseinuaren balioaz eta sormenaz. dendAZ proiektuak zubi lanak egin nahi ditu sektore sortzaileen eta kultura eta sormen industrietan lanean ari direnen artean.
Proiektua Artea eta diseinua.

Sortzaileak dira proiektu honen ardatz nagusia, eta Bilbo, Bizkaia, Euskadi, Nafarroa eta Iparraldeko 30 artista eta kolaboratzaileren parte-hartzearekin hasiko da. Diseinua sustatzeko eta ikusarazteko ekimen honetan Azkuna Zentroak Bilboko Udalaren, BEAZen eta EIDEren, Euskadiko eta Nafarroako Diseinatzaileen Elkartearen, laguntza du, eta proiektuak hautatzeko talde bat osatu dute.

DendAZ. This is Basque Design espazioarenen bereizgarria produktuaren balio erantsia da,tokikoa, iraunkortasuna, Do It Yourself ikuspegia eta esklusibotasuna nabarmentzea, eta, batez ere, tokiko sormena eta diseinua nabarmentzea. DendAZ. This is Basque Design proiektua eraikitzeko, Azkuna Zentroaren balio estrategikoak hartu dira: sorkuntza, irisgarritasuna, aniztasuna eta lankidetza.

Gune malgua eta ekologikoa da lokala. Berriz konfiguratzeko moduko elementu mugigarriak erabilita, espazio hibridoa sortu da, saltzeko eta erakusteko edota ekitaldiak, aurkezpenak eta tailerrak egiteko baliagarriak diren inguruneak bateratzen dituena. Altzari gehienak modularrak dira, bertako zurarekin egin dira inguruko artisau-tailerretan.

## PRODUKTUAK

Salgai dauden produktuak sortzeko erabilitako teknologia, kolorea, materialak eta fabrikazio-prozesuko osagai guztiak jasangarritasun-irizpideen arabera erabili dira eta ahalik eta ingurumen-inpaktu txikienarekin. Azkuna Zentroak prozesu osoan hartzen du parte, kalitatea eta jasangarritasuna lehenesteko.

Sorta zabala da: moda, papergintza, liburuak eta argitalpenak, oparitarako artikuluak, dekorazioa...

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok editatu eta Zentroaren kultura programazioarekin zerikusia duten argitalpenak ere eros daitezke, baita tokiko hornitzaileek egindako merchandising korporatiboa ere.

dendAZ. This is Basque Design-ek online denda bat ere badu, produktu batzuk eta Zentroko argitalpen guztiak erosi ahal izateko.

## DISEINATZAILEAK

This is Basque Design-en dauden produktu eta ekimen gehienak Bizkaian diseinatu eta sortu dira. Uztailean inauguratu zenetik, 30 kolektibo edo artista izan dira:
Abad (diseinua), Getxo - Bizkaia
Ainhoa Fustel (larruzko osagarriak), Bilbo - Bizkaia
Aitor Saraiba (ilustrazioa)
Amarenak – Ohiane Pardo (moda), Donostia
Ane Pikaza (ilustrazioa), Bilbo - Bizkaia
Angélica Barco (diseinua), Bilbo - Bizkaia
Apetitu (bitxiak), Bilbo - Bizkaia
Ätakontu (moda) Bilbo - Bizkaia
Belleza infinita (edizioa), Bilbo - Bizkaia
Bilbotex (ehunak), Bilbo - Bizkaia
Bïnik - Berni Zarrari (osagarriak), Bilbo - Bizkaia
CookPlay – Ana Roquero (baxera), Bilbo - Bizkaia
Eder Aurre (moda), Bilbo - Bizkaia
Espacio AERRE (diseinua), Bilbo - Bizkaia



Estudios Durero (diseinua), Zamudio - Bizkaia
Ganboa Handmade Jewellery (bitxiak), Bilbo - Bizkaia
Higi Vandis - Higinia Garay (ilustrazioa), Bilbo - Bizkaia
Ixi Wood (osagarriak), Lekeitio - Bizkaia
Katxi Klothing (moda), Donibane Lohitzune
Leire Urbeltz (ilustrazioa), Iruña
Mario Gaztelu (ilustrazioa), Bilbo - Bizkaia
Mario Gaztelu (ilustrazioa), Bilbo - Bizkaia
No rain today (moda), Bilbo - Bizkaia
NUOC (osagarriak), Donostia
Pezestudio (diseinua eta arkitektura), Bilbo - Bizkaia
Pilar Morquillas (diseinua), Bilbo - Bizkaia
Proyecto Hemen (moda eta diseinua), Bilbo - Bizkaia
Señorita Lemoniez (moda), Donostia
Susana Blasco (ilustrazioa), Bilbo - Bizkaia
Ziriak (altzariak), Bilbo – Bizkaia

Bilboko Anti liburudenda eta Sopa de Sapo Bizkaiko liburudenda independenteek eta upategi hauek ere parte hartzen dute: Murillo Viteri upategiek, Diez-Caballero upategiak, Astobiza upategiak eta Gorka Izagirre upategiak. – Araba.

## DINAMIZAZIO PROGRAMAK

DendAZ. This is Basque Design diseinuaren esperientziara irekitako leihoa da, diseinatzaileek beren prozesuak, praktikak, produktuak eta zerbitzuak gizartearekin partekatu eta ikusgai jarri ahal izateko erakusleihoa. Sormenean oinarritutako erosketa mota berri baten inguruan kontzientzia sortzeko leku bat. Ideia hori indartzeko asmoz, Azkuna Zentroa – Alhondiga Bilbaok hainbat ekintzaren bidez dinamizatzen du proiektua:

**Offline ekintzak**: Inaugurazioa, ate irekien eguna, Euskal DiseinuAZ, Atrio, I am a Basque Designer fitxa, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao hiruhileko aldizkaria.

**Online ekintzak:** Instagrama, Newsletterra / webgunea. Testuinguru horretan, This is Basque Design-ek zentroko proiektuekin bat egiten du programazio zabalagoa eskainiz, baina bere programa propioa ere sortzen du, EIDE, Euskal Disenua eta Euskal diseinuAZ elkarteekin koordinatuta. Espazio berria inauguratu zenetik, lau jarduera egin dira diseinua gizarteari hurbiltzeko hainbat formaturen bidez.

Euskal diseinuAZ programa dendAZ-en egin da, horma hauetatik kanpo ere irten da eta Atarian edo edo diziplina anitzeko aretoan kokatu da.



# 03.

# EKITALDIAK, ESPAZIOEN ALOKAIRUA

**182**
ekitaldi

**26.850**
erabiltzaile

**337**
okupatutako espazioen erabilerak

**329k**
diru-sarrera









Azkuna Zentroak giro paregabe eta berezia eskaintzen du, edozein motatako ekitaldiak ospatzeko espazio pribilegiatuekin, hala nola, kongresuak, hitzaldiak, harrerak, koktailak, tailerrak edo mintegiak, produktuen aurkezpenak, merkaturatze-kanpainak edo bilerak.

Ekitaldi horiek arte-giroaz eta kulturaz goza dezakete, zentroan antolatzen diren kultura-programazioko jarduera guztien bidez, bai eta erabilgarri dauden zerbitzuen eskaintza zabalaz ere, hala nola BBK mediateka, zinema-aretoak, erakusketa-aretoa, kafetegia edo jatetxea, igerilekuak eta gimnasioa.

2019an zehar 182 ekitaldi antolatu dira hainbat erakunde publiko eta pribaturekin, enpresekin, instituzioekin eta hirugarren sektorearekin. 254ko betetzea izan dute jardunaldietan, 26.850 lagunek parte hartu dute eta Azkuna Zentroak 328.862 euro fakturatu ditu.

182 ekitaldietatik 79 erakunde ekonomiko-komertzialek antolatzen zituzten eta jarraian, kultur erakundeek antolatutako 60 ekitaldi.










## SEKTOREAK EKITALDI KOPURUA

KULTURALA
60
SOZIALA
16
MEDIKUNTZA - SANITARIOA
17
EKONOMIKO - KOMERTZIALA
79
TEKNOLOGIKO-INDUSTRIALA
10
GUZTIRA 182

AZKUNA ZENTROKO ESPAZIOEN ANTOLAKETA




## +4 SOLAIRUA



1. Terraza
2. JFZ: Igerilekuak
3. JFZ: Adaptatutako Aldagelak

## +3 SOLAIRUA



1. Mediateka BBK
2. Ricardo Bastidaren Bulegoa
3. Yandiola terraza
4. JFZ Aldagelak

## +2 SOLAIRUA



1. Mediateka BBK
2. JFZ
3. Yandiola jatetxea
4. Lantegia 2

## +1 SOLAIRUA



1. Mediateka BBK
2. JFZ
3. Yandiola jatetxea
4. Lantegia 1

## 0 SOLAIRUA



1. Hola Bar
2. Mediateka sarbidea A1
3. The Boar
4. Cajero
5. JFZ sarbidea A2
6. Lantegia sarbidea A3
7. Erakusketa Aretoa-Auditoria sarbideak A4
7. dendAZ. This is Basque Design
9. AZinfo (Informazio gunea)

## -1 SOLAIRUA



1. Auditorioa

## -2 SOLAIRUA



1. Atondoa
2. Erakusketa aretoa
3. Bastida aretoa
4. Golem zinemak

Alokairu-espazioetan antolatutako ekitaldiak, batez ere, tokikoak izan dira, 11 naziokoak eta 8 nazioartekoak.

Ekitaldirik aipagarrienak Bilboko kultura-eskaintza osatzen dutenak eta, aldi berean, AZ kultur sektoreko, tokiko, estatuko eta nazioarteko beste eragile batzuekin konektatzen dutenak dira. Horien artean, honako hauek daude:

MTV Breaks
Design Week
Berbagune
Euskaraldia
Zinebi – Fant- Cine Invisible - Zinexit
Dantzaldia
BasqueFest
Maker Faire
Premios FEST
Barruan
Gau Zuria
Loraldia

Beste aldetik, ekitaldiek enpresa eta sektore-sarearekin konektatzeko aukera ematen digute, hainbat enpresarekin, besteak beste:

Encuentros Sectorial del Turismo
Foro de la Paz
Elkargi
Quirón
Nortegas
Tubacex
Helio
Eroski
SVRNE
Laboratorios farmaceúticos
Instituto de Empresa
Universidad de Deusto
Universidad Ouberta de Catalunya

Nazioarteko bisitak:

Azkuna Zentroaren nazioartekotzea sustatzeko, bilerak, bisitak eta 2019/2023 Proiektu Programa berriaren aurkezpena antolatu zen. Hona hemen bisitatu gintuzten erakunde eta agintariak:

Alemaniako enbaxadako agregatu kulturala
Kanadako enbaxadako agregatu kulturala
AEBko enbaxadako agregatu kulturala
Frantziako Ministerioko Kultura sailburua
Japan Foundationeko zuzendaria
British Councileko Zuzeneko Arteen zuzendaria
Biennale di Venezia bisitatzea
Europako smartplaces proiektuko kide guztiak AZra (8 kultura-erakunde) joatea



# 04.

# JATETXEAK

**4.320**
erreserba Yandiola jatetxean

**557**
catering zerbitzu

Zerbitzuen **% 39** AZren programazioari lotuta

Cateringeko **122** enpresa-bezero









Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoko Yandiola Taldeko sukaldaritza-eskaintza publiko eta behar guztietara egokitzen da. Jatetxe-arloko 4 gune esklusibo, catering zerbitzu bat eta Showcooking sukaldaritza-gela bat ditu taldeak, eta kanpoko eta bertako bezeroak artatzen ditu.
Yandiola Taldearen jatetxeen arloko espazioen eta zerbitzuen aniztasuna eta kalitatea ezinbesteko osagarriak dira ekitaldi korporatiboak, kongresuak, solasaldiak, mahai-inguruak, kultura-erakusketak eta AZk programatutako mota guztietako jarduerak antolatzeko.

Azkuna Zentrora datozen bezero asko eta asko Yandiola Taldeko jatetxeetara joaten dira etenaldi bat egin, mokaduren bat jan eta hiria bisitatzen jarraitzeko. Gune bakoitzak aukera ematen du gastronomia- eta esperientzia-eskaintza desberdinez gozatzeko, publiko mota bakoitzari egokituta baitaude, nahiz tokikoa, nahiz naziokoa eta nazioartekoa. Gainera, Taldeak bere espazioetan jarduerak programatzeko eskaintzen duen aukera osagarri ezin hobea da AZko kultur programazioaren alorrerako eta ekitaldiak antolatzeko.

## GUNEAK

### Yandiola jatetxea

Bigarren solairuan dagoen jatetxeak tradizioa eta abangoardia duten platerak eskaintzen ditu, berrikuntza kutsua duten zapore klasikoak, bai bilbotarrarentzat, bai sukaldaritza modernoa baina sustraiduna dastatu nahi duen bisitariarentzat. Garai bateko ardo biltegia, gaur egun Philippe Starcken diseinuari esker kultura- eta aisialdi-gune bihurtua, Ricardo Pérez chefaren inspirazio iturria izan zen ardo paregabeak hautatzeko, eta ongi hautatu zituen, izan ere, nazioarteko aitortza jaso zuen 2011n Best of WineTourism saria lortu baitzuen jatetxeen kategorian. Sartu orduko ikusten da sukaldea, beirazko horma baten atzean, eta talde osoaren lana ikus daiteke. Dekorazio modernoa eta soila du, Azkuna Zentroaren diseinuari jarraituz, gune goxoa eta estiloduna da, besaulki eta sofa marroi, berde eta gris modernoak ditu eta euskal natura basatiena gogorarazten dute.
Yandiola jatetxeko bezerorik gehienak bertakoak eta nazionalak dira, baina turistak ere gero eta gehiago dira, 2019an % 20 gehitu baitira. 2019an 4.300 erreserba baino gehiago, 2018an baino % 2 gehiago.

### Terraza

Azkuna Zentroaren goieneko solairuan dago, eta hiriko leku pribilegiatuenetako bat da, bere kokapen ezin hobeagatik. Bilboren bihotzean dagoen eraikin enblematiko honen gailurretik bertako kupula zoragarrietako bat ikus daiteke. Ekitaldi eta jai partikularrentzako leku paregabea da eta urte osoan irekita egoten da, nahiz hotza nahiz beroa izan. Hainbat argitalpenetan estatu mailako terrazarik onenetakotzat jo dute, eta 2016an Terraza onenaren Bilboko gaueko aisialdiko saria eman diote.
Bilerak egiteko edo lanegun baten ondoren ihes egiteko ezin hobea, Terrazan chillout giro ezin hobea dago eta hiriko kopa edo cocktail eskaintza onenetako bat ere bai.

### Holabar:

Yandiola taldearen bistroa, Azkuna Zentroaren atarian dago, gune moderno eta sofistikatua da eta solairu bat berean zenbait giro ditu. Eguneko edozein ordutan jateko aukera ezin hobea da: gosaltzeko, hamarretakoa egiteko edo osasuntsu, azkar eta prezio onean jateko. Philippe Starck arkitektoak Azkuna

## YANDIOLA JATETXEKO BEZEROAK

ESTATUKO BEZEROEN ERRESERBA KOP.
2018: 3.939
2019: 4.008
HANDITU: %2

NAZIOARTEKO BEZEROEN ERRESERBA KOP.
2018: 259
2019: 312
HANDITU: %20

ERRESERBAK GUZTIRA
2018: 6.216
2019: 6.339
HANDITU: 2%



Zentroari emandako estiloa indartzen du Holabarren dekorazioak, estilo industrial eta abangoardistarekin. Zura, aluminioa edo burdina nagusi diren giro atsegina. Hormak ere protagonista dira, urtean zehar hainbat erakusketa egiten baitira.

### The Boar

Pub ingelesaren eta ardotegi peto-petoaren arteko gune honetan The Boar proposamen informala da eta giro informala du, kontsumo modu berrietara egokitua. Pintxo eskaintza du, besteak beste, Madril Fusion 2019 XV. Pintxo Lehiaketa Nazionala irabazi zuen pintxo ospetsua; ardo, sagardo, likore eta vermouth aukera zabala era badu eta San Miguel Tap Stationek garatutako kontzeptuari jarraituz , gordailu-garagardo desberdinak eskaintzen dira, munduko hainbat hiritako garagardogileen gustuen araberako nahasketak egin ahal izateko: Praga, London, Bilbo, Chicago...
Lokalaren dekorazioarekin giro eroso eta lasaia eskaini nahi izan da; aulki altuak, mahaikideen arteko elkarreragina errazten duen erdiko barra zabal bat, eta sofak dituen espazio goxoa atzeko aldean.

## BESTE GUNE BATZUK

### HóGo

Bezeroaren beharretara egokitzen den catering-zerbitzu osoa; elementu bakoitzak (muntaia, janari mota, zerbitzua, girotzea) ideia bati, kontzeptu bati erantzuten dio. 2019an erakunde eta enpresa askok aukeratu dute HóGo ekitaldietako jatetxe- eta catering-zerbitzua antolatu eta kudeatu zitzan, guztira 58 enpresa pribatuk, enpresa-elkartek, erakunde publikok eta sustapen-erakundek.

### Yan Eskola

Yandiola Taldearen sukaldaritza-gela da. Gune hau Showcooking eta sukalde pertsonalizatuko klaseetarako erabiltzen da. Ikastaroak, dastatzeak, bilerak eta ekitaldi txikiak ere antolatzen dira; txoko pribatu bat erabiltzeko aukera ere badago, sukaldari eta zerbitzariarekin, bezeroek hala eskatuz gero.

## ZERBITZUAK

Zalantzarik gabe, Azkuna Zentroaren eta Yandiola Taldearen sinergiaren indargunea ekitaldi korporatiboak, kongresuak, solasaldiak, mahai-inguruak eta kultur erakusketak antolatzea da, eta Yandiola Taldea arduratzen da soilik jatetxe-zerbitzuaz.

Grafikoan ikus dezakegu 2019an eskainitako catering-zerbitzu kopurua, bai Azkuna Zentro barruan (barne-zerbitzuak), bai kanpoan (kanpo-zerbitzuak). Barne zerbitzuetako batzuk ekitaldi pribatuak dira eta beste batzuk Azkuna Zentroko kultur programazioarekin zuzenean lotuta daude.

2019an, 219 catering-zerbitzu eman zaizkie 122 enpresa eta erakunde bezerori.

Jatetxe arloko eskaintza osatzeko, jarduerak programatzen dira gune guztietan: musika, sustapenak, kirolak, ikastaroak, omenaldiak, jaiak. Bisitariei balioa eman eta esperientzia ahaztezina eskaini nahi izaten zaie:
- Musika: Yandiola Unplugges, Vinilo FMrekin
- Tokiko artisten erakusketak gure guneetan
- Dastatzeak eta uztartzeak
- Jardunaldi Iberikoak
- San Miguel Exploratorium
- Gastro esperientziak blogger eta influencerrekin
- Lehiaketak eta zozketak.

# 05.

# GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

**412.828**
ikusle 2019an

**283**
film programatu

**9**
jaialdi

**13.208**
lagun bertaratu dira Golemeko jardueretara









Golem Alhóndiga zinemetan 8 proiekzio-areto daude eta guztira 1.246 ikuslerentzako tokia dago. Zinegoak, Zinebi, Fant eta Zinema Ikusezina jaialdien egoitza da eta AZko Zinema eta Ikus-entzunezkoen (Zinemateka) programazioaren egoitza ere bai.

Golem zinemen programak zinema komertziala eta interes sozialeko ziklo monografikoak uztartzen ditu, baita Azkuna Zentroko publiko komunitate desberdinen behar eta interesetara egokitutako saioak ere. Estrategia horretan nabarmentzekoak dira, besteak beste, igande eta jaiegun goizetako saioak, haur txikiak dituzten gurasoentzako saio bereziak edo haurrentzako emanaldi bereziak.

### Leihatila

2019an Golem Alhóndigak 283 film proiektatu ditu 9.000 saio ingurutan eta 400.000 ikusle baino gehiago izan ditu.

### Zinema eta ikus-entzunezkoen programazioaren egoitza

Golem Alhóndiga zinema-aretoak funtsezkoak dira AZk zinema eta ikus-entzunezkoen arloan programatzen zituen jarduerak garatzeko, hala nola Zinemateka, Zinegoak, FANT, Zinemagileen artea, Zinema Ikusezina Jaialdia, Zinebi edo Mendi Film Jaialdia. Jarduera hauek guztiak Zinema eta ikus-entzunezkoen atalean daude azalduta.

| 2019ko ZIKLO ETA JAIALDIEN LABURPENA | SAIO KOP. | BERTARATUAK |
|---|---|---|
| **ZINEMATEKA** | 224 | 6.608 |
| **ZINEGOAK** | 16 | 779 |
| **FANT** | 33 | 2.878 |
| **IRUDITAKO HIRIA** | 16 | 213 |
| **ZINEMATEKA**: Zinema Irekia | 14 | 152 |
| **ENTRE CINEASTAS** | 18 | 424 |
| **FESTIVAL CINE INVISIBLE** | 18 | 1.240 |
| **ZINEBI.** Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia | 29 | 1.355 |
| **Zinebi expres** | 1 | 135 |
| **Zinemakumeak gara** | 1 | 85 |
| **Film Sozialak** | | 1240 |
| **ZINEXIT** Giza Eskubideen 10. Zinema Erakustaldia | 5 | 905 |
| **BBK MENDI FILM BILBAO BIZKAIA,** Nazioarteko mendi zinemaldia | 14 | 2.247 |
| **ZIKLOAK ETA JAIALDIAK** | 389 | 18.261 |

## Golem Alhóndigaren programazio propioa

Egunero programatzen den zinema komertzialaz gain, Golem Alhóndigak programazio-lan handia egiten du, zinema publiko desberdinei hurbiltzeko eta zinemarako sarbidea errazteko, ordutegiak eta saioak zabalduz. 2019an jarduera hauek programatu dira:

### Golem Artea:

Zinema dokumentalari buruzko zikloa, Monet, Caravaggio, Much, El Corazón del Teatro Real, Hitler vs. Picasso, Van Gogh, Bernini, Degas, Dalí, Cézanne, El joven Picasso eta beste zenbait. Ziklo honetan 4.960 ikusle izan dira.

### Udako Golem:

Pablo Larraín, Trey Edward Shults, Gaizka Urresti, Robert Eggers, Galder Gaztelu-Urrutia, Alejandro Landes, Oliver Laxe, Melina Matsoukas, Diao Yinan eta Kore-eda Hirokazuren filmen zikloekin. Ziklo honetan 14 film proiektatuta dira 144 saiotan eta 2.155 ikusle.

### "Haurtxoaz" saioa

"Titi saioa" ere esaten zaiona, amak haurtxoekin etorri baitaitezke eta, bularra emateko aukera dute haurrak eskatuz gero. 780 emakumek gozatu dute programa honekin.

### Haurrentzako Zinema (euskaraz):

132 saio eta 2.502 ikusle.

### Ikasleentzako saio bereziak:

64 saio eta 1.257 ikasle.

### Zinegabonak:

Gabonetako programazio berezia.

Igande eta jaiegunetako goizeko 112 saioetan 4.056 lagun izan dira.

| GOLEM 2019 PROGRAMAZIOAREN LABURPENA | SAIO KOP. | BERTARATUAK |
|---|---|---|
| Udako GOLEM Verano | 144 | 2.155 |
| GOLEM Arte | 51 | 4.960 |
| Ikasleentzako saioak | 64 | 1.257 |
| Bular-emaileentzako saioak | 12 | 780 |
| Haurreentzako zinema | 132 | 2502 |
| Zinegabonak | 2 | 79 |
| Igandeko goiz saioak | 112 | 4.056 |
| JARDUNALDIAK | 517 | 15.789 |

# 06.

# JARDUERA FISIKOKO ZENTROA

**691.341**
erabiltzaile/urte

**49%**
emakume

**5.063**
abonatuak/hilabete

**27.415**
Bilbao Kirolak-eko abonuak

**51%,**
gizon

**58**
ikastaro









JFZ Jarduera Fisikoko Zentroak 10.000 m2 ditu, gutxi gorabehera, hiru instalaziotan banatuta. Instalazio horiek erabilera intentsiboko maila dute urtean 365 egunetan zehar, egunean 16 ordu irekita mota guztietako publikoentzat (astelehenetik ostiralera), eta 14,5 zerbitzu-ordu larunbat, igande eta jaiegunetan. 75 pertsonako taldeak gimnasioan lan egiten du erabiltzaileari urte osoan zerbitzua emateko.

Instalazio bakoitzaren erabilera-intentsitatea oso handia da. 2019an zehar, hilean 5.063 abonatu zenbatu ditugu batez beste, eta horietatik % 86k

### Igerilekua eta terraza:

2019ko ekitaldian, igerilekuak 360.000 sarrera baino gehiago izan ditu eta intentsitate handieneko hilabeteetan (urritik ekainera), 1.850 haur-ikaslek eta 210 ikasle seniorrek gozatu zuten hilero programatutako jarduerez. Terrazak, gainera, 2.252 erabiltzaile izan zituen.

### Entrenamendu funtzionaleko aretoa:

2019an, hirugarren solairuan dagoen areto honek KFZen kirol-eskaintza osatzen du eta 44 jarduera berri gehitu dizkio JFZ espazioari.

### Gimnasioa:

2019an 386.000 sarrera ditu, eta gimnasioak Fitness Gela oso bat eta erabilera intentsiboko sei jarduera-gela ditu.

## ENTRENAMENDU FUNTZIONALERAKO GELA BERRIA KFZEN

Azkuna Zentroko Jarduera Fisikoaren Zentroak (Alhondiga Bilbao) 250 metro karratuko gela berri bat ireki du, entrenamendu funtzionalerako diseinatua eta egokitua. Bertan, pertsona bakoitzak bere beharretara eta prestakuntza fisikora hobekien egokitzen den zirkuitua egin ahal izango du.

Entrenamendu Funtzionaleko Gelan bi orduko saioak egin daitezke, trebetasun biomotoreak lantzeko eta pertsonen koordinazioa eta oreka fisikoa eta mentala hobetzeko. Korearen lan bizia da, gorputzaren grabitate-zentroa inguratzen duen muskulu-eremua. Hori dela eta, errutina horiek hainbat mailatara egokitzen dira, eta edonork egin dezake jarduera.

## FAMILIENTZAKO AQUATEKA

Denboraldi berri honetan, Jarduera Fisikoaren Zentroak haurrentzako animazio-zerbitzu bat jarri du martxan, 4 eta 12 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat. Aquateka berriak gurasoei lur eta ur jardueretan aritzeko aukera ematen die, adingabeek igerilekuko ikastaroetan eta 30 minutuko jarduera ludikoan parte hartzen duten bitartean, Azkuna Zentroa - ALHONDIGA BIlbaoko begiraleen begiradapean.

## IKASTAROAK

2019an zehar 58 ikastaro programatu ditugu eta horien iraupena eskola-urtea da.





## Lurreko ikastaroak

ABD HIPOPRESIVOS
AEROBIC
BAILES CARIBEÑOS AVANZADO
BAILES CARIBEÑOS INICIACION
BAILES DE SALÓN AVANZADO
BAILES DE SALÓN INICIACIÓN
BIG DANCE
CARDIO BOX
CICLO INDOOR
CICLO POWER
DANTZAZUMB
FITNESS GAZTE
FITPILATES
FITPILATES SENIOR
FUNKY I
FUNKY II
FUNKY III
GAP
GAZTE MIX
GIMNASIO TARIFA MENSUAL
INESTABLES
MANTENIMIENTO 3ª EDAD
MULTI GYM
PILATES
POWER TONO
SALA FUNCIONAL
TARIFA MENSUAL
STRECHING
STRECHING EXPRESS
TAI CHI AVANZADO
TAI CHI INICIACIÓN
TBC WOMAN
TRX
TRX EXPRESS
TXIKI MIX
WOMAN CIRCUIT
YOGA AVANZADO
YOGA INICIACIÓN

## Ur ikastaroak

AGUA PREMIUM
AQUA BOX
AQUADANTZA
AQUAFITNESS
AQUAGAP
AQUAMIX
AQUAPILATES
AQUASALUD
AQUATEKA
CARDIO-ALETAS
CARDIO-ALETAS JUNIOR
NATACIÓN ADAPTADA
NATACION BEBES I
NATACION BEBES II
NATACION BEBES III
NATACION PREPARTO
NATACION SEGUN NIVEL
NATACION SENIOR
NATACIÓN TERAPÉUTICA PISCINA GRANDE
POOLBIKE
PREPARTO CON PAREJA



## TAILERRAK

Tailerrak pertsona kopuru itxi batentzako jarduerak dira eta ikastaroek baino iraupen txikiagoa dute; gutxi gorabehera, 2019an 120 pertsonek gozatu dute tailerretan.

### Lur tailerrak /Okupazio kopurua:

2018 – 2019 DENBORALDIA
Gravedad 0 - %90
Minfulness - %100
Suelo pelvico - %59
Minfulness - %75

2019 – 2020 DENBORALDIA
Gravedad 0 (iniciación) - %92
Minfulness - %100
Gravedad 0 (avanzado) - %75
Suelo pelvico (humeekin) - %50

### Ur ikastaroak:

Lantegiak batez ere, eskola eta ikastetxeei zuzenduta daude. 2019an zehar, 2018an ere parte hartu zuten 5 ikastetxerekin izan dira lantegiak:

- Ikasbide
- Sanchez Marcos
- Nuestra Señora del Pilar
- Nuestra señora del Carmen
- Jesuitas (2 talde)

## MARATOIAK:

Maiatzetik ekainera 2 maratoi egin dira dantzarako, Dantzazum, 351 parte-hartzailerekin hiru saiotan eta spinning maratoiko hiru saio 360 parte-hartzailerekin.

## ERRONKAK

6 ur-erronka (18 eta 116 km artean) eta 6 lur-erronka (160 eta 1100 km artean) eskaini dira, eta 272 pertsonak eman dute izena. Gainera, bigarren urtez jarraian, lurra eta ura uztartzen dituen Iron AZ proba antolatu da, 30 parte-hartzailerekin.

## BI JARDUERA BERRI 2019AN:

### Urpekaritza-bataioa:

Proposamenaren helburua 10 urtetik gorako pertsonek espazio kontrolatu batean esperimentatu ahal izatea zen, hala nola, igerilekuan, oxigeno botilekin murgiltzea. Plazen % 100 bete ziren.

### Sirenak eta uhandreak:

Ideia berarekin esperimentatzeko, sirena eta uhandreen isatsez jantzitako hegal bakarrarekin igeri egitea proposatu zen. Proposamenak harrera bikaina izan zuen eta plaza guztiak bete ziren. Igerilekuko ikusleek eta ataritik igerilekua ikusten zutenek gozatutako esperientzia.
















# 4 PROIEKTU ESTRATEGIKO

## ENTZUN/ESCUCHAR

2018ko maiatzean, Fernando Pérez Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko zuzendaritzan hastearekin batera, hausnartzeko prozesu zabala eta dinamikoa jarri zen abian, bost urteko Proiektu Programa finkatzeko, Zentroko ikusleen komunitateei entzun ondoren.

Entzun/Escuchar proiektu soila da, Zentroak arreta eman, ulertu eta entzun nahi baitu zer esan behar diguten aurrez ezagutzen gaituztenek eta oraindik ezagutzen ez gaituztenek, Azkuna Zentroan lan egiten dutenek eta etorkizunean egingo dutenek, hala gure programazioan elkarlanean ari direnek nola etorkizunean egingo dutenek. Talde horiek bide eman digute erkatzeko, zalantzan jartzeko, berriro doitu eta proposamenak jasotzeko, inguruneak eta erabiltzaileek dituzten

beharrizanei buruz guztien arteko ulermena abiaburutzat hartuta.

Iritziak elkartzeko prozesu hori lagungarria izan da estrategia prestatzeko. 2019ko urtarrilean aurkeztu da jendaurrean, eta begirada hemen eta nazioartean jarrita duen gizarte- eta kultura-zentro gisa kokatzen du Azkuna Zentroa.

‘Entzun/Escuchar’ prozesuan, gonbit egin genien gizarteari, artistei, sektoreko profesionalei, administrazioei, zentro artistikoei eta konplize diren erakundeei, AZko taldearekin batera hausnartzera. Dinamika bakoitzean alderdi desberdinak landu ziren, betiere orain arte egindakoetatik harantz eboluzionatzeko xedez, balio gehiago emateko asmoz.

Horrela egin dira “Entzun/Escuchar” proiektuko hamar saioetatik bederatzi. Bost saiok lotura dute programazioko arloekin eta diziplinekin: Musika / Musika esperimentala / Arte eszenikoak / Arte bisualak / Zinema eta ikus-entzunezkoak / Literatura eta hitzari buruzko programazioa. Beste hiru zeharkako lan-ildoei lotuta daude: Komunikazioa / Euskara / Hezkuntza eta pedagogia artistikoak.

Prozesuan, 200 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte (batez beste, 15 eta 20 lagun inguru saio bakoitzean), inplikatutako sektoreetako profesionalek. Gonbidatuen artean, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoko aholkulariez eta agente eta kolektibo lankideez gain, Zentroarekin harreman berezirik izan ez duten pertsonak eta erakundeak ere izan dira. Nolanahi ere, profil-sorta zabala lortu nahi izan da, genero, adina eta ibilbide profesionala aintzat hartuta; eta, horretarako, artistei, irakasleei, kazetariei, ekoizleei, sektoreko erakundeetako ordezkariei eta bestelakoei dei egin zaie.

Proiektuaren lehen unean jasotako ideien bilduma gisa, Entzun/Escuchar koadernoa argitaratu zen, eta kontsultatu nahi duten pertsonek Mediateka BBKren lehen solairuan dute eskura.

## MEDIATEKA BBK, XXI. MENDEKO LIBURUTEGIA

Mediateka BBK sorkuntza artistikorako, ikaskuntzarako eta esperimentaziorako gunea da, proaktibitatea bultzatzeko prestatutako bilduma bibliografikoaz eta kultura-programazioaz hornitua. Proiektuak pertsonak ditu ardatz, pentsamendua ikuspegi sozial, inklusibo eta jasangarritik bultzatzeko, artearen eta artisten bidez gizartea eraldatuko duen jakituria kritikoa sortzeko, eta gizarte anitzagoa eraikitzeko konektatu ahal izateko.

Gaur egungo Mediateka BBK duela hamar urte Zentroarekin batera jaio zenaren eboluzioa da, eta etorkizunari begira dago, sorkuntzarako eta jakintzarako gune gisa, kultura garaikidean espezializatutako bizikidetzarako eta elkarketarako espazio modura.

Aldaketa hori 2019-2023 Programa Proiektuaren eta Azkuna Zentroak gizartearen eta kultura garaikidearen arteko lotura gisa duen eginkizunaren barruan kokatzen da. Mediateka BBK pertsonen beharretara egokitu da, eta espazioan islatzen den eredu berri baterantz jo du. Birdiseinuari esker, hainbat konexio-maila sortu dira, errazenetatik globalenetara, elkartzea eta bizikidetza bultzatzeko hainbat esparru eta jatorritako publiko-komunitateen artean. Begirada berrituak barruko eta kanpoko konexioak bultzatzen ditu, bereziki Lantegia. Ideien laborategiarekin, sormenezko ekoizpena eta esperimentazioa lantzeko tokia baita.

Aldaketa-, eraldaketa- eta eguneratze-prozesu horretan, eutsi egin zaio Zentroaren kultura-motorretako baten DNAri, egunero barruan biltzen diren pertsonentzat erreferentzia bihurtuta. Testuinguru horren balio nagusietako bat da jatorri, adin eta hizkuntzen aniztasuna.

Liburutegi bat besterik ez da, baina funtzioak, ibilbideak eta bilduma zabaldu ditu, Zentroaren sei programazio-ildoen inguruan. Literatura, komikia eta bideo-jokoa

ditu ardatz, baina leku berriak ditu diziplina horien inguruan sortzeko, elkartzeko eta sozializatzeko. Ez da lekuz aldatu, baina orain Zentroko gainerako espazioei, hiriari eta nazioarteari lotutako gunea da. Ez du galdu 'teka' gisa duen funtsa, baina kaxa hau zabaldu egin da konexiorako, sorkuntzarako eta pentsamendurako.

Mediateka BBKren espazioak adin, jatorri eta hizkuntza desberdinetako pertsonekin partekatzeko, hitz egiteko, ikasteko... dira. Bertan biltzen diren komunitateek osatzen dituzten "gutxiengoen gehiengo" horiekin.

Hitza eta literatura dira ardatz nagusia, literatura-adierazpide gisa, bai eta pertsonen arteko komunikazioaren eta elkarrekintzaren oinarri gisa ere, komunitateak sortzen laguntzeko. Komikiak eta ilustrazioak berariazko espazioa dute arte-sorkuntzarako, eleberri grafikoaren eta ilustrazioaren inguruan. Familiaren programazioa arlo garaikidetik eta familia-mota guztien integrazioaren ikuspegitik lantzen da. Kultura digitalek eta horiek ikasketa-prozesuetan duten protagonismoak, eta, halaber, hezkuntzak eta bitartekaritzak funtsezko eragile bihurtzen dute Mediateka BBK, Zentroan eta Zentroarentzat eratutako edukiak sortzeko eta zabaltzeko.

## LANTEGIA. IDEIEN LABORATEGIA, ARTE ETA KOMUNITATEEN HABITAT BERRIA.

2019an Lantegia. Ideien laborategia aktibatu zen, proiektu artistikoak ekoitzi eta ikustarazteko Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok duen espazioa, parte hartzea, sorkuntza, berrikuntza, jakintza, irisgarritasuna eta dibertsitatea sustatzen dituena. Arte eta komunitateen habitat bat da, oso berritzailea, artistikoa eta nazioartekoa. Lantegia. Ideien Laborategia abian jartzea xede estrategikoa da 2019-2023 Proiektu Programaren esparruan, lan-ingurune irekia eta lankidetzakoa sortu behar baita, sorkuntza artistikoa ikerkuntzatik eta hezkuntzatik hurbilago dagoen prozesu gisa hartuta, eta ateak zabaldu behar baitira ekoizpenera eta esperimentaziora, Bilboko sorkuntza-sarearen osasuna sendotzeko.

Lantegia. Ideien Laborategiak hiriko kultura-ekoizpena sustatu nahi du, parte-hartzea, konektibitatea, berrikuntza, dibertsitatea eta esperimentazioa sustatuz. Lankidetzako komunitate profesionalak sortu nahi ditu, kultura eta sorkuntzako industrien sektorearen harrobia izan daitezen, hain zuzen, alderik sortzaileena. Kontaktu, ideia-truke, prozesu eta proposamen artistikoen bidez kultura garaikidea ekoizteko espazio bat eratu nahi du. Eta prestakuntzako proposamenak garatu, jakintza garaikidea sustatzeko eta azaltzen ari diren profesionalei laguntza emateko.

2019an, 'Haritu, kultura digitalaren eta teknologiaren laborategia' kultura digitalen proiektua garatu da Lantegian. Edozeinek du aukera hurbiltzeko eta teknologiak probatzeko, esaterako, fabrikazio digitala, programazioa edo elektronika. Edota hausnartzeko eta zalantzan jartzeko zer-nolako eragina duen teknologia garaikideak gugan. Lantegiko BAT espazio berria proba- eta saiakera-areto gisa egituratu zen, eta 2019ko irailean zabaldu zen, Komisario Berriak (KB) erakusketarekin, egile hauen kuratore-proiektuekin: Garazi Ansa (Oiartzun, 1989), Marc Badal (Bartzelona, 1976) eta Laura Vallés (Castellón, 1984).

Lantegian kokatutako Egonaldien Zentroak jarraipena ematen die Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko nazioarteko eta hurbileko egonaldien dinamikari, eta bultzada berritua da, artistei aukera ematen baitie prozesu eta proiektu artistikoak garatzeko eta ekoizteko. Lester Álvarez eta José Ramón Ais egoiliar Az-Kideek Azkuna Zentroan izandako egonaldian egindako lana erakutsi zuten BAT espazioan.

## DENDAZ. THIS IS BASQUE DESIGN

Azkuna Zentroaren saltokia, diseinuari irekitako leiho bat esperientzia gisa.

dendAZ. This Basque Design 2019ko uztailean irekitzean, Azkuna Zentroak leiho bat ireki dio diseinuari esperientzia gisa. Espazio publiko honetan, artistek ikusgai jar ditzakete beren prozesuak eta praktikak; eta haien lanak, produktuak eta zerbitzuak topa ditzakegu bertan.

dendAZ proiektu estrategikoa da Azkuna Zentroarentzat, sorkuntza-prozesuak eta publikoen komunitateen eta tokiko artisten eta diseinatzaileen arteko loturak sustatzen baititu, eta kontzientzia sortzen baitu sormen-erosketa mota berri baten, diseinuaren balioaren eta sormenaren inguruan. Era berean, zubiak eraikitzen ditu sorkuntza-sektoreekin eta kultura- eta sormen-industrietan lan egiten duten pertsonekin. Sortzaileak dira proiektu honen ardatza, eta Bilbo, Bizkaia, Euskadi, Nafarroa eta Akitania berriko hogeita hamar bat diseinatzailek hartzen dute parte.

Salgaiak sortzeko, behar bezala erabili dira teknologia, kolorea, materialak eta fabrikatzeko prozesuko osagai guztiak, iraunkortasuneko irizpideak betez, ingurumenean ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko. Azkuna Zentroak prozesu osoan parte hartu du, kalitatea eta iraunkortasuna lehenesteko. Aukera-sorta zabala dago: modako gaiak, paper-dendakoak, liburuak eta argitalpenak, oparitzeko gaiak eta dekoraziokoak. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok kultura-programazioari lotuta atera dituen argitalpenak ere salgai daude, bai eta hemengo hornitzaileek egindako korporazioko merchandising-a ere. dendAZ. This is Basque Design-ek online denda ere badu, produktuak eta Zentroaren argitalpen guztiak eskuratzeko.

Diseinua sustatzeko eta ikustarazteko ekimen honetan, Azkuna Zentroak Bilboko Udalaren, BEAZ eta EIDEren, eta Euskadiko eta Nafarroako Diseinatzaileen Elkartearen laguntza du; talde bat eratu dute saltokian dauden proiektuak hautatzeko.

## HOBEKUNTZA POSITIBOKO PLANAK

Azkuna Zentroan ahalegina egiten dugu sarrera zabalik uzten gure erabiltzaile guztiei, eta irisgarritasuneko neurriak sustatzen eta abiarazten ditugu, kultura- eta sorkuntza-prozesuak garatzean. 2019-2023 Proiektu Programan garatutako hobekuntza positiborako barne-mugimenduan, iraunkortasun-plana jaso dugu, aurrezki energetikoa eta ingurumen-arloko





hobekuntza lortzera zuzendutako ekintzekin. Irisgarritasun-plana ere badugu, espaziora eta programaziora iristeko sarbide unibertsala bermatze aldera; bai eta berdintasun-plana ere, era eta adin guztietako pertsonentzako espazioa sortzeko, berdintasunean oinarrituta.

### Iraunkortasuna

Azkuna Zentroak oraingo eta etorkizunerako zentroa izan nahi du, sentsibilizatua eta aktiboa, ingurumena hobetzera eta baliabideen kontsumo arduratsua lortzera bideratutako ekintza jasangarriak egiten dituena. Diagnostiko-aldian egon arren, ez gara hutsetik hasi. Hainbat neurri hartu ditugu, esaterako, ekipamenduak jarri ditugu igerilekuko berriztapen-uraren beroaren efizientzia altua berreskuratzeko, eta argi halogenoak kentzen, eta LED teknologiarekin ordezkatzen ari gara. Iraunkortasuna zeharkako ardatza da proiektu berrietan, hala nola 2019ko uztailean abiarazi dugun dendAZ. This is Basque Design saltokian.

### Berdintasuna

Azkuna Zentroak, Bilboko Udalarekin eta udalaren 2019ko urtarrileko ordenantzarekin bat etorrita, konpromisorik handiena hartua du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikekin, berdintasunean oinarritutako gizarte anitza, integratzailea, iraunkorra eta indarkeriarik gabea lortzeko. Garatzen ari garen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plana eta diagnostikoa tresna egokia izango dira, erakundeko egoeraren berri izateko eta aztertzeko (lan-baldintzak, enplegurako sarbidea kudeatzeko eta kontziliatzeko prozesuak), eta, orobat, arlo horretan egon daitezkeen akatsak zuzenduko dituzten neurriak hartzeko.

Erakunde publikoa garen aldetik, berdintasunarekin dugun interesak barnealdea gainditu, eta programazioan barruratzen da, bide ematen baitu emakumeak ager daitezen, hala alde artistikoan nola sozialean. Ikuspegi feminista Azkuna Zentroko programazioaren ADNan dago txertatuta, eta, beraz, espazio batzuk gordetzen ditugu, emakume artisten eta sortzaileen lana ikusgai jartzeko.

### Irisgarritasuna

Irisgarritasun unibertsala helburua izan da Zentroa zabaldu zenetik. Eraikina diseinatzean eta eraberritzean, kontuan hartu zen edozein pertsonak aukera izan behar zuela zerbitzuak erabiltzeko eta zentroko espazioetatik ibiltzeko, haren dibertsitate funtzionalak gorabehera. Hala ere, bikaintasuna lortu nahi dugu irisgarritasun-arloan. Horregatik, lanean ari gara espazioetako esperientzia hobetuko duen sistema bat jartzeko: hala aulkiak eta tenperatura egokia, nola argiztapen-sistemak sarreretan. Kontua da egonaldia ahalik eta atseginen izatea, erabilerarik oneneko esperientzia izateko. Seinaleak hobetzea da gure helburu nagusietako bat. Seinaleen sistema berria asmatzen ari gara, pertsona bakoitzak ondo jakin dezan nora doan, non dagoen eta beste espazio edo zerbitzu batzuk daudela, une horretan erabili ez arren.



# URTEKO KONTUAK

Foru Seilua
Timbre Foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
0,15 €
Hamabost zentimo
Quince céntimos

N 14895789 C

**CENTRO AZKUNA DE SOCIEDAD Y CULTURA CONTEMPORÁNEA, S.A.**
**CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS DE PYMES CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO ANUAL TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE 2019**
(Euros)

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Importe neto de la cifra de negocios (Nota 15) | 3.492.856 | 3.490.439 |
| Otros ingresos de explotación (Nota 11 y 13) | 6.795.493 | 6.708.319 |
| Gastos de personal- | | |
| Sueldos, salarios y asimilados | (999.605) | (998.136) |
| Cargas sociales (Nota 15) | (275.391) | (241.329) |
| Otros gastos de explotación- | | |
| Servicios exteriores | (8.972.240) | (8.923.782) |
| Tributos | (32.100) | (35.609) |
| Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales | (9.013) | (7.789) |
| Amortización del inmovilizado (Notas 5 y 6) | (3.749.436) | (3.766.597) |
| Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras (Nota 11) | 356.895 | 353.177 |
| Otros resultados | - | 7.887 |
| **RESULTADO DE EXPLOTACION** | **(3.392.541)** | **(3.413.420)** |
| **RESULTADO FINANCIERO** | - | - |
| **RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS** | **(3.392.541)** | **(3.413.420)** |
| Impuestos sobre beneficios (Nota 14) | - | - |
| **RESULTADO DEL EJERCICIO** | **(3.392.541)** | **(3.413.420)** |

Fecha de formulación: 5 de marzo de 2020

**BALANCE DE PYMES AL 31 DE DICIEMBRE DE 2019**
(Euros)

| ACTIVO | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| **ACTIVO NO CORRIENTE:** | | |
| **Inmovilizado intangible (Nota 5)** | **3.146.231** | **3.268.860** |
| **Inmovilizado material (Nota 6)** | **49.520.656** | **52.948.326** |
| **Inversiones financieras a largo plazo (Nota 8)** | **318** | **318** |
| **Total Activo No Corriente** | **52.667.205** | **56.217.504** |
| **ACTIVO CORRIENTE:** | | |
| **Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar (Nota 8)-** | | |
| Clientes por ventas y prestaciones de servicios | 327.036 | 293.473 |
| Otros deudores (Nota 14) | 512.633 | 633.089 |
| | **839.669** | **926.562** |
| **Efectivo y otros activos líquidos equivalentes (Nota 9)-** | | |
| Tesorería | 182.600 | 57.915 |
| | **182.600** | **57.915** |
| **Total Activo Corriente** | **1.022.269** | **984.477** |
| **TOTAL ACTIVO** | **53.689.474** | **57.201.981** |

| PATRIMONIO NETO Y PASIVO | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| **PATRIMONIO NETO:** | | |
| **Fondos propios (Nota 10)-** | | |
| **Capital-** | | |
| Capital escriturado | 52.165.760 | 52.165.760 |
| | **52.165.760** | **52.165.760** |
| **Resultados de ejercicios anteriores** | **(3.413.424)** | **(4)** |
| **Resultado del ejercicio (Nota 3)** | **(3.392.541)** | **(3.413.420)** |
| | **45.359.795** | **48.752.336** |
| **Subvenciones, donaciones y legados recibidos (Nota 11)** | **5.706.485** | **5.864.243** |
| **Total Patrimonio Neto** | **51.066.280** | **54.616.579** |
| **PASIVO NO CORRIENTE:** | | |
| **Deudas a largo plazo-** | | |
| Otras deudas a largo plazo (Notas 7 y 12) | 74.290 | 74.290 |
| | **74.290** | **74.290** |
| **Total Pasivo No Corriente** | **74.290** | **74.290** |
| **PASIVO CORRIENTE:** | | |
| **Deudas a corto plazo-** | | |
| Otras deudas a corto plazo (Nota 12) | 66.799 | 275.318 |
| | **66.799** | **275.318** |
| **Deudas con emp. del grupo y asociadas a cp (Notas 12 y 13)** | **427.852** | **271.311** |
| **Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar (Nota 12)-** | | |
| Otros acreedores | 2.001.973 | 1.910.797 |
| | **2.001.973** | **1.910.797** |
| **Periodificaciones a corto plazo** | **52.280** | **53.686** |
| **Total Pasivo Corriente** | **2.548.904** | **2.511.112** |
| **TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO** | **53.689.474** | **57.201.981** |

Fecha de formulación: 5 de marzo de 2020



AZKUNA ZENTROA

# LANTALDEA

**ZUZENDARIA**
Fernando Pérez

**ZUZENDARIAREN LAGUNTZAILEA**
Estibalitz Aldana

**KULTUR PROGRAMAZIORAKO ARDURADUNA**
Rakel Esparza

**KULTUR PROGRAMAZIORAKO KOORDINATZAILEA**
Ainara Bilbao

**KULTUR PROGRAMAZIOARAKO ADMINISTRARIA**
Iraia Olea (Lanalden)

**KULTUR PROGRAMAZIOARAKO PRODUKZIOA**
Olaia Ibarzabal (Lanalden), Iván Alonso (Portal 71)
Telesonic: Alberto Martín, Gorka Férnandez, Jasone Sisniega, Arantxa Etxeberria, Javier de Aymerich, Jabier Artetxe, Enara Álvarez, Raúl Ceña, Israel Rodríguez, José Andrés Carrasco, Guillermo Martínez, Mikel Uresandi, Gaizka Morales, Alfonso Andrés, César Fernández, Aritz Pilar, Félix Goxencia, Aitziber Bermejo, Ibai Pérez de Heredia, Mikel Díaz, María Jimeno, Alaine Arzoz, Arkaitz Muruaga, Borja Arbaiza, Mikel García, Ander Berasaluce, Unai Barrio, Adrián García, Jorge Perales

**MARKETING ARDURADUNA**
Barbara Epalza

**ESPAZIOEN KUDEAKETA**
Leire Sarasola (Lanalden), Amaia Delgado (Lanalden)

**KOMUNIKAZIO ARDURADUNA**
Itziar Ijalba

**KOMUNIKAZIO ADMINISTRARIA**
Maite Arberas

**KOMUNIKAZIO DISEINU ETA EDUKIERAK**
Sonia Gorostizaga (George & Mildred), Irune Lazkano (G&M), Naiara de Miguel (G&M), Itziar Etxeandia (Lin3s), Inés Jauregi (VK Comunicación)

## LAGUNTZAILEAK
Itxaso Diaz, Ruben Corral, Iván de la Nuez, Beñat Sarasola, Iñaki Esteban, consonni, Bulegoa z/b, Fundación EDE, Arantxa Pereda, Unai Fresnedo, Miguel A. García, Oier Iruretagoiena, Enrike Hurtado, Javier Espinosa

## MEDIATEKAREN ARDURADUNA
Alasne Martín

## PROZESU BIBLIOGRAFIKOETARAKO TEKNIKARIA
Sonia Marcos

## MEDIATEKA
Odei: María Jose Alvarez, Iratxe Azuaga, Joseba Azurza, Maialen Bravo, Rubén Caballo, Leire Calzada, Iosu Elorza, Mariola Fernández, Patricia Fernández, Susana Garagarza, Urrategi García, Patricia Juez, Almudena Martin, Begoña Nieto, Jesús Palacios, Ana Pérez, Zulema Rebollo, Milagros Sánchez, Ruth Serrano, Amparo Urieta, Jon Vivanco,
Sedena: Belén Alvarez, María Galíndez, Verónica Martínez

## TELEKOMUNIKAZIOAK ETA SISTEMAK TEKNIKARIA
Unai Ugarriza
Ibermática: Fernando Moratinos, Andoni Tamayo, Sebastian Fernandez, Iker Castresana, Ekaitz Rey, Andoni, Paul Gonzalez, Aitor Perez

## BEZEROAREN ARRETARAKO ARDURADUNA
Jol Guisasola

## BEZEROAREN ARRETA
Lanalden: Verónica Contador,Asier Villota,Amaia Peña, Elvira Rodríguez, Estibaliz Alonso, Laura Inés Molina, Aiskoa Basarrate, Izaskun Etxabe, Begoña Erauzkin, Berta Arribas, Ibai Crespo, Jaione Ruiz, Borja Pérez, Janire Valparis, Eva Gracía, Sandra Rodríguez, Agurtzane Olano, Jenifer García, David Etxeita, Kristina B.ernet, Carla Allende, Sandra Hidalgo, Borja Solis, Izaskun Torres, Rakel Hernández, Erika Bereiciartua, Itxaso Santa María

## MANTENIMENDU ETA LOGISTIKA ARDURADUNA
Iñaki Ayala

## MANTENIMENDU ETA LOGISTIKA TEKNIKARIA
Sandra García

## MANTENIMENDU ETA LOGISTIKA
Giroa: Enrique Gallego, Unai Ruiz, José Antonio Jiménez, Alexander Pariente, Jesús María Beltrán, Jonathan I. Saez Ruiz, José Antonio Fernández, Alexander de la Vega, Koldo Baranguan, Benjamin Bueno, Félix Marques

## ADMINISTRAZIO TEKNIKARIA
Jorge Landa

## FINANTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA
Sonia del Val

## FAKTURAZIO SAILA
Elena Cárcamo (freelance)

## GARBIKETA-ZERBITZUA
Urbegi: Victoria Gómez, Victoria Pérez, Amaya Arnaez, Claudia Mª Méndez, Marivi Amantes, Yolanda Estancona, Mari Carmen Raya, Manuel Fernández, Wilson Ortiz, Fermín Angoitia, Amancio Merelas, Raquel Gibert, Pedro Rubio, Ricard Guerrero, Juan Andrés Rodríguez, Eugenio Chaparro, Concepción Echebarria, Mª Isabel Castro, Manuel Sánchez, Oscar Amadoz, Garikoitz Nuño, Michaela Popovici, Unai Larrabide, Francisco Javier San Juan, Martin Fuentes, Gian Carlos Otelo, Begoña Rodríguez, Mª Sol Pérez de Eulate, Ordalina Arno, Rosa María Pereira, Begoña Collazos

## SEGURTASUNA
Ilunion: Mª Mar Pérez, Julián Lorenzo, Ahikar Soto, Ángel Herrera, Mª Mar González, José Antonio Martínez, Juan Carlos Cordón, Ana Noelia Córdoba, Manuel Rivadas, Luis Mª Vilda, Salo Corrales

## AKTIBITATE FISIKOAREN ARDURADUNA
Koldo Elorrieta

## JARDUERA FISIKOAREN ZENTROA
Emtesport: Maider Cebada, Olaia García, Fe Lorenzo, Edurne Aquesolo, Oihana Iturbe, Amaya Acha, Miren Josune Negro, Saray Arnillas, Izaskun García, Mario Albarran, Maitane Carnero, Garry Dizon, Ane Mesa, Jon Ander Guerrero, Galder Aurrekoetxea, Irantzu Arana, Jon Rey, María Soledad Carreño, Aurora Arnaiz, Julio César Villalva, Iker Ion Baquero, Alejandro Sobrado, Shaila Pereira, Oscar Soto, Gorka Elola, Mª Carmen Poy, Unai Iglesias, Joseba García, Ainara Díez, Cristina Rico, Sandra Domínguez, Cristina Núñez, Jorge V. Martínez, Julen Fernández, Iker Pérez, Aurora González, José Antonio Navarro, Oscar Villamil, Arkaitz Fernández, Daniel Vázquez, Jorge Matute, Marissa Barreda, Fabio Martín, Danny A. Lisintuña, Asier Barranco, Eder Eguia, Laura Soto, Sara Castro, Mikel Ochoa, Noemi Bringas, Cynthia Benítez, Joel Martín, Eneko Bidaurre, Olatz Arce, Gorka Otero, Hodei Fernández, Arantza Martínez, Sendoa García, Diego Martín, Mikel A. Luque, Mario Asporosa, Uxue Lekunberri, Francisco Morales, Andoni González, Ivan Rivero, Froilán de Lozar, Naiara Artetxe, Iratxe Ruesgas, Iñigo González, Rebeca Abrisqueta, Matxalen Laskibar.



# ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

# ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

## OHOREZKO PRESIDENTEA
Juan María Aburto Rique J. Bilboko alkatea

## PRESIDENTEA
Gonzalo Olabarria Villota J.

## PRESIDENTEORDEA
Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea A.

## KONTSEILARIAK
Nekane Alonso Santamaría (EAJ-PNV-ko ordezkaria) A.
Jone Goirizelaia Ordorika (EH-BILDU -ko ordezkaria) A.
Alfonso Gil Invernón (PSE-EE -ko ordezkaria) J.
Carlos García Fernández (PP -ko ordezkaria) J.
Carmen Muñoz López A. (Elkarrekin Bilbao-Podemos / Ezker Anitza-IU / Equo Berdeak -ko ordezkaria)

## TOKIKO GOBERNU BATZARREKO ESKUORDETUTAKO ORDEZKARIAK:
Asier López Gutiérrez J. (EAJ-PNV)
Francisca Iturriaga Osa A. (EAJ-PNV)
José Luis López Bilbao J. (EAJ-PNV)
Iratxe Portillo Zunzunegui A. (EAJ-PNV)
Ekain Rico Lezama J. (PSE-EE)
Borja Vázquez Fontao J. (PSE-EE)

# Eskerrik asko!

## Bilboko Udala

### BABESLE ESTRATEGIKOA
BBK

### ERAKUNDE BABESLEAK
Fundación Banc Sabadell • Laboral Kutxa • BEAZ • Fundación EDP • Grupo Urbegi

### ENTITATE LAGUNTZAILEAK
Metro Bilbao • Ikea • Samsung • Dinof • Coca Cola • San Miguel

### HEDABIDE LAGUNTZAILEAK
El Correo • Deia • Berria • Gara • El País • eldiario.es • El mundo • El Nervión • Periódico Bilbao • RTVE • EITB • Hamaika Telebista • Telebilbao • Cadena Ser • Onda Vasca • BIFM • Cactus • Noiz Agenda • Kmon • Aux Magazine • Teatron

### LAGUNAK DIREN INSTITUZIOAK
Gobierno Vasco • Diputación • Ministerio de Cultura • AC/E (Acción Cultural Española • British Council • Cuerpo Consular de Bilbao • Centro Checo • Embajadas de Noruega, Australia, Canadá, Estados Unidos, Francia, Irlanda, Países Bajos, Rusia, Suecia • Goethe Foundation • Institut d'Estudis Balèarics • Etxepare Euskal Institutua • Foro Cultural Austria • Goethe Institut • Institut Français • Instituto Italiano de Cultura • Japan Foundation • NORLA • Pro Helvetia

### UNIBERTSITATEAK
Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco • Mondragon Unibertsitatea / Universidad de Mondragón • Universidad de Deusto • Oulu University • BCU Birmingham University • Digipen • Instituto de Estudios de Ocio • University of Pennsylvania • Deustobide • Harrobia

### LAGUNAK DIREN PROGRAMAK
Berbagune • Bilbao Art District • Bilbao Bizkaia Design Week • Bilbao European Encounters • Bilbao Música • Bilbao Orkestra Sinfonikoa • BIME • Zinemagileen artean - Caravana de cine realizado por mujeres • Dantzaldia • Dantzan Bilaka • Elías Querejeta Zine Eskola • Eremuak • Festival de San Sebastián • Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas gaylesbotrans de Bilbao - Zinegoak • Festival de Cine Fantástico de Bilbao - FANT • Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao - Zinebi • Film Sozialak - Festival Internacional Cine Invisible Bilbao • Gau Zuria • Laboratorio KLEM • Loraldia • Maker Faire • MOV's • Bilbao Proyecto Zine Eskola • Zinemakumeak Gara! • Zinexit. Muestra de cine y derechos humanos

### LAGUNAK DIREN CULTURA-ZENTROAK
Ars Electronica • Art Divas • ArtistaXArtista • Artium. Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo de Vitoria-Gasteiz • CAPC Musée d'Art Contemporain de Bordeaux • Casa América • Centre de Cultura Contemporània de Barcelona - CCCB • Centro Cultural Montehermoso • Centro de Arte Dos de Mayo - CA2M • Centro Gallego de Arte Contemporáneo - CGAC • Citée de la Bande Dessinée • Colleccion BEEP Epson • Culturgest - Fundação Caixa Geral de Depósitos • Dansateliers • Dortmund-U • Etopia. Centro de arte y tecnología • Euskal Museo Museo Vasco • Filmoteca Vasca • Fondation Cartier • FRAC Lorraine • La Casa Encendida • Liechtenstein National Museum • Maison de la Litérature Québec • MARCO - Museo de Arte Contemporáneo de Vigo • Matadero Madrid • Mercat de las Flors • Musée de Picardi • Museo de Bellas Artes de Bilbao • Museo de Reproducciones de Bilbao • Museo Guggenheim Bilbao • Albuquerque Museum • Museo Oteiza • Museu d'Art Contemporani de Barcelona - MACBA • Red Española de Teatros • San Telmo Museoa • SFMoma • smARTplaces • Tabacalera - Promoción del Arte • Tabakalera • Teatro Arriaga • Van Abbmuseum • ZKM Zentrum Für Kunst und Medien